

Goienkaria

2008ko apirilaren 25a > Egubakoitza > VIII. urtea > 329. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Euskalduna
izatea ez
dago toki edo
pasaporte
bati lotuta;
sentimendua
da"

Monika
Madinabeitia > 09



G2a

Trikitiaren eta
dantzaren eguna,
bi herritan > 39-40

EPAITEGIAK

Oñatiko PPko zinegotziaren aurka
eta EAERen alde egin du epaiak > 04

ELKARTASUNA

Saharako umeak udalekuetara
etorriko dira, lehenengo aldiz > 06

KIROLA

Bergara-Antzuola derbia jokatuko
dute bihar Agorrosinen > 36



AURKAKOTASUNA Bilkuren aretoa bete egin zuten batzuen zein besteen jarraitzaileek; irudian, Rodolfo Ares (PSE-EE), atzean EAE-ANVren jarraitzaileak dituela.

XABIER URTZELAI

ARRASATE > EZOHICO OSOKO BILKURA

Udal agintarieiek desadostasuna eszenaratu zuten Arrasaten

KONFIANTZA MOZIOA PSE-EEk eta EAJk alkatearen aurka aurkeztutako mozioa bakarrik alderdi horiek babestu zuten

EZER EZ ZEN ONARTU Beste lau mozio egon ziren -EAEk, Aralarrek, PPk eta PSE-EEk-; batek ere ez zuen aurrera egin

ika-mika Bilkurak ia bi ordu irau zuen, eta ika-mikan eta elkarri erruak aurpegitzen ibili ziren alderdiak > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-35
Kirola > 36-37
Kultura > 41
Sailkatuak > 42
Eskelak > 43
Denbora-pasa > 44
Gazteak > 46
Komunikazioa > 47
Telebista-Irratia > 48
Non-zer > 50-51

Autoen gaineko gehigarria



GOIENKARIarekin batera,
12 orriko gehigarria autoei
buruz, dena koloretan.

GERTAKIZUNA > BAHIKETA

"Onik irtengo da", dio aitak

Mikel Arana arrasatearra eta Playa de Bakio itsasontzian bahitutako gainerako marinak askatzeko negoziazioak aurrera doazten bitartean, Joxe Mari Aranak konfiantza agertu du: "Mikel indartsua da; onik irtengo da". > 07

OMU
KERAMIKAK
zeramika
•
bainuak
•
eraikuntzarako
materiala

BILTEGIA/BULEGOAK:
Mediterraneo 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Fax: 943 79 40 43
ERAKUSKETA:
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



OSASUNA > YOGA

Gaur ekingo diote yogaren inguruau eztabaidatzeari Arantzazun

180 LAGUN Domekara arte, 180 lagun inguru izango dira Gandiaga Topagunean mahai-inguruak eta ariketa praktikoak egiten

MIRIAN BITERI > OÑATI

Gaur, egubakoitza, emango diote hasiera Arantzazuko Gandiaga Topagunean yoga kongresuarri. Espainiako Satsanga Yoga Federazioak antolatzen duen ekinmen horretan, guztira, 180 lagun inguru biltzea espero dute. Atzo bertan hasi ziren partaideak Arantzazura iristen. Kongresua domekara arte izango da.

Leire Mandiola kongresu horren antolatzaileetako bat da. Jakinarazi duenez, domeka bitartean, yogaren jatorriak zeintzuk diren gogoraraziko dute han. Beste gauza askoren artean, Indiautik datorren "zientzia eta artea" dela eta urte asko dituen diziplina dela; 5.000 urte baino gehiago ditu, izan ere.

Yogaren onuretaz ere hitz egingo dute han. Mandiolaren arabera, fisikoki eta mentalki hobeto bizitzea ahalbideratzen du. "Norberaren gorputza zaintzen eta maitatzen laguntzen du eta, beraz, horretan aritzen direnak osasuntsuago, indartsuago eta malguago sentitzen dira. Gainera, norberaren burua ezagutzeko aukera eskaintzen du", dio antolatzaileak. Egunerokotasunak eragiten dituen arazoei aurre egiteko ere balio duela esan du.

PREBENTZIORAKO ONA

Mandiolaren esanetan, gaixotusunak prebenitezko egokia da. Hala ere, ohartarazi du gaixorik gaudenean medikuarengana joan beharra dugula: "Batak ez du bestea ordezkatzen. Krisialdian, yoga praktikatza baino, medikuarengana joan behar gara".

Dauden yoga moten gainean ere berba egingo dute kongresuan. Horren harira, teknika eta eskola mota asko bidaude ere,

IZENA EMAN DAITEKE Kongresuan parte hartu nahi duenak oraindik aukera dauka: izena eman dezake telefonoz edo Arantzazura joanda

**Teknika eta eskola
asko bidaude ere,
guztiekin diziplina
bera erabiltzen dute.
Gure artean gehien
erabiltzen dena
hatha izeneko da;
baina yoga mota
asko daude**

**Topaketan, guztira,
zortzi mahai-inguru,
hamasei tailer eta bi
meditazio saio izango
dira: "Praktikoa
izango da. Dagoeneko
teoriaz beteta dugu
burua", azaldu du
Leire Mandiolak**

guztiekin diziplina bera erabiltzen dutela dio Mandiolak. Gure artean gehien erabiltzen dena hatha izeneko da. Baina mota asko dago. Tartean, kundalini izenaz ezagutzen dena; bizkar-hezurreko arazoak dituztenendako ona dela azaldu du.

Gogorarazi du yogak lan pertsonala eskatzen duela: "Ez daa masaje bat jasotzea bezala. Baina, emaitza onak ematen ditu". Hala, astero ordu eta erdiko bi klase egitea gomendatzen du. Egunero ere praktika daitekeela dio, ordu erdiko saioak eginez. "Importanteena da denboran mantentzea", esan du.

30 URTETIK GORAKOAK Mandiolak dioenez, gehienbat, 30 urtetik gora dituztenek praktikatzen dute esandako diziplina. Gehienak emakumezkoak direla ere azpimarratu du. Horren harira, hirietan ematen diren yoga klaseetan gizon gehiago hurbiltzen direla dio; herrietan, bakar batzuk. "Gaizkuleru bat dagoela iruditzen zait; yogako klase batera joaten denak berdinberdin amaitu dezake izerdi egiten. Yoga lotzen dugu meditazioarekin. Baina, gorputza ere lantzen daiteke".

Yoga egitea erabakitzetan dute nek, gainera, osasun arazoengatik egiten dutela esan du: "Jende asko osasun arazoengatik sartzen da; depresioak edo antisietatea zein hernia edo bizkar-hezurreko mina dutenean, medikuak edo homeopatak gomendatuta".

KONGRESUA Esan bezala, yoga kongresua Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango da. Ingrunean dauzen zerbitzuengatik eta paisaia



IKASTAROA Joan zen eguztenean, Bergarako San Joxepe erretiratuen elkartean izandako yog

ederragatik aukeratu dute antolatzaileek Arantzazu. Bosgarren aldia da horrelako kongresua egiten dela. Aurrekoak Mallorcan, Jacan (Huesca), Benalmadenan (Malaga) eta Lleidan izan ziren.

Baina, Arantzazu aukeratzeko beste arrazoi bat dago: "Kongresuaren leloa da *Bakea dena*

da, eta Arantzazu bake horren isla da. Oso egokia da. Bost mendie daramatzate frantziskotarrek lan espiritualak egiten, eta Baketik zentroa ere hor dago". Kongresuko partaideetako bat da Baketik erakundea. Guztira, hamalau eragile bilduko direla dio: hamabi yoga eskola; Baketik; eta, frantziskotarren izenelan, Joxean Arregi.

Topaketa horren helburuak gaur egun praktikatzen diren yoga moten gaineko informazioa eskaintzea eta, era berean, ildio ezberdinaketa yoga eskolak batzea eta elkar ezagutzea direla azpimarratu du Mandiolak: "Nolabait ere, ospakizun bat da", azaldu du.

Azken horren harira, egitarauak aisiaidirako ekimenak ere aurreikusten dituela jakinarazi du. Hala, besteak beste, arkutiroan aritu eta musika kontzertuetaz gozatuko dute partaideek. Guztira, zortzi mahai-inguru, hamasei tailer eta bi meditazio saio daude aurreikusita. "Kongresua praktikoa izango da. Teoriaz beteta dugu dagoeneko burua".

Horrez gain, aurtengo yoga kongresua Euskal Herrian dela eta, Euskal Herriko talde baten partaideztaez ezinbesteko dela uste dute antolatzaileek. "Horrek bakea bultzatzen badu, hobeto", dio Mandiolak.

TARIFAK

Mandiolak azaldu duenez, edozein bertaratu daiteke kongresura. "Irekia da, baita yoga sekula praktikatu ez dutenendako ere. Aukera polita izan daiteke mun-



MIRIAN BITERI

du hori ezagutzeko", aipatu du. Kongresuan izateko arazorik ez dagoela, baina Arantzazu inguruau lo egitea zaila dela adierazi du; dagoeneko dena hartuta dago.

Hainbat egunetan parte hartzeko aukera dagoela azaldu du antolatzaileak. Kongresu osoan

egoteak 150 euro balio du; bi egunetan izateagatik 130; eta egun bakarragatik 110 euro. Spainiarako Satsanga Yoga Federazioko kideek tarifa ezberdinak dituzte.

Interesa duenak 635 40 54 10 telefono zenbakira deitu behar du. Hala ere, zuzenean Gaudiaga

Topagunera joatea ere badagoela dio Mandiolak. Inaugurazio ekitaldia eta gaueko kontzertua doakoak dira; gainerako ekimentan egoteagatik, esandako tariak ordaindu beharra dago. Yoga gustuko duenak ezohiko hitzordua du aste bukaeran.

Aste bukaerako egitaraua

25, egubakoitza

- 11:00. Irrekiera ekitaldia. Praktiken eta partaideen aurkezpena egingo dute.
12:00. Hasierako hitzaldia Baketikoko Jonan Fernandezekin.
13:00. Zen arku-tiroa.
14:00. Bazkaria.
16:45. Bi mahai-inguru aukeran: *Tibeteko yoga*, Concha Pinosen eskutik; edo *Bakeagatik yogarantz* hitzaldia, Alfredo Iglesias eta Javier Azpirik eskainita.
16:45. Hatha yoga iraunkorra.
18:15. Bi ekimen aukeran: *Erdiztearen aurrean yoga prestaketa ikus-entzunezkoa*; edo *Yoga Nidra: Barne-bakerako sarrera*, Neelam Olallarekin.
20:30. Afaria.
22:00. Mantas-Kirtanen kontzertua
22:00. Mentes Brillantes filmaren emanaldia.

26, zapatua

- 07:30. Mobilizazioa eta meditazioa.
09:00. Gosaria.
10:00. Bi ekimen aukeran: *Bake misioa: S. Sivanada eta S. Vishnu Devanada* pentsaera, Gopalaren eskutik; edo *Kiudoko jardueraren hastapenak*, Sep Overlaet-ekin.
10:00. Hatha yoga iraunkorra.
11:30. Bi tailer aukeran: *Isiltasuna eta amodia, bakerako bideak*, Pilar Iñigorekin; eta *Bakea, Asanan faro bat*, Pedro Lopezekin.

14:00. Bazkaria.

- 16:45. Bi mahai-inguru aukeran: *Yoga Esenio*, Xabier Satrustegirekin; eta *Vipassana meditazioa: presentzia azkarra*, Alejandro Torrealbarekin.
16:45. Hatha yoga iraunkorra.
18:15. Bi tailer aukeran: *Anuloma Viloma eta Kapalabhati: Egunerokotasunerako tresnak*, Gopalaren eskutik; eta *Bost elementuen Tantra*, Kai Waltersekin.
18:30. Hatha yoga iraunkorra.
20:30. Afaria.
22:00. *Hitz Sakratuak* izeneko kontzertua egongo da, Luis Paniaguaren eskutik.
22:00. *El Guerrero Pacífico* filmaren emanaldia.

27, domeka

- 07:30. Mobilizazioa eta meditazioa.
09:00. Gosaria.
10:00. Bi hitzaldi aukeran: *Isiltasunaren esperientzia: bakearekin experimentatu*, Marta Matarinekin; *Gatazka eta bakea Euskal Herrian*, Arantzazuko Joxe Arregirekin.
10:00. Hatha yoga iraunkorra.
11:30. Bi tailer aukeran: *Tibeteko yoga edo yoga esenioa praktiketan jartzea*.
11:30. Hatha yoga iraunkorra.
13:15. Itxiera ekitaldia.
15:00. Bazkaria.

Jose Luis Armendia > Yoga irakaslea

"Bakearen izanean, yoga komertzializatzen ari dira"

M.B. > ARRASATE

Jose Luis Armendia ezaguna da Debagoienean. Urte asko daramatza ibarreko herriean yoga ikastaroak ematen. Arantzazuko Gaudiaga Topagunean egin behar den kongresura ez dela joan behar azaldu digu. Ez dago ados antolatzaileen jarrerarekin.

Zergatik zara yoga kongresura joan behar?

Hiru arrazoi nagusi ditut Arantzazuko kongresura ez joateko. Alde batetik, esan behar dut ez nautela gonditatu. 30 urte daramatzat bailaran eta inguruko herriean yoga eta yogarekin lotuta dauden beste ekintzak zabaltzen. Ondorioz, antolatzaileek jakin behar dute ibarrean mugimendua dagoela.

Horrez gain, bakea lortzeko aldez aurretik justizia egon behar dela irudizten zait. Ezin daiteke batzuen indarkeria bakarrik salatu, eta beste batzuen kasuan alde batera begiratu. Kongresu horren hiru bat antolatzaile ezagutze dut. Bakea lortzeko ikuspuntua inpartziala izan behar da derrigorrez.

Zein da hirugarren arrazoia?

Arantzazuko ekintzetan, bakearen izanean, yoga komertzializatzen ari direla uste dut. Parte harts ahal izateko jarri dituzten prezioak ikusi baino ez dago. Horrelako kongresu bat inolako protagonismo eta komertzializazio gabe egin behar da.

Zenbat urte daramatzazu zuk yoga egiten?

Aurten bete behar ditut 30 urte yoga praktikatzen hasi nintzela. Beti izan naiz nahiko pertsona ahula; gainera, arnas eta hezur arazoak izateko joera dut. Niretako yoga aurkikuntza

izan zen. Lehenengo egunean esperientzia polita izan nuen: sekulako katarroa nuen eta joan egin zitzaidan.

Zer eman dizu yogak beste diziplina batek eman ez dizuna?

Yoga esan daiteke filosofia bat bezala dela: bizitzako filosofia. Hainbat ikuspuntu ditu. Hasteko, norbera izaten erakusten du. Kontuan hartu behar da ez dela kirol bat. Kiroltan lehiakortasuna dago, eta yogan, ez. Azken horrek lotura dauka autoestimuarekin. Norbera izaten onartuta, izate hori landu behar da.

Arrasate Yoga Elkarteo sortzailea zara. Ibilbide luzea du elkartea. Oraindik horretan jarraitzen duzu?


Urte asko daramatzza, bai: 1980an sortu zen; beraz, orain dela 28 urte. Eta bai, horretan jarraitzen dut, irakasle moduan. Hasieratik izan naiz irakaslea. Lehenengo hasi nintzen nire irakasleen laguntza bezala; gero, horiek joan ziren eta Arrasate Yoga Elkartea sortu nuen.

Zenbat baxkide ditu elkartea?

Finkoak, 80 bat. Gero, badaude beste batzuk, hasieran ikastaroetara etortzen direnak baina horiek amaitzen ez dituztenak. Horrez gain, erretratuek ere klaseak jasotzen dituzte. Hala, guztira, ehun lagun inguru ditu elkartea.

Debagoienean zale asko ditu gaur egun yogak?

Bai. Arrasaten ez ezik, Bergarako erretratuei ere klasea ematen diet; baita Antzuolan ere. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Aramaion ere yoga klaseak ematen ditugu. Oñatin ere beste batzuk daude yoga ikastaroak eskaintzen.



MIRIAN BITERI

LANA > APIRILAK 28

Lan baldintzak hobetzea eskatzeko mobilizazioak deitu dituzte sindikatuek

"12 urtean lan istripu larri bat egon da 12 orduro eta 2 egunero langile bat hil da"

Lan istripuetan zauritu eta bizia galdu dutenak gogoratuko dituzte egun hauetan

NEREA MENOR > BERGARA
Datorren astehenean, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko eguna da. 1995. urteaz geroztik ospatzentzat da lan istripuetan zauritu edo bizia galdu dutenak gogorarazteko. Lan baldintza eta neurri eskasak salatzen dituzte sindikatu guztiak. Elkarretaratzeak ospatzentzat dira eta, aurten ere, hainbat ekintza antolatu dituzte.

Prentsurreko egin zuen LABek joan den martitzenean. Lan istripuen kopuruak eman zituzten, eta aitoritzan izan ez direnak salatu: "12 urtean, lan istripu arin bat gertatu da 8 minutu, lan istripu larri bat hamabi orduro eta bi egunero langile bat hil da lan istripu baten ondorioz". Mobilizatzeko dei egin da, gaur Araban eta datorren astehenean gainerako lurraldeetan. Ordu bateko lanuztea deitu du laneko sektore guztieta, 12:00etan 13:00ak bitartean. "Mobiliza-



PRENTSAURREKO LAB sindikatua, joan den martitzenean Arrasaten egin zuen prentsurrekoan.

GOIENKARIA

zio soziala da bide bakarra lan istripu eta gaixotasunekin behingoz amaitzeko", dio LABek.

ESK eta STEE-EILAS sindikatuen prentsurrekoia ere martitzenean izan zen. Urtea hasi zenetik gaixotasun profesionalen gaineko kanpaina bat egiten dabilta, eta joan den eguztenean horren gaineko hitzaldia egin zen. Jakinarazi digitenez, Lane-

ko Segurtasun eta Osasunaren Europako Agentziaren arabera, "140.000 pertsona hiltzen dira lanean hartutako gaixotasunen ondorioz".

GAINERAKO SINDIKATUAK
Bailarako gainerako sindikatuek antzerako ekintzak antolatu dituzte egun horretarako. ELA sindikatuen ordezkarri nagu-

siak Bilbon manifestatuko dira gaur, eta 28an, Iruñean. CCOO-ren elkarretaratzea gaur izango da Donostian; Lan Ordezkaritza egoitzara joango dira. UGTk astehenean Bilbon egingo duen konzentrazioaz gain, lan ezbiharraren koordinatzialearekin batuko dira eta Lan Arriskuen Prebentzia delako lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

EPAITEGIAK > EBAZPENA

Epaiketa galdua, Oñatiako Udaleko PPko zinegotziak isuna ordaindu beharko du

Gainera, euro bana ordaindu beharko die Marijo Altuberi, Lierni Axperi eta Karmelo Arregi

Salatzaileek ebaudenaren balorazio positiboa egin zuten, eta ez dute helegiterik aurkeztuko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Oñatioko Alderdi Popularreko zinegotzi Julio Perez de Arriluzeak 240 euroko zigor penala eta EAEko Marijo Altuberi, Lierni Axperi eta Karmelo Arregi euro bana ordaindu beharko die. Horixe da PPko zinegotziak EAEko hautetsien kontra egindako irainengatik ipinitako salaketaren aurrean epaiak ebatzitakoa.

Salatzaileek ebaudenaren balorazio positiboa egin zuten apirilaren 22an egindako agerraldian, eta helegiterik ez dute la aurkeztuko esan zuten.

"OINARRI JURIDIKOA ZUEN"

Marijo Altuberi, Lierni Axperi eta Karmelo Arregiren abokatu Unai Iturriozek adierazi zuen epaiak argi utzi duela salaketak "oinarri juridikoa" zuela, eta PPko zinegotzi Perez de Arriluzeak "ez zuela legearen arabera" jokatu.

2007ko urtarrilaren 23ko osoko bilkuraren, "hiltzaile" deitu zituen lehenengo PPko zinegotzi Perez de Arriluzeak EAEko hautetsiak. Ondoren, urriaren 3an, gauza bera deitu zien prentsurreko batean.



AGERRALDIA Argazkian, Marijo Altube eta Unai Iturrioz.

MIREN ARREGI

POLITIKA

Zaintza areagotuko dute PSEren egoitzetan

Elgoibarko azkeneko atentatuaren ondoren hartutako erabakia da

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
ETAk Elgoibarko PSE-EERen egoitzaren kontra egindako azken atentatuaren ostean, Javier Balzak, Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuak, adierazi du Espainiako Estatuko segurtasun indarrek sozialisten egoitzetan zaintza areagotuko dutela.

Horrela erantzun dio Javier Balzak joan den domekan ETAk Elgoibarren egindako atentatuari. Izan ere, 70 orduren barruan, sozialisten bi egoitzaren kontrako atentatuak egin ditu ETAk: egunean, Bilboko Abusu auzoan, eta domekan, Elgoibarren.

IBARREKO EGOITZAK
Debagoienean, hiru egoitza sozialista daude: Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako.

Balzak ezarriko dituen segurtasun neurri berrien helburua egoitzen aurkako erasoak sailesteak izango da. Izan ere, argi geratu da orain arte Lakuak izan duen zaintza ez dela nahikoa izan segurtasuna bermatzeko.

EPAITEGIAK

Epaiketa hasi dela eta, protestak daude gaur

NEREA MENOR > BERGARA
Amnistiaaren Aldeko Mugimenduko 27 kideren epaietan hasia da Madrilgo auzitegi berezian. Hau salatzeko mobilizazioak egongo dira gaur: 19:30ean Bergaran, Arrasaten eta Aramaion, plazan; Aretxabaletan, 19:00etan izango da, Durana kalean, eta Oñatin, 20:00etan, Herriko plazan. Ikastetxeetan, universitateetan eta 10 kooperatibatan ere mobilizatuko dira.

ETXERAT

Etxerateko kideek epaietaren irakurketa egin dute eta gizartea kalera irtetera deitzen dute: "Kalera irteteko deia luzatzen diogu, zigorgabetasunaren aurka aski dela oihukatzera".

GARRAIOA > AUTOBUS ZERBITZUA

Bidaiaien beharretara egokitutako autobus zerbitzua lantzen dabiltza

Bidaiaiek telefono bidez egindako eskariak kudeatuko lituzke sistema informatikoak

Sistema garatzeko laguntza behar dute ikasleek; hala bada, urtebetean prototipoa izatea posible litzateke

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE Herri txikietan eta landa eremuetan autobus zerbitzua ezartzeko sistema informatikoa lantzen dabil Mondragon Unibertsitateko ikasle talde bat. Sistema berri horren bitartez, autobusak ibilbidea momentuan momentuko beharrizanen arabera definituko luke. Bidaiaiek telefono bidez egindako eskariak kontuan hartuz, gidariaiak geltoki batera edo bestera joateko erabakia hartuko luke. Autobus zerbitzua pertsonentzako eta merkantziendako pentsatuta dago. Garraio sistema gestionatzeko oinarrizko elementuak Internet eta posizio-namendu sarea (GPS) lirateke.

SISTEMA BERRIAREN ONURAK Mondragon Unibertsitateko ikasleek asmatutako sistema horren onurak ondorengoak dira: garraio publikoa erabiltzea ahalbidetzen du; gaur egun dauden garraio sareen optimizazioa, era-biltzaile gehiago, baina, ere berean, auto gutxiago ahalbidetuz; eta, auto-pilaketa eta kutsadura ere murritzeara.



TALDEKIDEAK Reguera, Barrena, Martinez, Arana (irakaslea) eta Ugarte. Etxeita eta Kintana falta dira argazkian. ARANTZAZU EZKIBEL

Taldea osatzen dute Julen Barrena, Daniel Reguera, Xabier Etxeita, Hibai Martinez, Ibon Ugarte eta Gorka Kintanak, Ingenieritzako Informatikoko 5. mailako ikasleak. Unibertsitateko praktika bezala hasi ziren proiektuarekin. Gaia aukeratzeko orduan, taldekideen bizenpenak izan zituzten kontuan. Honela azaldu du Julen Barrenak: "Proiektu akademikoa egiteko, hainbat gai izan genituen buruan. Konturatu ginen autobus asko hutsik joaten zirela; bestalde,

Aralar interesatura dago proiektuan

Eguazten goizean batu zen Rebeka Ubera, Aralarko Batzar Nagusietako eleduna, MUko ikasle taldearekin, proiektuaren berri bertatik bertara jasotzeko. Aralarrek Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mugikortasun eta Lurralte Antolaketako batzordearen aurrean aurkeztu gura du proiektua datozen egunetan.

nekazal gunetan, autobus zerbitzu finkoaren gabezia ikusten genuen. Hortaz, hori optimizatze aldera hasi ginen proiektuarekin". Linea finkoa jarri barik, errentagarria izan eta, era berean, erabiltzaileen garraio esku-bidea bermatuko lukeen sistema asmatzen hasi ziren.

"Erabiltzaileen eskakizunaren arabera, autobusaren ibilbidea aldatzea ahalbidetzen du sistema honek", azaldu du Barrenak. "Eskariak bideragarriak diren edo ez erabaki ondoren, bide

jakin batetik joango litzateke autobusa eskari guztiak jaso eta kudeatzeko", gaineratu du.

Gehienbat, nekazal eremuetara zuzenduta dago sistema, baina edozein eremutan garatu daiteke. "Erabiltzaileak SMS, Internet edo ohiko telefono dei bidez autobusa ze ordutan eta non gura duen eskatuko du. Sistema horrek mezua jaso eta ea autobusa eskakizuna betetzeko gai den jakingo du", azaldu du Barrenak. "Hala bada, baiezkoa erantzun-ga zaio erabiltzaileari, eta autobusak bide hori hartuko luke. Ezezkoa bada, beste aukera bat eskainiko zaio erabiltzaileari", gaineratu du.

Hala, erabiltzaileak bere oniritzia ematean, autobusak bide jakin hori hartuko luke.

GARATZEA FALTA DA

Sistemaren nondik norakoa egin du MUko ikasle taldeak baina oraindik sistema bera garatzea falta da. "Adibidez, deiak gestio-natuko dituen zerbitzaria garatzea da falta dena", diote ikaslek. Horretarako laguntza beharra dute; hau da, proiektua garatu ahal izateko laguntza gura dute. Euren ustez, laguntza hori jasoz gero, urtebetean sistemaren prototipoa edukitzea posible izango litzateke.

Unibertsitateko praktika Iñaki Lakarra irakaslearekin egin zuten. Orain, behin proiektua bukatuta, Nestor Arana irakaslearen laguntza dute proiektua gorpuztu eta egi bihurtzeko. "Uni-bertsitatearen ardura metodolo-gia aktiboa sustatzea da. Ikaslek arazoak aztertu eta irtenbideak aurkitu behar dituzte. Hala, eurek ikusitako arazoari irten-bidea eman diote sistema honekin", dio Aranak.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

ELKARTASUNA > SAHARA

Saharako haur talde bat ibarrera etorriko da, udalekuetara

Oporrak Bakean programaren barruan, Nubi eta Iesbaa elkarteeek antolatu dute

Hamabi haurrek osatzen duten talde saharar bat etorriko da uztail eta abuztukoa

JASONE ZABALA > BERGARA
Arrasateko (Nubi) eta Aretxabala (Iesbaa) Sahararen Lagunen Elkarteeek Oporrak Bakean programaren barruan duten proiektu bat eramango dute aurrera. Hain zuzen, haur sahararrak udaleku moduan etorriko dira gurera; taldean etorriko dira, eta taldean pasako dute uztaila eta abuztua.

HELBURUAK
Bi elkarteen helburua "urtetik urteria Saharako errefuxiatuen kanpamentuetatik ahalik eta haur saharar gehien ateratzea da", adierazi digu Nubi elkarteko Agurne Juldaineak. Urteak daramatzate udako garaian haurrak ekartzen, eta "urtetik urteria familia kopurua gutxira egiten duela ikusita, beste bide batetik ekartztea pentsatu dugu", gehitu digu Juldaineak. Taldea 7 eta 8 urte bitarteko 12 haurrek osatzen dute, eta begirale saharar eta euskaldunekin pasako dute uztaila eta abuztua, gure herriak, ohi-turak, kultura... ezagutzen; "modu



UDALEKUAK Haur sahararrak uztail eta abuztukoa etorriko dira.

GOIENKARIA

honetan, beste mundu bat posible dela jakingo dute", Juldainen araberak.

HARREMANETAN JARTZEKO
Guzti horretarako, eta haurrak guregana etor daitezten posible izateko, bi elkarteekin harrema-

netan jartzeko, ondorengo zenbakik eta helbidetara zuzendu daiteke nahi duenak: Nubi elkartea, 685 72 48 16 / 17 / 18 (sahara_arrasate@hotmail.com); Iesbaa elkartearkin harremanetan jartzeko, berriz, 626 63 9 16 edo iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com.

EUSKARA > AGIRIAK

Euskararen gaitasun agiriak Europakoekin baliokidetu ditu Eusko Jaurlaritzak

Hizkuntzen Europako Marko Bateratuan erabakitako B-1, B-2, C-1 eta C-2 ziurtagiriek parekatu ditu orain agiriak

Onuradunak noizbait euskara tituluren bat atera dutenak eta eskuratzeko ikasten ari direnak izango dira

J.Z. > BERGARA

Euskararen gaitasun egiaztagiri guztiak elkarrekin baliokidetu ditu Eusko Jaurlaritzak. Dekretua apirilaren 16an onartu zen. Parekatzea egiteko oinarri gisa, Europako Erreferentzia Marko Bateratua erabili dute.

Orain arte hainbat ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoako administracioetan euskararen ezagutza baliotzatzeko erabiltzen ziren titulu eta ziurtagiriek, kasu askotan administrazioaren atal bakoi-zkak ezartzen baitzuen berea.

PROZESU ZORROTZA

Hizkuntzen Europako Marko Bateratuan erabakitako B-1, B-2, C-1 eta C-2 ziurtagiriek parekatu ditu orain horiek guztiak Jaurlaritzak, onartutako dekretu baten bidez (ikusi ondoko taula).

BALIOKIDETZAK

> EUROPAKO B-1 MAILAREKIN:
HAEKO lehen hizkuntza eskakizuna (HE); HABEKO lehen maila eta Osakidetza, Ertzaintza eta Hezkuntza Saileko lehen HE.

> EUROPAKO B-2 MAILAREKIN:
HAEKO 2. HE; HABEKO 2. maila; Osakidetza eta Ertzaintzako 2. HE eta Hezkuntzako lehen HE.

> EUROPAKO C-1 MAILAREKIN:
HAEKO hirugarren HE; HABEKO 3. maila; Osakidetza eta Ertzaintzako 3. HE; Hezkuntzako bigarrena eta EGA titulua.

> EUROPAKO C-2 MAILAREKIN:
HAEKO 4. HE; HABEKO 4. maila eta Osakidetza, Ertzaintza eta Hezkuntza Saileko 4. HE.

Patxi Bartzirrikak, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, azaldu duenez, "azterketa eta berrikuspen prozesu zorrotzaren emaitza da baliokidetza sistema hori, eta herritar asko izango dira onuradun. Besteak beste, lan eskaintza publikoetan euskararen gaitasuna behin eta berriz egiaztatu beharra sailhestuko dute", eta gaineratu zuen: "Dekretu honen onerako eragina igarriko duten lehenak, beraz, euskara ikasten ari diren eta euskara egiaztatu nahi edo behar duten herritar horiek dira. Baina ez horiek bakarrik: atzeraeragina izango du dekretuak. Beraz, aurreko urteetan euskara agiriren bat eskurauta duten milaka eta milaka herritar horiek ere probetxu askoz zabala goa atera ahal izango dio-te lortua duten tituluari".

Dekretuak onura nabarmena nori ekarriko dien agerian utzi du sailburuordeak: "Noizbait euskara tituluren bat atera duten herritarrei –orain arte, guztira, 140.448– eta euskara tituluren bat eskuratzeko ikasten ari direne". Tituluek betiko balioa izango dutela esan du.

> HEZKUNTZA

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza-Astea Debagoienean

Apirilaren 21etik 27ra, hezkuntza kalitatea eta hezkuntzan bazterketa gainditzea eskatzeko, Arrasateko Ferialeku, San Viator, Instituta, Mesedeetako Ama eta Santa Teresa ikastetxeetako ikasleak, Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Almenekoak, eta Antzuolako Herri Eskolakoak hezkuntzaren puzzle handiena osatzeko ekimenean parte hartzen ari dira.

Jarri zure pieza, guztiak dira beharrezkoak!, lelopean, kanpainak hezkuntza giza eskubide gisa bultzatzen du eta gobernu eta nazioarteari presio politikoa egiten die, mundu osoan oinarrizko hezkuntza doakoa, nahitaezkoa eta publikoa izan dadin.

> BAKETIK

II. Afrikako Astearen aurkezpena egin dute Donostian

Baketikek ekainaren 9tik 15era Arantzazun egingo den II. Afrikako Astearen aurkezpena egin zuen martitzenean. Antolatzaleek Arantzazun egingo den ekimen baten berri eman zuten: euskal gizarte zibilek Afrikan giza duintasunaren aldeko proposamen lehiaketa bat, herritar, GKE, erakunde guztiei eta gure inguruaren bizi diren afrikar elkartek guztiei zabalik.

Baketikekin jarraituz, diputazioak hiru programa atera ditu: Parte hartza landuz, Kudeatuz 2007-2011 eta Ikasi parte hartzen, eta Diputazioa eta Baketik en arteko hitzarmenek sortu da azken hau. Programa hauen helburua gizarteak politika publicoetan parte hartzea da.

> ERREPIDEAK

Olaran ibaiaren aldameneko eustorma konponduko dute

Oñatioko udalerrian, Lamiategi eta Urrexola auzoetara doan errepidean, behera etorri berri den eustorma konpontzeko lanei ekingo die Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Diputatuen Kontseiluak ontzat eman du eustorma hori konpontzeko proiektua. Pre-sako prozedura administratiboaren bidez bideratu da, ingurua lehenbailean normaltasunera itzul dadin. Olaran ibaitik bereizten duen eustorma 22 metroko tarte batean behera etorri da, eta itxi egin da ezkerreko lerroa. Egoera hori konpontzeko, bada, lehen zegoenaren neurriko eustorma berregingo da. 130.000 euroko aurrekontua izango dute lanok.

GERTAKIZUNAK > BAHIKETA SOMALIAN

Joxe Mari Arana: "Bahitutakoak ez daude lehorrean; hori gezurra da"

'Playa de Bakio'-ko tripulatzailaileak aske usteko negozazioak hasi dituzte

Somaliako itsaslapurrek, ustez, milioi bat euroko erreskatea eskatu dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
"Egunotan egunkarietan gezur asko irakurri ditut. Azkena, bahitutakoak lehorrean daudela dioena. *Playa de Bakio* atunketario (atunero) 26 tripulatzailaileak ontzian jarraitzen dute", azaldu digu bahituta dagoen Mikel Arana arrasatearraren aitak. Martitzenetik ez dute bera-rekin berba egin. "Indartsua da, eta onik aterako da. Gainera, tra-tu ona ematen dietela esan zigun".

MILIOI BAT EURO

Playa de Bakio izeneko atunketario tripulatzailaileak askatzeko negozazioek aurrera jarraitzen dute. Espaniako Gobernuko ordezkariaren, atunketariaren jabe Pevesa enpresaren ordezkarien eta itsaslapurren ordezkariaren arteko hartu-emana hasi da. Une honetan itsasontzia Gaan-eko itsasportuan dago. Efe agentziak emandako informazioaren arabera, itsasoz bakarrik joan daitekeen herri horretan egingo dituzte negozazioak.

Bestalde, Mogasdision dago, Somaliako hiriburuan, Espaniak Kenyan duen enbaxadore Nicolas Martin Cinto. Horren harira, bertako agintari eta lehen ministroarekin hartu-emanetan jarri da marinela askatzeko prozesua arintzeko. Gainera, *Mendez Nuñez* Espaniako Armadako fragata Somaliako uretan dagoen atunkeitaritik oso gertu ei dago.

Bermeoko ontzia bahitu zuten piratek, ustez, milioi bat euro eskatu dute tripulatzailaileak askatzeko. "Hasieratik garbi utzi zuten



MENDIAN Lagunekin, Josu Arana (hirugarrena, ezkerretik), Joxe Mari Arana (laugarrena), eta Mikel Arana (makurtuta). J.M. ARANA

beraien asmoa dirua eskatzea zela. Baino nik ez dakit hori izan den eskatutako kopurua", esan digu Joxe Mari Aranak. Atzo goizean egin zuten berba familiakoek Eusko Jaurlaritzako eta

ontziaren jabea den Pevesa enpresako ordezkariekin, eta negozazioak hasi direla esan zieten. "Ez dakigu zein puntutan dauden, baina hasi direla ematen du. Ez dakiguna da noiz bukatuko diren.

Bitartean, nik nahiago dut ahal den gutxien jakitea", esan digu, "dena den, esan digute ez dutela indarkeria erabiliko bahitua askatzeko, eta horrek, behintzat, asko lasaitzen gaitu".



Joxe Mari Aranak martitzenean egin zuen berba Mikelekin. TXOMIN MADINA



Mikel Aranak lau hilabeteko praktikak egin ditu *Playa de Bakio* ontzian. J.M. ARANA

Mikel 'Playa de Bakio' atunketarian, eta Josu, anaia bikia, 'Elai Alai'-n

Arrasatearrak dira biak, baina lanbidez marinela dira. Familiak Ajon (Kantabria) duen etxearen ordu asko pasa ondoren erabaki zuten karrera hori egitea. Bahketaren momentuan, Mikel *Playa de Bakio* atunketarian praktikak egiten zegoen makinaren arduradun modura. Horren harira, martitzenean bukatzen zituen lau hilabeteko praktikak. Bahiketa baino hamabost egun lehengo bi anaiek elkar topo egin zuten, eta berba egiteko aukera izan zuten. Josu *Elai Alai* atunketariko lehen ofiziala da.

Iaz, piraten 263 erasoaldi egon ziren, gehienak, merkantzia-ontzietan

Piraten istorioak ez dira aspaldiko kontuak. Iaz, 263 erasoaldi egon ziren, eta 2006an, 239. Bahitzaileek erasoak, gehienbat, munduko lau zonaldetan ematen dira: Karibe aldean eta Hego Ameriketako Pazifikoan, Gineako Golkoan, *Cuerno de Africa* bezala ezagutzen den zonaldea, besteak beste, Itsaso Gorrian, Mogasdision eta Monbasan; eta, Asiako hego-ekialdean. Gehienetan, merkantzia-ontziak bahitzen dituzte, baina, oporretan dauden itsasontzietan ere erasoaldiak egiten dituzte.

Euskal Herria, Galizia eta Afrikakoak dira bahitutako tripulatzailaileak

Bermeko *Playa de Bakio* atunketario 26 langileetako bost Euskal Herrikoak dira, zortzi Galiziakoak, eta, gainerako 15ak Afrikakoak, hain zuen, Ghana, Madagascar, Senegal eta Seychelleskoak. Mikel Arana arrasatearrarekin batera, Pasaiako Jaime Francisco Candamil; Gernikako Gotzon Clemos; eta Lekeitioko Juan Sesma eta Iñaki Lopez bahitzen dituzte. Bestalde, Ignacio Abal, Jesus Albar, Amadeo Alvarez, Jose Manuel Baz, Angel Fernandez, Jesus Pillado, Antonio Rodriguez eta Candido Senra dira galiziarrak.

gure artekoak

AUDI A4 > Audi etxeak A4 berria merkaturatu zuen orain dela hilabete gutxi. Lehenengo modeloa baino zerbait luzeagoa da oraingoa. Audi guztietan bezala, segurtasunak berebiziko garrantzia du A4 modeloan.

Inma Gomez > Aseginolaza kontzesionarioko saltzailea

"Ehun urte baino gehiagoko esperientzia dugu autoetan"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Duda barik, segurtasuna da Audi autoen ezaugarri garrantzitsuena. Segurtasun sistema guztiek dituzte Audi autoek, eta baita A4 modelo berriak ere. 100 urte baino gehiagoko esperientzia du Audi etxeak autoen alorrean; horregatik, A4 berria merkatuko erreferentzia bihurtu da. Gainera, beste auto markentzat eredu bilakatu da.

OINARRIZKO SEGURTASUNA

"Audi autoetan segurtasuna bermatua dago. Edozein kolpe jasota ere, autoaren goiko eta beheko alderak banatzetan da indarra; horrela, autoaren barnealdeak ez du kolpea igartzen", azaldutu du Inma Gomezek.

Gaur egun merkatuan dauden sistema guztiek ditu autoak. Oinarrizko prezioan sartzen dira, besteak beste, ABS sistema, geratze balazta elekromekanikoa, trakzio elektronikoko kontrola eta istripu kasuetan bonba erre-kuntza sistema itzaltzea.

BARNEALDE ZABALA

Audi A4 berriak barnealde zabala dauka; hor, bidaiaiek erosotasun guztiak dituzte. Horrez gain, autoaren barrualdea kaltitate handiko materialez egindako da.



Inma Gomez, Aseginolaza etxean, Audi A4 berriarekin. ARANTZAZU EZKIBEL

Audi A4 2.0 TDI 143 ZP

Prezioa	32.118 euro
Luzera	4,70 metro
Zabalera	1,82 metro
Maletategia	480 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	4,3 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	215 km/h ⁽³⁾
Zerotik 100era	9,4 seg.
CO2 isurketa	144 g/km

(1) Gehienezko edukiera.

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta.

(3) Gehienezko abiadura.

Altzairu berriak erabilita, autoaren karrozeriaren pisua txikitu egin da. Hortaz, autoak zurruntasuna eta aruntasuna uztartzen ditu modelo berrian.

Bost motor aukera eskaintzen du: TDI eta gasolinazkoa; guztiek, injektio zuzeneakoak.

Bang&Olufsen Danimarkako etxeak diseinatutako soinu sistema du Audi A4 berriak. Kaltitatezko soinua bermatzen du sistema honek, 505 watt-eko potentziarekin. Aukeran dagoen Multi Media Interface sistemaren bitarte, hainbat funtzio kontrolatu ahal dira: telefonia, irratia...

etxeko leihotik



Iban Arantzabal
iarantzabal@goiiena.com

GPSrik bai? Eta euskeraz egitten dau zuriak?

A stian Bartzelonan egon gara nahiz eta Bartzelona ikusi dogunik ezin esan. Bulegoren bat, hotela, telebista bi... ikasi dot oinguaren be, ze telebistagintzan merkatu oso bat dago Kataluña. Bai erakunde, herri, elkarre... danak dare sinistuta zelako garrantzitsua dan hedabidegintza hizkuntziaren dako.

Egun biko juan-etorrira izan da autuan eta gidari ona izan dogu: Tomtom. Hizkuntza asko dakixen GPSia da TomTom. Listua da oso, eta humanuon kontrara, konfunditu ezkerro badaki belarrixak bataku eta bidia berriz markatzen; radarren parian bizkortxo bazoiaz txillixuak etaratzet dittu; infomaziño asko emoten da. Edarra katxarrua!

Gure GPSiak ez zekixin euskeraz... Baiña egin dau euskaltekiko ikastarua TomTom-ek: GPSrako ahotsak grabatzet egon gara Iturria, Narbaitza, Amatiño eta laurok, lau blogari. GPSian nere ahotsa astuna izango da seguruen... Beste hiru ahots euskaldun be badaukazuz aukeran, hala eta be: ehun metro aurrera, hurrengo biribilgunean ezkerretara, segi zuzen-zuzen, eutsi ezkerrari...

> **Teleatlas** dauen
GPSietan, Arrasate-Gasteiz autobidibia
egindda agertzen da.
Humanuon moduan egin
dau kale erakundie
kasu egittiarren. Bertsi
ño barrikan autobiderik
ez, ondio.

> **Arrasateko** Udalian
ez dakit GPSrik biharko
dan. Han be berba
egindda konpondu
biharko dira eta ahalik
eta jende gehixenen
artian adostu biharko
dabe bidia, errebuelta
barik.

begi-bistan



**Plintadak egin dituzte
Osasun Zentroan (Oñati)
2008/04/23**

Argazkia: Mireia Bikuña.
Testua: Mireia Bikuña.

AHTaren aurka protesta egiteko hainbat pintada egin dituzte azken asteotan Oñatin. Besteak beste, sahiesbidetik ikus daiteke Osasun Zentroaren atzealdean egindakoa.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak
bidali honako helbidera:
goienkaria@goiiena.com

izen propioak



Jon Gonzalez
AKTOREA



Anari
KANTARIA



Aritz Aranburu
SURFLARIA

Bergaran jaiotako aktorearen parte-hartzearekin hasi zen eguztenean *El Internado* telesailaren hirugarren denboraldia.

Antena3 telebista pribatuak eguztenero ematen du, 22:15ean, barnetegi batean geratzen diren istorioak kontatzen dituen telesaila.

Azkotian jaiotako abeslariak MUko Huhezi fakultateak antolatutako Literatura Astean parte hartu du oraingo astean. Hain zuzen, *Kantuaren poHesia* izeneko hitzaldian. Besteak beste, kantuaren eta poesia-ren arteko hesia nola bizi duen azaldu zuen, musikaz lagunduta.

Monika Madinabeitia Eskoria-tzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakas-

lea da. Martxotik, 'Euskaldunak munduan zehar' hautazko ikas-gaia ematen du han; euskal

diasporaren gainean hausnarketa, autokritika eta eztabaidea sortzea bilatzen du horren bidez.

Madinabeitiaren arabera, euskalduna izateko "formula" edo modu bakarrik ez dago.

Monika Madinabeitia > Irakaslea

"Euskalduna izatea ez da toki fisiko edo pasaporte bati lotutako zerbaiz"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Ameriketako Estatu Batuetan tesia egin ostean, Debagoienera itzuli zen Monika Madinabeitia. Euskaldunaren kontakuan jartzeko aukera izan zuen han eta, hona bueltatzean, horren gaineke ikas-gaia ematea bururatu zitzaito. Zerezin horretan dabil martxotik.

Zelatan sartu zinen euskaldunaren diasporaren munduan?

2004an, AEBetan urte eta erdi egin nuen. Hara joateko arrazoia izan zen nire tesirako ikerketa egitea. Tesia Frank Bergon idazle euskal-amerikarraren eleberriren azterketaren gainezko zen. Mui-na ez zen diaspora bera: beste gai bat lantzen ari nintzen eta, idazleak euskal jatorria zuenez, diasporaren mundua ikertzea egoki-tu zitzaidan.

Han izan nintzenean, Idahoan egon nintzen, Moscow herritxoan. Baina klaseak Boisen eman nintuen. Hor dago euskaldunen kopuru handiena. Boisen ikusitakoak euskaldunaren gertutik ezagutzen bultzatu ninduen. Ordutik hona, asko interesatzen zaidan gaia da.

Martxotik, Euskaldunak munduan zehar hautazko ikasgaia ematen duzu Huhezin. Nolatzen bururatu zitzazun horrelako ikasgaia ematea?

Esperientzia pertsonalagatik. AEBetara joan nintzenean, diasporari buruz ez neukan ideia handirik, eta han nengoela konturatu nintzen ze gutxi dakigun horren gainean eta zein importantea den hori gure historian eta gaur egun. Hemen landu beharreko zerbaiz da. Huhezin irakasle moduan egonda, ideia ona iruditu zitzaidan, ikasleek diasporarekin kontaktua eduki zezaten.

Euskal Herrian lehena zara horrelako ikasgaia ematen. Ez da horrela?

Hala da. Huhezin lehenengo aldiz ematen da; eta Euskal Herrian ere, diasporaren gainean bakarrik, sekula ez da eman. Gai moduan, lehenengo aldia da. Hori niretako pozgarria da. Ez da gai ezaguna eta, beraz, klaseak datuez-eta bete baino nahiago dut ikus-puntu hezitaile batetik ematea.

Zer ikusi zenuen AEBetan, diaspora ez dugula ezagutzen esateko?

Hara joan aurretik, "diaspora" entzundako hitza zen, baina ez nekien zer zen. Han konturatu nin-



Monika Madinabeitia Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da.

GOIENKARIA

EZJAKINTASUNA

"Ameriketako Estatu Batuetan nengoela, konturatu nintzen ze gutxi dakigun euskaldunaren gainean"

NORTASUN KRISIA

"Helburua lortzen gabiltza: hausnarketa eta eztabaidea sortzea. Ikasleek euskaldunaren krisia dutela uste dut"

BIRTUALKI BIDAIATU

"Gu kanpora joan ezin garenez, birtualki bidaiatzentz dugu; mundua Eskoriatzara ekartzen saiatzen gara"

tzen, zenbaitetan, munduan euskaldunak daudela ez dugu erraz ulertzten. Kasu horretan, gure jatorria duen jendea da; euskaldunak dira. Euskalduna izateko modu asko dago. Nire ustez, ez dago euskalduna izateko formularik.

Batzuetan, oso forma zorrotzak erabiltzen ditugu, baztertzaleak direnak. Formula integratzaileak behar dira. Hara joan nintzenean, berta-ko euskaldunak amerikarrak ziren niretako ere: ez zekiten eus-

karaz, eta auto handiak eta diru asko zuten. Baina, apurka, uler-tu nuen euskalduna izatea ez dela geografiari edo pasaporte bati lotutako zerbaiz; sentimendua ere bada. Ardura bat daukagu horretan.

Zenbat ikasle dituzu hautazko ikasgai horretan?

Hamaika ikasle ditut. Guztiek irakasle izateko ikasten ari dira. Bigarren eta hirugarren mailako ikasleak dira, eta interesatuta daude ikasgaiarekin. Hasieran, uste dut ez zekitel oso ondo nondik nora joango zen ikasgai bera. Ikasgaiaren titulua, gainera, oso zabala da. Baina, ez nuen erabili gura "diaspora" hitza, askok ez dutelako ezagutzen. Era-kargarria izatea gura nuen. Harritu egin dira ikustean hemendik milaka kilometrotara euskaldunaren lotutako ekin-menak egiten direla.

Hasieran jarritako helburua lortzen gabiltza: hausnarketa, autokritika eta eztabaidea sortzea. Hasieratik hona, gehiago hausnartzen dute. Euskaldunen krisia pasatzen ari direla uste dut. Niri ere antzeko zerbaiz gertatzen zait.

Nolakoak dira klaseak?.

Astean bi ordu ditugu. Historia emateaz gain, esaterako, AEBetako diaspora aztertzen dugu web orrien bidez. Aipatu bezala hausnarketa egiten dugu: zer da euskalduna izatea eta zer irizpide dauden euskalduna izateko.

Gainera, maiatzaren 8an, ziurrenik bisitari bat edukiko dugu: Argentinako Maite Iturre euskalduna etorriko da fakultatera. Gu kanpora joan ezin garenez, birtualki bidaiatzentz dugu; mundua Eskoriatzara ekartzen saiatzen gara.

Azterketarik izango dute ikasleek?

Ez. Azken proiekturako pertsonaia historikoa aztertu edo euskaldunaren diasporarekin lotutako norbait elkarritzetatu beharko dute. Modu horretan, kontaktu pertsonala eta zuzena edukiko dute euskaldunaren diasporako euskaldunenkin. Diasporari aurpegiak eta izenak jarri beharko dizkiote. Denbora asko ez daukagu, klaseak ekanaren erdialdean amaitzen dira eta.

Datorren urtean ikasgaia berriro ematea gustatuko litzaizuke?

Aukera edukiko banu, oso gustura emango nuke berriro Euskaldunak munduan zehar hautazko ikasgaia. Oso talde polita daukat aurten. Interesa dute eta, kopuru aldetik ere, oso ondo dago.



zabalik

Mikel Lezamiz

Askatasunerantz

Paraguay ere ezkerrerantz ari da mugitzen Lugo obispoaren irabaziarekin eta ia Hegoamerika guztia aldatu da askatasuna eta garapena lortu nahian.

Brasilen Lula hasi zen gizartea aldatzen eta gosea eta analfabetismoa kentzeko asmoarekin. Ondoren, Venezuelako Chavez eta Boliviako Evo Morales ere bide berdinatik ari dira eta Estatu Batuetako jauntxo aberatsen atzaparretatik alde egiten saiatzen. Horrela gertatzen ari da beste herrialde gehienetan aldaketa politikoak sortuz eta ezkerrerantz eginez.

XXI. mende berri hau iraultzaren menda izango dela aurreikusten dut pertsona eta herritarren askatasuna eta garapena lortzeko. Mundua azken laurehun urteetan kapitalak gidatu du eta bere menpean eduki gaitu pertsonok eta herritarrok. Dirua eta kapitalaren botereak mugitu du mundua, baina mende honetan gauzak aldatzen doaz.

Hipoteken krisiak finantzen krisia ekarri du mundu mailan eta beste garai berri batean sartzen ari gara. Pertsonaren garaia da, ezaugtzaren garaia, eta beraz kapitalak indarra galdu du. Enpresa munduan ere gaur egun pertsonek dute ahalmena gauzak aldatzeko, ez bakarrik kapitalak, eta pertsona gero eta gehiago "pertsona" izanik erabaki estrategikoetan parte hartza nahiko du. Ordua da denok kontura gaitezen aldaketa datorrela: gizarte helduagoa bat dago, alfabetatua eta ondo formatua, eta ez dena hain erraza izango manipulatzen. Eta Hegoamerikar herritar zapalduen askatasuna eta iraultza sortzen ari da gobernu buruen aldaketak eta pobreen mugimendu isila abiaraziz.

Herritar xumeak beraien gobernu aldatzeko ahalmenaz kontratu dira eta boto eta kultura aldaketak ematen ari dira. Eta mugimendu hau geldiezina izango da hemendik aurrera. Hala izan dadila.

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madero, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zubala, Mireia Bikúñ, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezailegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartza, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiniano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarraz **Testu zuzenketak** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOIZTA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

OID erakundeak
ikuskaritako astekaria

LAGUNTAZIALEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiako
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

herritarra galdezka

LAUBIDEKO APARKALEKUA
IREKIKO DUTE BERRIZ?

Arrasaten aparkaleku eskasiaren arduraturatik, irakurle batek honako kezka azaldu digu: "Laubide plazako lur azpiko aparkalekuak zerbaitegiteko asmorik badago?"

Laubide plazako aparkalekuak, Biteriko aparkaleku berrieikin batera, Bikani eraikuntza enpresak kudeatzen ditu. Laubideko aparkalekuak errortaziozkoak dira. Biterikoak egin zirenean, Bikani enpresa eta Arrasateko Udala ados jarri ziren Laubideko aparkalekuak salgai jartzeko eta, gutxienez aparkalekuak erdiak saltzen baldin baziren, aparkalekuak zabalik geratuko zen. Bainaz ez da hala gertatu; horrenbestez, Bikaniko ardura-dunen esanetan, "oso eskaera gutxi izan dira eta, horregatik, segurtasun arrazoiak direla-eta, Laubideko aparkalekuak orain bezala geratuko da".

Bestalde, Laubiden aparkalekuak erosteko interesa agertu zuten herritarrekin ados jarri da Bikani enpresa, aparkalekuak Biterin izan dezaten.

EUSKARAZKO UDALEKUETAN
ZELAN EMAN IZENA?

Arrasatear batek umea udalekutarako apuntatu nahi du, eta honako galdeku digu: "Ze udaleku eskaintza dago Arrasaten eta ze egin behar dut izena emateko?"

Arrasaten, Txatxilipurdiren egoitzara, Pablo Uranga kalera, joan besterik ez dago, edo 943 79 54 46 telefono zenbakira deitzea. Egoitzara joaten diren ume eta gaztetxoek izenemate fitxa bat bete beharko dute, eta gutunazal eta seilu batekin eraman beharko dute bueltan elkartera.

Horretarako, Txatxilipurdiren egoitzara, Pablo Uranga kalera, joan besterik ez dago, edo 943 79 54 46 telefono zenbakira deitzea. Egoitzara joaten diren ume eta gaztetxoek izenemate fitxa bat bete beharko dute, eta gutunazal eta seilu batekin eraman beharko dute bueltan elkartera.

Horrez gain, begirale izateko gerta daudenek ere badute curriculuma bidaltzeko parada; hilaren 30ean bukatuko da epea. 18 urte beteta izan behar dituzte hautagaiak.

Debagoieneko gainerako herrietan ere egongo dira uztailean udaleku irekiak, baina, kasu gehienetan, Udalak darama horien ardura. Esan behar da ere, herri askotan oraindik ez dutela izena emateko epea zabaldu; hala gertatzen da, esaterako, Bergararen, Eskoriatzaren eta Aramaioaren kasuan, eta udal bakoitzak jakinaraziko du noiz eman daitekeen izena.

Aretxabaletan, esaterako, eguztenean, hilak 28, hasiko da Udalak izenemate orriak jasotzen, maiatzaren 13ra bitartean. Beste herrietan ere maiatzean egongo da matrikulatzeko parada.

marrakiz

Alex Ugalde



Estamentu zaharkitu bati

Palaxio
www.blogak.com/lubakietatik

Lotsagarria da elizaren jokabidea. Azken finean erlijioa, barne izpiritualtasuna, zoriontasuna bilatu beharrean negozio hutsal bilakatzen ari da, mugimendu sektario bat azken finean (...).

Apaizen janzkera patetikoa iruditzen zait, gaur egunean gizarteengatik hurbilago dagoen zerbaitegiteko asmorik badago?

ren bultzataile handienak dira. Zergatik ez dago emakumezko apaizik edo Ama Santurik? Kontuan harturik beraien audientzia 60 urtetik gorakoa dela (agian, gaztetxoak dira 60koak, han zeudenak ikusita), ezin dute ariketa fisiko konstante batean eduki. Orain zutik jarri, gero eseri, ondoren belaunikatu eta bitartean aspaldian olioztatu gabeko gihar zaharrak sufritzen (...).

Albokoari pakea eman eta gero, han pasatzen dute banan-banan poltsa madarikatua elizan zehar. Ez zitzaidan ondo iruditu eta banekien gertatuko zela. Ez da diru kopuruarengatik, printzipioengatik da.

Denek bota behar izaten dute, bestela gaizki begiratzen zaitutze. Zu lasai, elizaren goiko partean galduz bazaude ere, Kristoren gorputza bantzezko ez zaitutze bilatuko baina poltsan dirua botatzeko seguru baietz. Ez al dute ba apaizek pobrezia bota onartzen eta bakoitzaren aberastasuna barruan dagoela predikatzen? Ez da oso koherentea elizaren jokaera. Diru gutxi duten pentsionistei hori egitea ere, bere entzule fidelenei.

Elizkizunak goia Jaunaren azken afaria antzeztean jotzen duela esan genezake. Benetan patetikoa da han zeuden hiru

blog

plazara

Apirlaren 28an, Nazioarteko Lan Osasunaren Eguna da, eta ESK eta STEE-Eilas sindikatuek Gaixotasun Profesionalen gaineke Kanpaina

aurkeztu dute oraingo astean, eta 'Gaixotasun Profesionalak langileen zelatan' delako prentsaurreko egingo dute astelehenean.

Beheko artikulan, ESK sindikatuak gogorarazten du oraindik asko dagoela egiteko langileon segurtasuna bermatzeko.

Joxan Ortiz de Mendibil Landa *

Segurtasunez lan egiteko eskubidearen alde

Segurtasun eta osasunerako Europako Agentziak urtero Europan 140.000 pertsona lantokian hartutako gaixotasun baten ondorioz hiltzen direla uste du. EAE eta Nafarroan ez dira datu errealkak jakiten, eta ofizialki ematen direnak ez dira fidagarriak.

Espaniako Estatuan, Gizarte Segurantzak onartu du 2007an gaixotasun profesional baten ondorioz ezkontide edo gurasoen heriotzagatik 337 alargun pentsio eman direla, eta gaixotasun horiek zirela eta, 25.000 pertsona tratatu egin zirela. Hala ere, Osasun Ministerioak, iaz, arrazoi honengatik hil ziren kopurua 12.000ra iritsi daitekeela kontsideratzen du. Sindikatuok 16.115era igotzen dugu kopurua. Horrez gain, lan istripuetan gehiengo gizonak badira ere, gaixotasunen kasuetan, eragina han-diagoa da emakumeengan.

Gaixotasun profesionalen ezkutatzetik handia dago. Arazoa gaixotasun horien errekonozimendu zein jakinazpen ezan datza; suposatzen dituzten kostu ekonomikoak direla eta, ez enpresaburuak, ez mutuak, ez daude interesaturik; eta prebentzio zerbitzuek, arrisku ebaluaketak azaletik eta jarraipenik gabe eginez, ezkutatzetik horrekin kolaboratu egin dute. Errekonozimendu mediku simpleak besterik ez dira egin, eta lanean jasaten ditugun arriskuekin zein gure ezaugarri psikofisiokoek bat ez datorren benetako kontrola. Azkenik, azpimarratu behar da askotan gaixotasun hauek denbora luzea pasa ondoren agertzen direla. Gainera, gaixotasun arruntetik bereiztea zaila izaten da. Horregatik, Gizarte Segurantzako medikuen



MIKEL ARROIAKE

implikazioa ezinbestekoa da: non gaixotasun profesional baten aurrean daudenaren susmoa dute-nean, komunikatu beharko luke-te. Zoritzarrez, orain arte, oso interes gutxi adierazi dute.

Enpresak zein mutuak Errege Dekretuan agertzen diren gaixotasun profesionalak detektatzen eta tratatzen behartuta daude. Egiten ez badute, presionatu eta salatu behar ditugu. Ordezkarri sindikalok lantokian antzeko sintomak dituzten gaixotasun kasuak maiz errepikatzen direla topatzen dugunean, autoritateen aurrean salatu behar dugu; sufritzen ari garen gaixotasuna lanaren ondoriozko dela susmatzen dugunean eta mutuak

"Lan gaixotasunen inguruan, ezkutatzetik handia dago, suposatzen duten kostu ekonomikoa dela eta"

"Enpresak eta mutuak gaixotasunok tratatzera behartuta daude; hala egiten ez badute, salatu egin behar ditugu"

onartzen ez duenean, familia mediakuari esan behar diogu. Ez dute balio betiko odol edo gernuanen errebisioek. Benetako arrisku faktoreak detektatzen dituzten eta gure ezaugarri psikofisiokoak kontuan hartzen dituzten diagno-si frogak egin behar dira; arrisku ebaluazioak behar bezala egin ditzaten, enpresa zein prebentzio zerbitzuak presionatu behar ditugu; osasunari kalte egin diezaio-keten aspektu fisikoien identifika-zioa eta neurketa; ezin dugu onar-tu arrisku psikosozialak era sistematikoan kontuan hartu gabe jarrai dezatela. Lana osasun-tsua izateko lantokian tratu duin bat jasotzea ezinbestekoa da. Gihar-hezurretako gaixotasunek gure arreta berezia behar dute, pairatzen ditugun gaixotasunen %80 baitira. Nahiz eta asko lantokian sortzen zaizkigun, ez dira gaixotasun profesional kontside-ratzen. Kasurik onenean, lan istriputzat hartzen dira.

Baina kasu larriarena amiantoak kaltetutakoena da. Gaur egun, EAE eta Nafarroan 30.000 bat lagun afektatuak daude, eta hiru lagunetik bat minbiziz hilko dela uste da. Zoritzarrez, ez dute bakarrik gaixotasuna sufri-tu behar, baita administrazioaren, enpresen, mutuen zein ase-guratzaleen onespen eta erreko-nozimendu eza ere pairatu behar dituzte. Hain larria den gaixota-sun profesionalen arazoak mere-zi duen lehentasunezko tokia iza-tea gure helburu nagusietariko bat izan dadila!

*ESK sindikatuko Debagoieneko koordi-natzailea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Joko Olinpikoei boikota: ados zaude?

BAI	%66,7
EZ	%33,3

> LOTSAGARRIA

Joko Olinpikoak non egin behar ziren jakin zenean, bazekiten arazo hau egongo zela, baina badirudi mundu honek gogoko izaten duela elkarren arteko borroka.

Ane

> KIROLARIEK BOIKOTA

Beste herrialdeetako kirolariek euren kontra egin beharko zuten boikota, eta modu honetan txinatarrak jokalari bakarrak izatera pasatuko dira.

Sara

> HORI ERE BIOLENTZIA DA
Boikota biolentziaren beste adierazpen bat da. Tibeten aurkako errepresioa salatzeko beste modu batzuk daude.

Ane Miren

> EZ DEZATELA INOR BIDALI

Gustatuko litzaidake herrialdeek ez bidaltzea euren kirolaria Txinara. Gogorra dela esango dute kirolariek, baina gogorragoa da oraindik Tibet jasaten ari den errepresioa!
Imanol

DATORREN ASTEKOAK: Lehen Jaunartze ospakizunak, gustuko?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Julen Iriondo

Bizkaiko Golkoko piratak

apaizak barkillo pusketa batinola begiratzen dioten, ume goseti batek ere bere aspitoxari ez dio honela begiratzen (...). Jesukristok arrain batzuk eta ogiarekin herri bazkaria egin zuenekit elizak ez du ezer elkarbanatu. Dena beretzat izanda (...).

Normala iruditzen zait gero eta jende gutxiago joatea elizetara. Ez dute ezer erakarrigarri egin. Laster apaizak ezkontza eta hileta elizkizunetan azalduko dira bakarrik. Elizak beste gauza batzutarako erabiliko dira. Ea noiz iristen den egun hori.

Liburutegitik bueltan

'Demonocrazy'
goiena.net/blogak/demonocrazy

L iburu zehatz baten bila joan berri naiz Bergarako liburutegira arratsaldeko plana inda baina ustekabeen hartz doten berri batek nere plana apurtu dau, nik irakurtzia nahi neban liburuaren bi aliak okupauta dare eta gainera beste 10! pertsonako lista dago nere aurretik (...). Gaur egun ez dala irakurtzen

behin eta berriz entzun izan dot eta nik hori uste neban baina gaurkuak zalantza asko ekarri dost burura. Gutxi irakurtzen da? edo liburu desberdin gutxi? edo agian, oraindik kezkagarrixaua, gutxi irakurtziaz gain, ez dago liburu aniztasunik irakurleon artean?

Ta apirilak 23, asteazkena, liburuaren eguna agian nire kezkak alde batera utzik dituzte egun horretan, orain azkenean libururik gabe geratu naizenez pelikula bat ikustea pentsatu dut (segituan botatzen dut toaila bai...), beno, palomitak egitera noa, geruarte!

Nork esan horrenbeste pirata Suelto badela oraindik Ba bai, oraindik badira eta Ez Somalian bakarrik

Bizkaiko Golkoa ere ez da Haiengandik libre izan Guggenheim ere egin zutenez Barku handi baten gisan.

Dirua mugitzen den tokian Ustelkeria hurrean Asmatu zuten txakur handi bat Jarrita ate aurrean.

Baina aurrean barik barruan Jarri balute hobeto Hango diruen arduraduna gertuagotik zaintzeko.

Lanean egon den bitartean Kontuak disimulatu Bera gaixotzeakin batera Guztia gaixotu ditu.

Oraintxe hasi naiz konprenditzen Ikustean museoa Jendeak esaten duenean A ze nolako koadroa!

Zutik hirugarren erantzun

Juan Ramon Garai
Arrasate

Apirlak 14. Bigarren Errepublika egunean Elgetarantz noa. Arratsaldeko 04:30ean txingor zaparrada baten erdian Intxortako Atera heldu naiz. Miliziarren eta gudarien oroigarria dena margotuta dago: *¡España Una Grande y Libre!* alde batetik, eta bestetik, *¡Viva España!...*, *¡Abajo la castaña!* erantzuten zieten errepublikanoek.

Espania bakarra!, Espaniol sentitzen direnentzat, ezta? Ez zarete, ba, demokratak?

Handia!, Aspaldi izan zen... Eguzkia itzaltzen ez zenean. Ceuta eta Melillarekin penintsulatik aparte... Non daude Filipinak, Kuba, eta etorkizunean non egongo ote dira Katalunia, Euskal Herria... batek daki!

Libre!, batzuentzat bai horixe, baina ez askatua.

Hiru orduko elkarritzetaren ondoren, Maria Luisa, Jesusa, Benedikta eta Isabelekin, jakin izan dut: De Francisco buruzagi sozialistaren semea 1934ko urriko Iraultzaren ondoren, -non milizia armadaren burua izan zen-, Benediktaren base-rrian gordeta eduki zutela... Elgetar gehienek zekiten, baina inor ez zen joan Elgetako Guardia zibilaren kuartelera....

Jesusak dio, Antsoategi baserriaren ondoan beste zazpi fusilatu gorpuzkiak daudela, bata emakume batena, painelu zuri batekin buruan...

Union de Hermanos Proletarios Bergarakoak Isabelen etxearen egon ziren, Sasetako donostiarak Maria Luisarenean... Martiartukoak Benedikta-ren etxearen: matxinatuengen hegazkinen bombardaketan aurrean, esaten zuten: noiz demonstre etorriko ote dira geureak! Dragoneseko miliziar hilak non daude? Baliteke elizaren ondoko zelaietan; gaur egun etxeak daude gainean.

Casimiroengana laguntza eske joan eta berak emandako papera erre egin behar izan zuten, askatzen lagundu beharrean, fusilatzeko laguntza zen-eta.

Antsoategiko Canuto Ugalde eta Joxe Bizente Garai Antsoategiko Bastarrekoak pertsona oso onak-fusilatu egin zitzuten, beste sei gudarirekin batera, Anttoni neskatila bortxatu eta haren aita-amak, Francisca Lamarain eta Pedro Telleria hilak gero... Neskatilak mendian gordeta, bitartean. Angel Gorri-ren anaia eta Dimas Arantzeta desagerturik.

Frankistak Elgetako plazan, egun argiz, mairu bat ere fusilatu zuten. Camilo Alonso Vega -odolzalea gaitzarena-

teniente koronelaren agindupean, *carta blanca*, sarraskiak egiteko eman eta gero....

Hori denoi 1937ko apirilaren 20, 21, 22 eta 23an. Gudarieki bata bestearen atzean, -alemanen hegazkinen eta italiarren kanoien bombardaketei eutsi eta gero- aurka egin zielako infanteria frankistaren eraso etengabeei.

Martintxo tabernan konfusatutakoak Elgetako etxe batzuetan daude, hor jarraitzen dute... Zenbat sufrimendu, ezinikusi, lapurreta eta hilketa, eta hori dena *España Una Grande y Libre* aurrera ateratzeko... Berriz ere? Geroko berrogei urteetan hainbat diru eta primerako lanpostuak izan direnak izango dira? Ez dira asebete eta asebete.

Exterako bueltan eguzkia da nagusi, denbora gutxian zenbat aldaketa. Gure herriko alderdi batzuen exekutibak bezala... Saitzen dira onak direla esaten, baina zertarako? Jarleku ederretan eserita jarraitzeko. Baina ez arazoak konponzeko. Beste 40 urtetan berdin jarraitzeko?

Intxortaren Atera noa berriro ere argazkiak ateratzent; ene! Oraingoan lehengo pindak beltzez margotuta daude, gainean *Gora Euskadi Ta Askatasuna*. Euskaldunen herri askatua. Pentsaera desberdina dituzten langileak hiltzen? PTV, hau da, *Pueblo Trabajador Vasco*, "bere lan indarra Eusko-din saltzen duen langilea da" erakundearen hitzak ziren. Horrela sekula ez gara izango pertsona askeak, eta nola askatu herria pertsona ez libreakin?

Arrasatera heldu naiz, "zurrubilo mediatikoaren erdigunera". Arazo guztien gainetik, pentsatzen dut zutik mantentzea merezi duela.

Zutik hirugarren bidea bultzatzen, zeren beste bide biak aspaldi baitaude agortuta. Zutik Hirugarren Errepublikaren alde ere bai, Jesus Larrañaga *Gohierri-k* esaten zuena aurrera eramateko: *España Gorri bat izango litzateke Espania hautsi bat*. Pertsona askatuen herriak, Euskal Herria Gorria.

Ez da herriaren proiektua

Mikel Eguren Laskurain
(Bergarako Ezker Abertzalea)
Bergara

Hamaika arrazoi daude AHT makroproyektu imposatura geldiarazteko. Euskal gizarteari birkar emanez, Madril eta Pariseko gobernuak, PNVk eta UPNk zuzenduriko euskal administrazioen laguntzarekin adostutako basakeria honi ezetz esateko.

Argi dago tren mota honek aurrera egingo balu, konponezi-nezko kaltea eragingo diola Amalurri. Baino hau ez da izango sortuko duen kalte bakarra. Guziok ordainduko dugun garraioa izango den arren, gutxi batzuek soilik erabili ahal izango dute aurreikusitako ibilbide eta salneuriak aintzat hartzen baditugu.

Euskal Y-a eraikitzeak suposatzen duen gastu ekonomikoak, gure etorkizuna baldintzatuko du eta gizarteak dituen behar sozialak alde batera utzi beharko dituzte.

AHT neoliberalismoaren adibide esanguratsua da. Honek bultzatutako eredu ekonomikoak eta sozialak, ezberdintasun soziala bultzatzeaz gain, prekritate laborala areagotu eta deslokalizazio industriala erraztuko du. Azpiegitura erraldoi honek 3. sektorea indartzeaz gain, 1. eta 2. sektoreen kaltetan, merkantziak joan-etorri soilerako lurralde-eremu bilakatuko du Euskal Herria. Hartara, Euskal Herriaren mendekotasun estrukturala areagotu eta burujabetza ekonomikorako aukera urrundu egingo du.

Eta hau guztia gutxi ez balitz, AHTk ez ditu egungo trafiko eta garraio arazoak konponduko, hirietan bakarrik geldituko delako. Beraz, ez ditu eskualde barruko joan-etorriak ahalbidetuko.

Possible da honek aurrera egitea, hau onartzen duen marko juridiko-politiko batetan bizi garela. Egoera sasi demokratiko honetan herritarren ezezkoa ez entzuteaz gain, kriminalizatu egiten gaituztela-ko, eta horren adibide da Aramaioko alkateak herri kontsulta buruzeagatik auziperatzea. Herri mobiliza-zioa gero eta zabalagoa denean eta ezezkoaren aldeko oihua gero eta ozenago entzuten denean, ez dute lortuko gu geldiaraztea eta hor ere adibide garbia Eskoriatzan gertaturikoa.

Erabakitzeko eskubidean oinarriztako eta herrialdeen ezaugarri eta izaera aintzat hartuko duen marko demokrati-ko berri baten beharra daukagu. Honek ahalbidetuko baitu bertan bizi garen guztiok, geure borondate eta erabaki librez, badugula eskubidea nazio honi bere instituzioak emateko eta horrela bere bizitza kulturalaz, ekonomikoaz, sozialaz eta hizkuntza politikaz erabakiak hartzeko aukera izango du.

Bergararrok proiektu honekiko desadostasuna adierazteko antolatu diren ekitaldien parte hartzeko deia luzatzen du Bergarako Ezker Abertzaleak. Batetik AHTren aurkako taldeak apirilaren 26 eta 27an Angiozarren antolatu-

tako akanpadan eta bestetik hilaren 28, astelehenean, 19:30ean Bergarako udal pleno aretoan egingo den ohiko plenora AHTren aurkako oihua eramatera.

Paco Garciari

Aitor Etxabe Okina
eta Luis Mari Izquierdo
Arrasate

Paco, ondo gogoan izango duzun bezala, joan zen asteartean, apirilaren 15ean, Mondragon Hoteleko kafetegian egin genuen tril. Gu biok elkarrekin han suertatzea kasualitatea hutsa izan zen, izan ere zu zeure kontuetara baitzeunden, zeure bizkartzinez inguratuta, eta ni, berriz, neureetara, neure ezagun baten konpainian, udan zabaltzeko asmoa dudan sagardotegi-erretegiari buruz berbetan.

Paco, seguru-seguru nago ez duzula berririk izango hoteletik kanpora gertatutakoaz eta hori dela-eta nik neuk han kanpoan jaso nuen tratuaz. Horregatik kontatu nahi dizkitut gertaerok, guztiz kongintzitua bainago, zuk duzun sentsibilitate demokratikoa kontuan izanda, nire adierazpenok pertsonen duintasun eta ohorerako erabat errespetuzkotzat hartuko dituzula.

Lehen aipatu dudan ezagu-narekin minutu batzuk berriketan jardun eta gero, bera agurtu eta kafetegitik kalera atera nintzen, inguruau dagoen La Caixako bulegora joateko asmoarekin, bertako zuzendarriarekin elkarritzeta bat egiteko. Bidean, zure bizkartzainetako bat nire atzetik zetorrela ohartu nintzen.

La Caixako bulegora sartu nintzen. Zuzendarriak beste egitekoren batzuk zituela eta ordu laurden beranduago-edo itzultzeko. Buelta hoteleko kafetegira eta ni sartzen nindoala zu eta zure bi bizkar-tzainak kanpora, berriro egin genuen topo. Lehengo ezagunarekin beste berriketaldi bat egin eta, esandako denbora tartearakin, ostera La Caixako bulegora.

Caixara sartu eta kristaletatik kanpora begira, Jokin Zaitegi plazan, mugimendu arraroak sumatu nituen: uniformedunak bazarretara begira, korrika, pinganilotik berbetan eta balen aurkako txalekoak soinean, euren onetik irienda baleude bezala.

"Zeozer gertau dok! Atrakoren bat? Besteik etxuau bihar!"

La Caixako zuzendarriaren bulegora sartu nintzen. Bata-beatean bi auto Caixaren aurrean zakarki gelditu ziren eta kalea moztu eta harta egin zuten. Gero uniformedunek despatxoko atea ireki eta

kanpora irteteko agindua eman zidaten. Ea zer gertatzen zen galdeku nuen. Erantzuna: isiltzeko eta kanpora irteteko!

"Bajakixat ze gertau dan: Pacok bialdu jittuk". Zuk, Paco, Demokrazia eta Askatasunen defendatzaile sutsuena zaren horrek, Politikan Etikaz aritu behar dela inork baino ozenago aldarrikatzen duzun horrek, zuk bidali zenituen. Berriro galdeku nien ea zein zen horrela jarduteko arrazoia. Ertzainek: pertsona oso susmagaria nintzela eta neurri burua identifikatzeko.

Nor nintzen esan (esan gabe ere ondo zekiten!) eta haserre-haserre jasotzen ari nintzen tratuaren zergatiaz galdeku nien: "ez da ba izango Estatu Terrorismoak eraildako nire aitaren seme eta nire osabizeben iloba naizelako?"

Beldurra ulertzeko esan zidan ertzainetako batek, eta nik esan nion zuk ni aspalditoxik ezagutzen nauzula eta ez nuela egoera ulertzen, baldin eta beste helburu bat ez bazuen.

Bitartean, kafetegian nirekin berbetan aritu zen pertsonak ere antzerako tratu gozo eta atsegina jaso zuen. Argazki bat atera zioten 7 ertzainek inguratu eta kartutxera zabalik, nortasun-agiria poliki-poliki ateratzeko eskatu zioten, egun asko zeramatza leku berdinean jarrita eta berea ere jarrera susmagaria zela.

Gero isiltasuna. Ezereza. Ez deirik, ez barkamen eskaerak. Ezer ez.

Oso ondo Paco, oso ondo. Etika saltzaile bihurtuta zabilta baina, gero, herritarak salatzen dituzu inongo arrazoirik gabe eta Apartheid politika hutsa praktikatzen duzu.

Politikan ere horrela jarduteko asmoa duzula ulertu beharko dugu, Paco, eta horren-bestez, zure abisua jasotzat hartzen dugu, jakinaren gainean gaude.

Herriarrok, batez ere Pacoren begietara susmagari izan zaitezketenok, argi eta tentuz ibili kalera irteten zaretenean, ez hurbildu inondik inora berarengana, ez gerturatu harengana, ez behintzat niri gertatu zitzaidana edo okerragoen bat zuei ere gertatzea nahi ez baduzue.

Horixe niri gertatutako, Paco. Ni saiatzen naiz bizi dugun egoera latz hau ulertzen. Jakizu Paco, zuk izan ditzakezun beldurak ere ulergarri egiten zaizkidala, baina era berean, Paco, jakizu, dardarka eta ikaraka jartzen naizeloa entzerrona beste zirkunstanzia batzutan gerta zitekeela pentsatzen dudan bakoitzean.

Paco, besterik gabe eta niri gertatutako bezalakorik beste inori ez gertatzeko neurriak hartuko dituzulakoan, agur.

Adeitasunez.



A photograph of three young adults (two women and one man) standing together, each holding a brochure or booklet. The man in the center holds a yellow booklet with text in Basque: "BATXILERGOAK AURRE Matrikulazioa: maiatzaren 5etik 9ra".

goieskola@euskalnet.net | ☎ 605 773992 | www.goieskola.net

guztiona,
guztion artean

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa

OÑATIKO INSTITUTUA
Batxilergoa: 943 781268
Lanbide Heziketa: 943 782150
• Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
• Lanbide Heziketa: Heziketa Zikloak
-Mekanizazioa
-Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenua
-Natur Ingurunean Kirol Ekintzen Gidaritza
-Langile eta Langabetuuentzat ikastaroak
Informazio gehiago: www.oinati.net

ARRASATEKO INSTITUTUA
Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 – 943 798300
Bilera informatiboa eta ate irekiak:
maiatzak 6
Ordua eta lekua: 18:00, Institutuan
• Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
• Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa
• Arte Batxilergoa
• Zikloetarako teknologia Batxilergoa

BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUA
Boni Laskurain 19
Tel.: 943 763142
Bilera informatiboa : maiatzak 6
Ordua eta lekua: 18:30, Institutuan
• Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
• Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa

Debagoiene PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK
BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
ARETXABAleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK
AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABAleta / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK
JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ASEGURUAK
GOIENA ASEGURUAK
ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

EKONOMISTAK
ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK
URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK
EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK
JOSE M. BARRIOLA ETXEVERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

DENDA BERRIA
Ibargarai 17 behea BERGARA

INAUGURAZIOA
Asteazkena 30, 18:30ean

ETOR ZAITEZ!

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 31 27

Obradorea. Zubillaga 10 ONATI
943 78 24 13

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

R zaharrak
BERRI



NOIZ: Apirilak 30

NOR: Amaia Diaz de
Monasterioguren.Dietista

GAIA: Infusioak.

Zure intereseko elkarrizketak,
erreportajeak eta tertuliak batzen dituen
programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea:

URREZKO
kutxa ZERBITZUA

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-26 Aretxabaleta > 27-28 Oñati > 29
Eskoriatza > 30-31 Antzuola > 32 Elgeta > 33 Aramaio > 34 Leintz Gatzaga > 35



> BERGARA

Ozaeta auzoko etxe babestuak egiteko lanak, maiatzean > **25**

> ARETXABAleta

Arizmendiko zerbitzu orokorrrendako, ISO 9001 > **28**

> OÑATI

Barandak eta bi behatoki, Arantzazu eta Gomiztegi arterako > **29**

> ESKORIATZA

Atxorrotzen gaineko jardunaldiak egingo dituzte > **30**

ESKORIATZA > JOSE ARANAREN HERIOTZAREN MENDEURRENNA

Jose Arana, herriarentzat lan egin zuen mezenas eskoriatzarra

URTEMUGA

Aranaren heriotzaren 100. urtemuga ospatzeko ekitaldiak egingo dituzte

EKINTZAK

Hiru izango dira: erakusketa, mausoleo garbiketa eta eskoletako materiala

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Aurten, Jose Arana (Eskoriatza 1839-Donostia 1908) enpresaburu eta mezenas eskoriatzarra hil zeneko 100. urteurrenaren betetzen da. Ibarraundi museoko ardura-dunen arabera, "gizon adoretsua eta ekintzailea izan zen, zalantza barik". XIX. mende amaieran Donostian musika ikuskizunak eta zezenketak antolatzen eta sustatzen aritu ondoren, Madrilgo Errege Antzokia ere kudeatu zuen.

JOSE ARANA OMENTZEN

1908. urteko abenduaren 5ean hil zen, 69 urterekin. Orain, bere heriotzaren 100. urtemuga beteko denean, Ibarraundi museoak, Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, hura omendu nahi du. Jose Arana nor izan zen eta egin zituen ekarpenak gogorarazteko, hainbat ekintza prestatzeari ekin diote. Ekintza horien artean, erakusketa da bat; hori antolatzeko materiala eta dokumentazioa Koldo Mitxelena Kulturunetik, Gipuzkoako Artxibo Orokorre-

tik, Madrilgo Errege Antzokiko artxibotik, Jose Arana fondotik eta Valentzia, Murtzia, Madril, Bartzelona, Donostia eta beste hainbat tokitako bilduma pribatutatik ekarri da. Erakusketa San Pedro jaietatik udazkena bitartean egongo da zabalik Ibarraundi museoan eta, bertan, ikusgai egongo dira, besteak beste, zezenketetako kartelak, Errege Antzokian eman zituen bost denboraldietako esku orriak, Aste Nagusiko eta Beti Jai pilotaleku grabatuak, argazkiak, agiriak...

Bigarrenik, Jose Aranaren bizitza eskoletan lantzeko materiala ere prestatuko dute Ibarraundi museoko arduradunek, eta interesa duten ikastetxeen eskura jarriko da. Hezkuntza maila desberdinaren lantzeko prestatuko dira ikasgai horiek, eta bisita gidatu batekin osatu ahal izango dira. Hirugarrenik eta azkenik, Benlliure XIX. mendeko eskultore valentziar ospetsuak mausoleoa egin zion bere lagun mina zen Jose Aranari. Mausoleo hori, beraz, XX. mendean hasierakoa da, Jose Arana hil zen garaikoa, hain zuzen ere. Harrezkero 100 urte pasa dira eta, gaur egun, mausoleoak garbitu baten beharra dauka.

Horregatik, Jose Aranaren mendeurrenerako, mausoleoaren dotoretasuna berreskurtzea lehentasunezkoztat jotzen denez, hasi dira lanean, eta dagoneko eman dituzte lehen pau soak; San Pedro jaietarako txukunduta egotea espero da. Aipatutako ekintzak direla eta, Udala laguntza bila dabil, Jose Aranaren erakusketari eta panteoiari lotutako gastuei aurre egin ahal izateko.



JAIOTETXEA Irudian, Aranaren jaiotetxea, Eskoriatzan. Bere izen berbera dauka kaleak ere.

IBARRAUNDI MUSEOA

BIOGRAFIA

Eskoriatzari 200.000 pezeta utzi zizkion

Jose Arana enpresaburu eta dendari oso ona izan zen; bi jaki denda izan zituen, baita beste bi banketxe ere. I. Karlistada amaitzean, Donostiaro zezen plaza eraiki zuen, eta bertatik aurreko mendeko toreatzaile onenak pasatu ziren. Bi pilotaleku ere eraiki zituen; bat Donostian, Beti Jai, eta beste bat Madrilen. Berari sor zaio ere Donostian eraiki zen lehen zirkoa. XX. mende hasieran bost urtetan Madrilgo Errege Antzokiko enpre-

saburu izan zen. 1908ko abenduaren 5ean hil zen, aortako lesio baten ondorioz eta Eskoriatzan hilobiratua izan zen. Eskoriatzako herriari testamentuan 200.000 pezeta utzi zizkion, eskolak, urtekartzea eta ospitalea egiteko. Horrela bada, utzitako diru horri esker eta haren nahia betez, Jose Arana eskolak eta ospitalea -gaur egungo Zaharren Egoitza- eraiki ziren, eta ura ekarri zen herriraino, Zelaitxuetako depositutik.



Jose Arana.

IBARRAUNDI MUSEOA

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 26	Fdz. Corcueras	Maisu Aranbarri, 1	943 79 12 39
Domeka, 27	Irizar	Ergin, 11	943 79 18 65
Astelehenetako, 28	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 29	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Eguaztena, 30	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Eguena, 1	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitz, 2	Azkoaga	Ferreras 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapata, 26	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 27	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehenetako, 28	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 29	Estella	Matxitxagegi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 30	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 1	Urrutikoetxea	Otxorondo, 4	943 76 11 74
Egubakoitz, 2	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

ONATI

Zapata, 26	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 27	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehenetako, 28	Barrenetxeak	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 29	Barrenetxeak	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 30	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 1	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitz, 2	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABAleta

Zapata, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehenetako, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuoko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhitzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalaitzaingoa.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 79 12 22
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 77 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

URBANOAK

Kirodegiaik	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.	

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrego, Onererreka, Makaztena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztena, Obenereka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.</td	

kale inuesta

Pasa da Liburuaren Eguna. Irakurtzeko ohitura badaukazu?



Julen Urreza
Ikaslea
Bergara



Iker Gil
Ikaslea
Bergara



Gema Rojas
Langilea
Bergara



Maria Martin
Langilea
Bergara



Pedro Ramos
Langilea
Bergara

Asko gustatzen zait irakurtzea. Denetik irakurtzen dut. *Barbantxo* delaiko ipuina, adibidez, asko gustatzen zait. Gainera, euskaraz, espanolez eta ingelesez, denetara irakurtzen dut.

Irakurtzea gustatzen zait, gehienbat beldurrezkoak, adibidez, *Pesadillas*. Liburuak askotan oparitu egiten dizkidate, baina nik neuk ere eros-ten ditut, eta batzuetan liburutegira joaten naiz.

Ez dut gehiegi irakurtzen. Irakurtzen dudanean, gehienbat biografiak eta beldurrezkoak izaten dira. Liburuak erosi egiten ditut, eta normalean gauetan irakurtzeko ohitura daukat.

Orokorean, polizia nobelak irakurtzen ditut. Nik ohitura dut arratsaldeetan irakurtzeo. Etxean liburu asko dauzkat; nik neuk erosten ditut. Espainolez eta ingelesez irakurtzen ditut.

Liburuak irakurtzeko ohitura gutxi daukat; gehienbat, egunkariak irakurtzen ditut, eta horietan, kirol albisteak. Liburuak irakurtzekotan, sendabellarenak izaten dira irakurtzen ditudanak.

txistuak



GOIENKARIA

Kale garbitzaileak, garajeko atean txiza



Irakurle batek, apirilaren 5ean, goizean, bere garaje aurretik pasatzean, kale garbitzaile bat aurkitu zuen txiza egiten garajeko atean. Zertan ari zen galdetuta, zer erantzuneta "Zuk ez duzu txiza egiten?" Hauxe dio irakurleak: "Soldatu kaleak garbitzen ateratzen duena bertan txiza egiten... Kontuak eskatutakoan, lotsaz gorritu beharrean oilartu, hori lotsagabea!"

asteko datua

3.464

Astean Euskal Autonomi Erkidegoko ardura daukan SGAEko (Espainiako Egileen Elkartea deritzonak) sailak urteko batzarra egin du. 2007an SGAE-ko bazkide egin diren 114 egileekin, dagoeneko Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian 3.464 bazkide dituztela jakinarazi dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

5 galdera...

Silvia Carballo

Gipuzkoako Gobernuz
Kanpoko Erakunde idazkaria

1. Zer behar da norbaitek kooperante izan nahi bal-din badu?

Kooperante bezala joateko modu asko daude. Lehenik, norberaren herriko edo hiriko boluntarioa izan behar da, GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) batekin, edo gizarte mugimendu batean barruan. Ondoren, jendeak kooperante izate hori praktikan jarri nahi izaten du; horretarako, bidaia solidario batera edo lan gune batera joatea da egokiena. Horren guztienaren ondoren, benetan gustuko badu eta aurre-heziketa batekin, GKEek dituzten proiektuetan parte hartzen joan daiteke. Esperimentzia lortuta, kooperante munduan lan egin daiteke.

2. Debagoienean badago kooperante izateko kontzientziarik?

Bai. Gainera, Debagoienean GKE asko daude, eta beraien artean oso ondo koordinatuta, gainera; adibidez, Elkarhezitzen.

3. Kooperante bat proiektu batean murgiltzen denean, zein eginkizun ditu?

GKEaren, herrialdearen edo proiektuaren arabera, eginkizunak ezberdinak dira. Orokorean, baina, ahalegina egiten da proiektuen garapena herrialde bertako jendeak eraman dezan, proiektuaren etorkizuneko autonomia-ren hobe beharrez.

4. Zein herrialdetara joaten dira kooperanteak lana egitera?

Euskal Herrian, Ertamerikara joateko ohitura handia dago, baina Afrikara joateko gero eta postu gehiago ateratzen ari dira. Horretarako, herrialdearen arabera, inglesa, frantsesa edo portugesa jakitea ezinbestekoa da.

5. Kooperante izan nahi duenak nora zuzendu behar du?

Lehenik, GKEetako koordinazio gunera jo behar da. Bertan kooperante izan nahi duen edonoren galderai erantzun eta erabakiak hartzen laguntzen diegu. Beste aukera bat www.orgdeuskadi.org webgunean begiratzea da.





PACO GARTZIA Atsekabetuta bere alderdiaren mozioak aurrera ez zuelako egin.

XABIER URTZELAI



MOBILIZAZIOAK Herritarrak plazan izan ziren EAE babesten.

XABIER URTZELAI

POLITIKA > EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Bost mozioren artean, bat bera ere ez zuten onartu atzoko osoko bilkuran

Alderdi politikoen arteko desadostasuna nabarmen geratu zen batzarrean

EB-Zutik koalizioak proposatu zuen galdeketa egitea herriari ahotsa emateko

UBANE MADERA > ARRASATE
Alderdi politikoen arteko adostasunek eza da atzoko ez ohiko osoko bilkurak utzi duen irudia. Horren adibide da batzarrera bertara bost mozio aurkeztu zitzuela eta azkenean bat bera ere ez zutela onartu, mozio batek ere ez zuen lortu-eta aurrera egiteko beharrezkoak zituen 11 puntuak. Ino Galparsoro alkateak, Pello Urizar EAko bozeramaleak eta

Itziar Lamarain PPko bozeramaleak ere horixe nabarmendu zuten, bost mozio aurkezteak era-kusten duela zein den Arrasateko udalbatzarraren egoera.

BOST MOZIO POLITIKO

Mozioei dagokienez, PSE-EEk eta EAJk aurkeztu zuten bat, aspaldi iragarri zutena, eta hari alternatiba moduan, Aralarrek eta EAEk aurkeztu zuten bakotzak bere mozioa. Horrez gainetik, PPk beste mozio bat aurkeztu zuen, eta hari alternatiba moduan, PSE-EEk aurkeztu zuen bosgarren eta azkeneko mozioa.

BOZKETA

BBozketari dagokionez, PSE-EE eta EAJren "mozio etikoaren" alde bozkatu zuten EAJ eta PSE-EEren zortzi zinegotziek; kontra bozkatu zuten EB-Zutik koalizionko batek, EAren zazpietako Aralarren zinegotziak. PP (1) eta EA (1), berriz, abstentu egin

ziren. Gainerako bi mozio alternatiboak ere ez ziren onartu.

PPren mozioari, berriz, aldeko bota eman zioten PSE-EEren lau zinegotziek eta PPren bakkarrak. Gainerakoek aurka bozkatu zuten. PSE-EEren mozio alternatiboari, berriz, PSE-EEk bakkarrak eman zion baiezkoa (4), EAJ abstentu egin zen (4) eta beste guztiak aurka bozkatu zuten.

BOZKETAREN AZALPEN POLITIKOA

Boto azalpenei dagokienez, Itziar Lamarain popularrak behin eta berriro azpimarratu zuen PSE-EE eta EAJk batera aurkeztu duten mozio hori berandu zetorrela eta joan deneneko apirilaren 3an gaitzetsi behar zela Isaias Carrascoren kontrako atentatua. Nabarmendu zuen hori ez zela lortu orduan, besteak beste, PSE-EEko kideak ez zirelako osoko bilkura horretara joan.

Jakina, horrek PSE-EEren aldetik erantzuna eragin zuen.

Baina oro har, Paco Gartzia bozeramaleak nabarmendu zuena izan zen EAJrekin batera aurkeztutako mozioa zela "higiene demokratikoa eta duintasunaren aldeko mozio etikoa".

Baina oro har, Paco Gartzia bozeramaleak nabarmendu zuena izan zen EAJrekin batera aurkeztutako mozioa dela "higiene demokratikoa eta duintasunaren aldeko mozio etikoa".

Bestalde, EB-Zutik koalizionaren izenean, berriz, alokuzio luzea egin zuen Ander Rodriguez bozeramaleak euren postura defendatzeko. Gogora ekarri zuen, adibidez, 1997an ere zentsura mozioa izan zela Arrasateko Udalean eta hark ez zuela ezer tarako balio izan. Proposatu zuen, besteak beste, "konsulta bat egitea, herriari ahotsa emateko".

EAJren izenean Luis Mari Apraitzek nabarmen utzi gura izan zuen "bateraezinak direla udal ordezkari izatea eta bertako

seme baten hilketa ez gaitzestea", eta bestelako artean, esan zuen "ETAren jarduna" dela "euskal nazioaren oztoporik handiena".

EAk, Pello Urizarren hitzen bitartez, azaldu zuen ez zegoela ados karguen dimisio eskaerarekin eta aditzera eman zuen Arrasateko egoera dela atzera pausoak egitea, "ni naiz ona eta bestea txarra, ni naiz zigortua eta bestea erruduna" dialektikan sartzea, eta horrek ez dakarrela ezer onik.

Eta bukatzeko, Joxe Etxeberria Aralarko ordezkariak azpimarratu zuen "Euskal Herriko gatazka eta indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak" ez direla "alde bakarrekoak eta gatazka gainditzea lortuko dela urraketa horiekin behin betirako amaitzen dutenean ETAK zein Frantzia eta Espainiako Estatuetak". Eta gaineratu zuen "giza eskubide guztiak onartzen ez dituen udal ordezkarien jarrera txartzat hartzen" dutela.

**((112))
SOS DEIAK**


Txitxinx
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

arbolapeta

beinko

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

OBRAK > SAN ANDRESKO ETXEBIZITZAK

Cordoba y Oro plazari dagokion proiektua ikusgai ipini dute

Maiatzaren 15era arteko epea ezarri dute proiektua ikusi eta alegazioak egiteko

Oro har, San Andresen eraiki behar dituzten etxebizitzak atzerago eraikiko dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE
Udaleko Hirigintza sailak abisatu du San Andres auzoan eraiki behar dituzten etxebizitzak proiektuan aldaketa bat egin dutela, eta aldaketa horren proiektua jendurrean dagoela. Norbaitek iku si gura badu edo alegazioak aurkeztu gura badu, maiatzaren 15era arteko epea izango du.

Hain zuzen ere, San Andres auzoko Cordoba y Oro plaza inguruari dagokio egin duten aldaketa. Kontua da auzo hartako bizi-

lagun askok idatzia aurkeztu zutela Udalean aurtengo urtarrilean, bi eskaerarekin. Batetik, eskatu zuten, etxebizitzak berriak egiterakoan, errespeta dezatela Cordoba y Oro plaza; bestetik, eskatu zuten etxe berriek oraingoen altuera bera izan dezatela, oraingoek argitasunak gal ez dezaten.

Udaleko ordezkariek eta auzotarrek hainbat bilera egin zituzten gai hori lantzeko, eta San Andresko etxebizitzak proiektuan egin duten aldaketa da bilera horien emaitzetako bat.

DATUA

228 ETXEBIZITZA

Babes ofizialeko 68 etxebizitzak eraikiko dituzte, eta beste 160 libre. Etxebizitzak bakoitzeko, bina aparkaleku eraikiko dituzte; horietatik 50 Arrasateko Udalari emango dizkiotzak.

Udaleko Hirigintza sailak adierazitakoaren arabera, aldaketa horren bitartez ahalegindu dira plazarendako lekua lortzen. Juan Antonio Urdangarin, Hirigintza saileko teknikari-buruak, aditzerria eman du "etxeak hartzen duen azaleru gutxitu eta aprobetxamendu bera lortzeko alturan planta bat irabaziko" dutela. "Cordoba y Oroko etxeak modu horretan egongo dira urrutirago, baina izango dute altura bat gehiago".

BABES OFIZIALEKOAK ETA LIBREAK

Proiektu orokorrari dagokionez, San Andres auzoan Polmetasa lanteriaren orubean eraiki behar dituzte etxebizitzak: babes ofizialeko 68 etxebizitzak, eta beste 160, libreak. Horrekin batera, lur azpiko aparkalekuak ere eraikiko dituzte: etxebizitzak bakoitzeko bi aparkaleku eta 100 metro koadro duen lokal bakoitzeko beste aparkaleku bat. Horietatik 50 doan emango dizkiotzak.



Dani Tamayo, Urgabeko ugazaba, Sinaqua produktua erakusten. UBANE MADERA

Musean ibilitako emakumeen argazki-albuma

1995. eta 2000. urteen artean, Arrasateko 104 emakumezkoren talde bat musean ikasten ibili zen, Roman Lopez (argazkian) muszalearen gidaritzapean. Jokoan ikastea gainera, hainbat txapelketan ere parte hartu zuten eta bidaia batzuk egin ere bai. Bada, esperientzia horien argazkiak batzen jardun du Roman Lopez irakasleak urteotan, eta bilduma sortu du. Orain, bilduma eskuratzeko aukera eskaini gura du Lopezek, Zabaleta lurrindegiaren ikus eta eska daiteke kopiatu bat.



GOIENKARIA

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI TABERNA
943 711768



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

KONTZERTUA > EL DOGHOUSE

Joe Strummerren lehen taldeko bateriajoleak joko du 3.60 aretoan

Euskal Herrian barrena bira laburra egingo dute; Elorrio eta Lekeitio ere joko dute

Richard Dudanskyk harreman estua izan zuen *The Clash*-eko liderrarekin

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Datorren egunean, musikari berezi baten kontzertua ikusteko aukera izango da 3.60 aretoan. Euskal Herrian egingo duen bira-ren barruan, Richard Dudansky 101'ers talde mitikoaren bateriajolea izango da gurean; El Doghouse izeneko taldea zuzentzen du egun. Berarekin batera, AEBeta-ko countryan ospetsuenetarikoa izan den gitarrjolea izango da, Tom Lardner, alegia.

ESKARMENTU HANDIKO TALDEA
Eskarmantu handiko musikariak dira bai Lardner zein Dudansky. Hala ere, taldeari ez zaio falta gaztetasun eta bihurrikeria punturik. Izañ ere, Dudanskyren semeak jotzen du taldean eta, gezurra badirudi ere, 14 urte eskas zituenetik egiten du.



EL DOGHOUSE Ezkerretik eskumara, Lardner, Dudansky eta Nother, Granadan emandako kontzertu batean.

EL DOGHOUSE

Dudanskyren semeak, *Gigs* Nother-ek, punk klasikoa du gustuko. Hala, Rip, Eskorbuto edo La Polla Records bezalako taldeen jarraitzaile amorratua dela jakinarazi digu bere aitak. Bestalde, musika estiloa "garajeetatik era-torritako rocka" bezala definitu

dute, baina beste hamaika musika molde ere lantzen dituzte.

Gainera, euren aurretik, The Clash taldearen bertsioak egiten dituen talde arrasatear bat izango da taula gainean, The 7 Magnificents & Friends, hain zuzen. Joe Strummerren omenezko bi

kontzertu eman dituzte gaztetxe-an, 2005eko irailean eta 2007ko abenduan. Bionaren itxierako festan ere jo zuten. Hala ere, Strummerri omenaldi xume bat egiteko helburuaz sortu zen taldea da, eta ez dute kontzertu gehiago emateko asmorik.

JOE STRUMMERREN LAGUN MINA
Dudanskyk Londresko etxe *okupatu* batean ezagutu zuen John Mellor, gerora Joe Strummer izango zena. Londresko Waltherton kaleko 101.ean entseatzent zuten elkarrekin. Hortik dator taldearen izena, 101'ers, alegia.

Garai hartan, *Woody* ezizenez ezagutzen zuten Strummer. Hala ere, egun batetik bestera, ezizenaz nazkatu, eta bere burua Joe Strummer deitzeko erabakia hartu zuen. Izenaren jatorria nahiko erraza da asmatzen: Strummer berba inglesak literalki "urratzale" esan nahi du euskaraz. Joe Urratzalea? Bai, halaxe da, izan ere, zuzenekoetan gitarra nola urratzen zuen ikusi besterik ez dago bere izen artistikoa ulertzeko.

Azkenaldian, Julien Temple-ren *Joe Strummer: the future is unwritten* dokumentala dela-eta, oso entzutetsua egin da Strummerren izena. Dokumentalak aukera paregabea eskaintzen du Strummerren historia iturri one-tik ezagutzeko. Izañ ere, Templek ondo baino hobeto ezagutu zuen The Clash-en burua.

Hala, Strummer musikari eta pertsona moduan ezin hobeto ezagutzen zuen beste artista baten kontzertua ikusteko aukera izango da. Zubian kanpora joateko asmorik ez duenarentzako plan erakargarria, beraz. Hitzordua 3.60 aretoan, 22:30ean da.

ANTZERKIA

Eskola-Antzerkien 18. edizioa abian da

J.B. > ARRASATE

Arizmendi eta Arrasate Institutuko ikasleek pasa den martitzen eta eguztenean antzeztu zituzten kurtsoan zehar prestatu dituzten obrak.

18. Eskola Antzerkien edizio honetan ere antzezen profesionalen gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek. Apirilaren 30ean, eta maiatzaren 6, 15 eta 22an izango dira antzezenpenok.

Arrasateko Udalak antolatzen dituen jardunaldi hauen helburu nagusia ikasleen artean antzerki zaletasuna lantzea da, hezkuntza adierazpen gisa. Gainera, ikasleak antzerkira oihotza, antzerkiaren alderdi hezigarrak irakastea ere bilatzen dute eskola-antzerkiek.

21. LITERATURA LEHIAKETA > SARI BANAKETA

Eman dituzte Literatur Lehiaketako sariak

Parte-hartzeak behera egin duen arren, aurkeztu diren lanen kalitateak ona izaten jarraitzen duela dio AED elkartearak

J.B. > ARRASATE

Pasa den eguztenean banatu zituen AED elkartearak 21. Literatur Lehiaketako sariak. Lehiaketa-renean lehen eta bigarren saria eskuratu duten irabazoleak atalaka eta adinka sailkatu dituzte: 1991n edo aurretik jaiotakoak, 1992, 1993 eta 1994an jaiotakoak, poesia ipuina eta bertso papera ataletan sailkatuta, hain zuzen.

SARIDUNAK

Aurtengo edizioko lehen saridunak hauexek izan dira: poesian, 1992an jaiotakoaren artean, Garaizi Barberan, eta 1994an jaiotako-



EKITALDIA Jende asko joan zen udaletxera sari banaketa ikustera.

MONDRABERRI

en artean, Elene Gallastegi; ipuin generoan, bestalde, 1991n edo aurretik jaiotakoetan lehen saria Maddi Bengoetxeak eraman du. 1992an jaiotakoaren artean, Maialen Arratibel izan da irabazlea. 1994ko ipuin irabazoleak hiru egi-

le izan ditu: Alaitz Martinez, Arrate Isasi-Itsasmendi eta Haritz Agiriano. 1995.urteko artean, Aitor Etxezarrentzat izan da lehen saria.

Azkenik, bertsopaper kategorian, 1992an jaiotakoaren artean,

Xabi Igoa izan da onena; 1993.urtean jaiotakoaren artean, Maddi Labaien, eta 1994.urteko artean, bi egileren arteko lana izan da bertsopaper sariua, Paula Irigoi eta Amaia Letonaren arteko, alegia.

Udaberriko promozioa

-%10 +

780 € tan baloratutako tximinia

3 CFT-DEEP 90 X modeloa

iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Nahi al duzu gehiago?

250 € tan baloratutako eta marko bateratua duen MW4 - 17 EX mikrouhin labea. (17 litro)
Beti ere ekipamenduak ACTIVA BR, SELECTA BR, ACTIVA BR PLUS, BRISA, ZEN, AURA edo ALTIA baldin badira.

Promozi hau apirilaren 15etik ekainaren 15era izango da.

FAGOR

Sukaldeko altzariak

PEÑAKOBA
AUTOESKOLA, S. L.

Zarugalde 46
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 29 93

Lizaur arkitektoa 7
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 05 60

EEEren Gidatze Ekonomikoaz
Ikastaroen autoescola laguntzailea

Gidatzen duzun bakoitzean erregaiaren %15a arte aurreztu nahi ahal duzu?

PEÑAKOBA AUTOESKOLAN Energia Euskal Erakundearen
laguntzarekin merke gidatzeko ikastaroa doan eskaintzen dizugu.
3 lagunez osatutako talde txikiak

Izena eman eta ingurumenarekin kolaboratu.
Informazio gehiago Peñakoba Autoeskolan.
Tel.: 943 79 29 93

ATLETISMOA**Arrasateko atletak hitzorduz beteta****X.U. > ARRASATE**

Oraingo asteburuan Arrasateko atletak hainbat txapelketetan ibiliko dira burubarri.

Bihar, Jonathan Perez eta Lander Errasti pertika jauziariak Anoetan izango dira, Kluben Arteko Txapelketa izango dute-eta. Horrekin batera, Maialen Axpek, Lore Marrek eta Eukene Dorronsorok Pontevedrara egingo dute bidaia, Emakumezkoen Ligam lehiatzaera. Eta domekan baita ere, Eskola Arteko Txapelketak egingo dituzte Tolosan.

EUSKADIKO TXAPELKETAN

Joan den astean egin zituzten Euskadiko Txapelketetan Perez eta Errasti gustura geratu ziren egindako lanarekin. Taldeka, Realen lehenengo sailkatu zen; Errastiren talde Bidasoa Irun, berriaz, lehen mailara itzuli zen euren kategorian irabazita.

> KIROLDEGIA

Tai Chi egiteko eskaintza, astean birritan, arratsaldez

Aukeak Tai Chi egiteko ikastaroa antolatu du, eta dagoneko hasi dute goizeko ikastaroa.

Arratsaldeko ikastaroa astean birritan egingo dute, astelehenetan eta eguztetenan 18:30etik 10:45era (abonatuak 38,75 euro, bestek 48,75 euro), eta oraindik badago izena ematea. Horretarako, deitu 943 77 16 77 telefono zenbakira.

SASKIBALOIA > EBA-RAKO IGOERA FASEA**MUk etxetik kanpora jokatuko duen azken jardunaldia, Iruñean**

Arrasateko taldeak EBAra bidean azkenaurreko pausoa eman behar du, Iruñean (bihar, 18:00). Irabaziz gero, garaipen bakarra beharko lukete

XABIER URTZELAI > ARRASATE

"Lau partidu geratzen zaizkigu, horietako hiru etxeen, eta gure asmoa da hurrengo biak irabaztea, eta hala, sailkatuta geratzea". MUko entrenatzale Iñaki Merinoren adierazpenak dira, Joan den astean Zornotzari 61-50 irabazi eta gero. Bi partidu irabazi behar dituzte, beste bi pauso eman, eta bihar izango dute lehena emateko aukera, Iruñean, CNP-UPNA taldearen kontra.

Joaneko partiduan, Iturripen, MUkoek ez zuten kontrario hori menderatzeko inongo zailtasunik izan (98-61), eta igoera faseko datuei begiratuta, nafarrak ez dira euren kantxan bereziki indartzen diren horietakoak.

TALDEA OSATZEKO ZAILTASUNAK

Zornotzaren kontrako garaipenak uste baino balio handiagoa du, hainbat jokalari garrantzitsuk ez zutelako jokatzerik izan, eta minutu gutxiago izaten dituzten jokalariekin lortu zuelako MUk partidua irabaztea. Zeziagarekin batera, seguruuenik Gamarraren dako amaituta egongo da denboraldia -lesioa du eskuin eskuan-, baina joan den



TAULAPEAN Zornotzaren kontrako partiduan, taulapeko borroka.

GOIENKARIA

astean ez moduan, Alartzia jokatzeko moduan egongo da. Zornotzaren aurrean Mallabik, Kintanak eta batez ere Biainek hartu zitzuten ardurak, eta bihar hobeto banatu ahal izango dituzte lanak. Dena dela, ikusteko dago

Iruñeko taldea zenbaterainoko burukomina emateko gauza den, baina inork ez du gura ezustekorik.

ELKARREKIN LANEAN

Joan den astean Ointxeko eta Bergarako entrenatzaleen begiradapean 15 gaztek teknifikazio saioa egin zuten Bergaran.

Klubek duten helburua ibarreko saskibaloien alde elkarrekin lan egitea da, eta datorren teknifikazio saioa Oñatin egingo dute. Elkarlan hori da aurrera egiteko bidea.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide froga prestatzea nahi duzu?

Nahikoa duzu 18 urte izatea.

Etor zaitez ARETXABAleta GLHB Institutura eta informatu.
Inskripzio epea: apirilaren 30a arte.

Etxebarri auzoa, z/g

20550 ARETXABAleta (Gipuzkoa)

Tels.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55

E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com

**Igoera faseko sailkapena**

Mondragon Unibertsitatea	27
E. Leclerc Vitoria	24
Valsay-Ardoi	22
Cafes Aitona	22
Viajes Marfil	22
Urdaneta	20
Baskonia	19
CNP UPNA	18
Zornotza	18
Tabirako Baque	18
ITURRIA: WWW.OINTXE.COM	

futbitoa zaldibar**EMAIZTAK**

Cipris-Cicatrus	6-3
Saukelu Abian-At Celaya	3-1
McAwenDauen-Irizt Taberna	3-3
Dublin Irish Pub-HLB 108	3-1
Betrayer-Lasagabaster	1-5
Total Disaster-Equs	3-12
Bar Kokots-Iturrioz Taberna	4-12
Kalapatxak-Ekaitz Taberna	3-1

PARTIDUAK

Apirlak 26, zapatau	Epaileak
12:00 HLB 108-Cipris	Antolatzaleak
13:00 McAwenDauen-Dublin Irish	Cipris
Apirlak 27, domeka	Epaileak
12:00 Ekaitz Taberna-Lasagabaster	McAwe.
13:00 Dribling-Dublin Irish Pub	Antolatzai.

SAILKAPENA

1. McAwen Dauen	43 15
2. Dribling	35 17
3. Cipris	34 16
4. Betrayer	31 16
5. Lasagabaster	29 15
6. Irizt Taberna	28 16
7. HLB 108	28 16
8. Saukelu Abian	26 16
9. Kalapatxak	26 16
10. Dublin Irish Pub	25 15
11. At Celaya	25 16
12. Abokajarro	17 17
13. Iturrioz Taberna	17 16
14. Equis	16 16
15. Cicatrus	15 16
16. Bar Kokots	15 16
17. Ekaitz Taberna	13 15
18. Total Disaster	9 16
19. Iluntz	- -
20. THC	- -

Kopako finalerdiak eta ligako atzeratutako partiduak, tartekatuta

Asteburuan jokatuko dituzte kopan bizirik dirauten lau taldeek finalerdiak. Faboritorik? Txapelketan horraino iritsita, ez dago faboritorik aurreikusterik, behin baino gehiagotan bistan geratu delako ligako sailkapenak ez duela kopan aurreikuspenak egiteko balio.

HLB 108 eta Dublin Irish Pub taldeek eman dute sorpresa, hori egia da. Izan ere, bi talde horiek ligan oraindik ere hurrengo fasera sailkatze-ko lehian dabilta, eta ezin dira oharkabetu, gainera. Bestalde, Cipris eta Dribling dira txanponaren beste aldea, ligan talde erregularrak direla erakutsita kopan ere aurrera egitea lortu dutelako. Baina, asteburuko kanporaketan bi talde indartsuenek ez dute elkarren kontra jokatuko; baietz finalera begira sorpresaren bat edo beste egon.

Koparekin batera, bihar eta etzi atzeratutako norgehiagoka bana jokatuko dituzte; jardunaldi bikotza Dublin Irish Pub taldearendako, eta bietan eman behar dute neurria.

nire bidaia hora

Mikel Zubillaga

Senegal > 2008ko martxoan

"Senegaldarren elkarbizitzaz errespetuan oinarrituta dago"

JASONE ZABLA > ARRASATE
Mikel Zubillaga eta bere neska lagun
Itziar Nabarrok Senegal aldera egin
zuten bidaia pasa den Aste Santuko
oporrikapropetxatuz. Bidaia bizikletaz
egin zuten.

Martxoaren 15ean hasi zuten
bidaia Zubillagak eta Nabarrok,
eta bi aste geroago amaitu zuten,
martxoaren 29an. Dakartik Ziguin-
chorrera joan ziren bizikletaz,
kostaldetik Gambia zeharkatuz.
Paisaiari dagokionez, Dakar inguru-
uan Sahela, basamortuaren
azken zatia, eta Gambia zeharka-
tu ondoren, lur berdeagoa ikusi
zuten. Zubillagak adierazi digunez,
"hango jendea, bizitzeko gutxi eduki
arren, atsegina da".



Mikel Zubillaga.

ERRESPETUA BERAIEN ARTEAN

Bertako erlijioa, nagusiki,
musulmana da, "baina kristauak
badaude eta sinesmen animistak
oraindik eguneroko bizitzan sar-
tuta daude", adierazi digu Zubi-



Mikel Zubillaga eta Itziar Nabarro Gambia hegoaldean, Kartong izeneko herrian.

llagak, eta gehitu du: "Elkarbi-
zitzaz oso erraza da beraien artean,
errespetuan oinarritua dago-
elako". Arrantzak ere garrantzi
handia du bertan; eskatu eta
ematearen ohitura, bestalde, oso

barneratua daukate eta, Zubilla-
gak adierazi zuenez, "familietan
denek lagundu behar diote elkarri". Berriz bertara bueltatuko
zen galdeztuta, "noski baietz,
batez ere, Casamance alderaz".

bere ustez



Jokin Etxebarria

Ebroko uretatik edaten

En Abril, aguas mil dio
gazteleraiko esaerak. Egia esan gurean ura
barra-barra izan dugu azken aldian. Pentsa, Sevillan ere ia-
ia feriarik gabe gelditu dira.

Baina badakizue, euria
denon gustura erortzen ez
den moduan, ez da leku dene-
tan jausten eta Katalunia
dugu adibide garbienak. Bar-
tzelona inguruan urik ez dute-
la eta Ebrotik hartza erabaki
berri dute. (Ur eramateari
jarri dioten sinonimoak bes-
te testu baterako ere badau-
ka). Ur eramate horrek ez die

txutxu-mutxua



JOSU TORNAY

Sant Jordi eguna ospatzeko hainbat lagun elkartu ziren aprilaren 20an

Ibarreko eta horien lagunak Sant Jordi eguna ospatzeko elkartu ziren pasa den apirilaren 20an. Goizean elkartu eta, eguerdialdean, Santa Ana jatetxeen bazkaria egin zuten. Berez, 23an ospatzen da gaur egun Sant Jordi eguna, baina apirilaren 23a lanegu-

na izan zenez, egun batzuk lehenago ospatzea era-
baki zuten. Taldetxo bat elkartu zen, umeak eta guzti,
egun hori ospatzeko. Gehienak Arrasaten bizi bal-
din badira ere, Aretxabaleta, Bergara eta Elorrioko
katalanak ere egon ziren bertan.

"Gure herrian beste gauza garrantzitsuago batzuk botatzen ditut faltan"

graziarik egin Valentziako
eta Murtziako agintariei.
Nola ba, Polaris World-eko eta
Marina Dor-eko golf zelaiak
Ebroko urez bustitzeko ez die-
te baimenik ematen, eta Bar-
tzelonako biztanleek Ebroko
uretatik edan behar dute?
Badakizue, bakoitzak bere
zilborra baino ikusten ez due-
la, eta norberaren arazoak
besteenak baino handiagoak
direla beti.

Aurreko egunean Argiña-
no entzun nuen esaten guk
ura soberan daukagula eta
behar duenarekin trukea egi-
teko prest zegoela. Berak
urdaiazpikoak eskatzen
zituen uraren truke. Gure
herrian beste gauza garran-
tzitsuago batzuk botatzen
ditut faltan. Zuek? Nik horien
truke aldatuko nukeen sobe-
ran daukagun ura.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK



Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94



ZUZENDARITZA Argazkian, zuzendaritza talde berria.

SAN JOXEPE

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

San Joxepeko kargu banaketa berria, eginda

Apirlaren 18an egin zuten kargu banaketa berria; zuzendaritzak hiru esparrutan lan egingo du

JASONE ZABALA > BERGARA

Martxo amaieran zuzendaritza zati bat berritu zuen San Joxepe erretiratuen elkartea. Zuzendaritzako lehendakari berri Karlos Arrondo izendatu zuten. Kargu banaketa, baina, apirlaren 18an egin zen. Horrela gelditzen da, beraz, zuzendaritza batzorde

berria: Rosa María Garitano izango da lehendakariordea; Maite Suinaga eta Luis Larrañaga, idazkariak; Jose Ignacio Begiristain, diruzaina; eta Mari Carmen Otaola, María Eugenia Silanes, Joxe Garitano, Antolin Martxena eta Begoña Garitano izango dira elkarteko batzordekideak.

ASKOTARIKO JARDUERAK

San Joxepe elkartea, gaur egun, 1.650 bazkide ditu. Hiru esparrutan jarduerak ezberdinak egitea dute helburu: laguntza esparruan, adibidez, 87 urtetik gorako omenaldiak, eskulanak, margolanak, yoga, eta Mizpirualdeko egoitzara joatea. Aisialdi esparruan, berriz, mendi irteerak, bidaia eta jokoak; eta kultura esparruan, informatika eta kultura hamabostaldia dituzte.

ARGAZKILARITZA > LEHIAKETA

'Bergara Hiria' argazki lehiaketa martxan da

Aurtengoa 24. edizioa izango da, eta irabazoleak 180 euro sakeratuko ditu; aurkeztekoko azken eguna maiatzaren 15a

J.Z. > BERGARA

Lehiaketa honetan Euskadibizi den edozein zalek parte hartu dezake.

OINARRIAK

Gaia librea izango da, eta zuribeltz edo koloretako lau argazki aurkeztekoko aukera dago, forma-

tu bertikalean. Lanak maiatzaren 15a baino lehen udaltxera era man beharko dira, edo ondoren go helbidera bidali: Bergarako Udala, Errtotalde Kultura Etxea, Argazki Lehiaketa, 20570, Bergara, Gipuzkoa. Lehiaketa honek Argizaiola lehiaketako sailkapenerako baliagarria da.

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

- margo industriala
- margo orokorra
- margo dekoratiboa
- erreformak orokorean
- fatxadak

JAIAK > SAN PRUDENTZIOAK

Egitarau zabala antolatu dute aste bukaerarako

Mus azkar txapelketa, bertsolariak, trikitixa, meza eta txorizo eta salda ez dira faltako

J.Z. > BERGARA

Joan den aste bukaerako egitarauari jarrai pena emanez, aste bukaera honetan ere, Prudentzio Deunaren jaiak ospatuko dira Elorregi auzoan.

Atzo, eguna, makala altxatu zuten auzotarrek; gaur, berriz, 21:00etan mus azkarre-

ko txapelketa egongo da. Bihar, 14:00etan, auzo bazkaria Alkartasuna aretoan, Peñagarikano eta Amuriza bertsolariet eta trikitilariek alaituta; 22:00etan, erromeria alaia.

MEZA NAGUSIA

Domekan, 10:30ean, meza nagusia izango da auzoko ermitan, Alaia taldea abestuta. Jarraian, trikitixa, Bergarako Xamatz dantza taldea eta pilota jokoak izango dira. Eguna amaitzeko, berriz, nahi dute nentzat salda eta txorixoa banatuko da.



SAN PRUDENTZIO JAIAK Bihar auzo bazkaria egongo da.

GOIENKARIA

> JAIAK

Pazkoetan txosnak jartzeko eskaera epea zabalik dago oraindik

Pazko jaietan txosna jarri nahi dutenek eskaera egiteko epea zabalik dute oraindik. Bergarako irabazi asmorik gabeko edozein elkartek edo entitatek egin dezake eskaera.

Eskaera orriak udaletxeko bulegoan aurkeztu behar dira apirlaren 29ko 12:00ak baino lehen. Bidebarrin zortzi txosna jarriko dituzte gehienez, eta San Martin Agirre plazan beste bat. Txosna kopuru baino eskaera gehiago baldin badaude, zozketa egingo dute. Baita txosna bakoitzen zein kokagune dagokion adjudikatzeko ere.

> IRTEERA

Jose Luis Miner omentzeko, motor irteera dago etzi

Jose Luis Miner omentzeko motor irteera antolatu du, seigarren urtez Bergara Bike Elkarteak.

Etzi, domeka, egingo dute, eta honelakoa da egitaraua: 09:30ean gosaria eta 10:30ean irteera elkartearren lokaletik, ondoren: Elorregi, Oñati, Udana, Zumarraga, Matximenta, Urrestilla, Azpeitia, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibartik pasako dira. Elgoibarren lore eskaintza egingo diote, bere heriotzaren seigarren urteurren omentzeko. Jarraitu gura dutenek Zarautzera joango dira bazkaltzera.

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

EUSKARA > JARDUN

Berriketan-eko gurasoek, umea begiralearekin uzteko aukera

Berriketan programan parte hartzen duten gurasoei erraztasunak eman nahi dizkiete

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergaran mintzalagun programaren barruan, egitasmo berri bat jarri nahi dute martxan: Guraso-lagun. Egitasmo honen helburua da, Berriketan programan, gurasoak berriketan egiteko elkartzen diren bitartean, seme-alabak begirale batekin egoteko aukera iza-

tea, umea inora eraman gabe, eta gurasoek seme-alaben ardura izan gabe. Modu horretan, gurasoak lasai egongo lirateke. Umeek gutxienez bi urte izan dezatela eskatzen da. Berriketan programan, herriko hainbat lagun elkartzen da euren euskararen erabilera handitu nahian. Egitasmo hone-



GURASOAK Guraso-lagun egitasmoa bultzatu nahi dute Berriketan programan parte hartzen dutenek.

JARDUN

tan parte hartzen duen jendea astean ordu batez elkartzen da eta, euskaraz hitz egitearekin batera, paseatu, kafea hartu, herrian dauzen erakusketetara joan.

NORA ZUZENDU

Horrela, euskaldun zahar edo berriak direnak eta Berriketan eta Guraso-lagun egitasmoetan parte hartu nahi dutenek, informa-

zio gehiago izateko edo egitasmoetan apuntatzeko, Jardun Euskarra Elkartera deitza baino ez dute, ondorengo telefono zenbakira: 943 76 36 61.

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Ozaeta auzoan babestutako 32 etxe egiteko lanen hasiera maiatzera aurreratu da

Orubean jarri dituzte dagoeneko segurtasun hesiak, eta hondeatzailea ere hasi da dagoeneko lanean

J.Z. > BERGARA

Udalak eta Inmobiliaria Bittor SLko ordezkarri Bittor Alberdik martxoan erdialdean sinatu zuten Ozaeta auzoan babestutako 32 etxe egiteko hitzarmena.

HASIERA DATA AURRERATU

Lanak udazkenean hastekoak ziren, Bittor Alberdik martxoko sinadura ekitaldian azaldu zuen bezala, oraindik ere ez zituztela ko etxebizitzak eraikitzen hasteko beharrezkoak ziren baimen guztiak, eta udazken alderako aurreikusten zuen lanon hasiera. Gauzak, baina, aurreratu egin dira, eta dagoeneko asteon hasi



HESIAK Lanak egingo dituzten orubean jarri dituzte hesiak.

OIHANA ELORTZA

dira lanokin: lehenik, asteon, etxebizitzak hartuko duen 5.190 metro koadroko orubean hesiak ipintzen aritu dira, eta ondoren, hondeatzailearen bitarte, lurra mugitzen orubea egokitzeo. Beraz, eta Joseba Aizpurua, Uda-

leko agronomoa esan digunaren arabera, maiatzean hasiko dira lan hauekin. Honekin batera, Aizpuruak adierazi digunez, "momentuz, ez da bertako pasabiderik mozituko ezta trafiko norabiderik egokituko".

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

Ion Murgizu
Pinturak

Margoketa
orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behe • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

SANTOS



**Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TOPAGUNEA > KANPAINA

Dagoeneko abian da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa

Helburu nagusia euskarazko irakurketa bultzatzea da; hala, euskara elkartearen eta liburutegiarenean lankidetza beharrezkoa da

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoaren bigarren edizioa abian jarri du. Irakurketa sustatzeko asmoz sortu da egitasmoa, eta Hego Euskal Herriko 17 herrian egingo da, tarte-

an, Bergaran. Egitasmoaren helburu nagusia euskarazko irakurketa sustatzea da. Baina, bide batez, beste helburu batzuk ere lortu nahi dira: euskara elkartearako baziak diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltsaile aktibo bihurtzea; era asko-

tako eragile publiko eta pribatuuen elkarlana sustatzea, eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea. Ekimenak ekarpena egin nahi dio euskarazko liburugintzari, liburuunekoizpena eta salmenta bultzatzuz.

HIRU PAUSO

Herriko liburutegira joan eta euskarazko liburu bat maileguan hartzea da lehenengo pausooa. Kanpainak irauten duen bitarte-

an –uztailaren 26a arte–, liburua maileguan hartzen duen orremarkatzaile bat jasoko du opari, ekinenean parte hartu edo ez. Behin liburua irakurritakoan liburutegira bueltatu eta liburutegian fitxa bat bete beharko da; hala, %25eko deskontu txartela emango diote erabiltzaileari, hitzartutako liburu dendarera biltzeko. Azken pausoak liburua oparitzea da: norbaiti edo, zergatik ez, norbere buruari.

> MUSIKA
'Apirilean Musika' zikloko azken emanaldia da gaur

Gaur amaituko da *Apirilean musika* zikloa. Bergarako musika eskolak antolatuta, hainbat emanaldi eskaini dituzte azken asteotan. Gaur, arratsaldeko zazpietan, Zumarragako eta Bergarako konbo taldeak Antzuolako Olaran Etxean eskainiko du kontzertua.

Ondoren, zortzieta, klasiko bihurtu den kantu emanaldia izango da Sierbetako elizan. Musika eskolako kantu ikasleen eskutik hainbat musika estilosko gozatzeko aukera egongo da. Pianoaz gain, talde instrumental bat ere izango da abeslariei laguntzen.

Liburuaren eguna ospatzeko liburuak plazara atera zituzten

Nazioarteko Liburuaren Eguna aprobetxatuz, eguztenean, hilaren 23an, liburutegi zerbitzua plazara atera zuten. Goiz partean eguraldiak lagundu ez zuen arren, udaletxeko arkupetan izan ziren liburutegiko langileak. Han egin zituzten mailegu zerbitzuak. Jendea inguratu zen, batez ere, eskoletako umeak.

Arratsalderako eguzkia irten zen, eta arazo barik egin zuen Iñaki Martiarena *Mattin* ilustratzaileak erakustaldia herriko umeen aurrean.



ARANTZAZU EZKIBEL

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Kabutzia

ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Mujika
gozategia


Bizkotxoak
Erreilenaoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34


BERGARA
Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



1929az geroztik zure zerbitzura

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

Autoak

Egubakoitza / 2008ko apirilaren 25a / **Arduraduna:** Iker Barandiaran / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



ARGAZKILARIA: SAQUAN STIMPSON



profesionalak zure etorkizunaren zerbitzurako

Otalora Lizentziaduna, 5 behe - 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel. 943712454 - Fax 943771074
Mail: mikellasa@mikellasa.com - Web: www.mikellasa.com

Chevrolet HHR berria. Familiako bihurria.



Chevrolet berri bat, estilo klasikoa gaur eguneko auto modernoen ekipamenduarekin konbinatzen duena. 1949 urteko Chevrolet Suburban autoan inspiratua. Auto handi bat gama handi batera lotua. Giauto-tik Chevrolet HHR autoaren espiritu bihurria probatzera gonbidatu nahi zaitugu. Chevrolet gehiago da.

www.chevrolet.es

Informazioa 902 303 900

GEHIAGO DA. 
CHEVROLET

Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

■ NAZIOARTEKO FERIA

Autoekin gozatzeko paradisua Madrilen

IKER BARANDIARAN

Madrilgo Nazioarteko Auto-erakusketa da Espainiako Estatuan autoen gainean egiten den garrantzi-suena. Maiatzaren 23tik ekainaren 1era bitartean han batuko dira munduko marka esanguratsuenak euren berrikuntzak erakustera. Baino era-kusketa hori ez da bakarrik ikusteko, esku hartzeko baizik.

Aurtengo Madrilgo Nazioarteko Auto-erakusketa maiatzaren 23tik ekainaren lera egingo dute. Edizio honetan bisitariek esku hartzeko ahalegina egin dute antolatzaileek. Hala, ekintza ugari egingo dituzte azokaren baitan.

Areto erraldoiak 80.000 metro koadro izango ditu, eta horren barruan auto markek aurkeztu-

ko dituzten berrikuntzez gain, bestelakoak izango dira: auto probak egiteko zirkuituak, gida-tzea hobetzeko eskola teoriko eta praktikoak, txikiendako eskolak, kartsen zirkuitu erraldoia, gutxiago kutsatzen ikasteko eskolak, lur orotako ibilgailuen probak, hainbat markatako *box*-ak eta beste.

AUTOEN MUSEOEI OMENALDIA

Horrez gain, aurten, antolatzai-leek omenaldia egingo diete autoak zaintzen dituzten museoei. Hala, lau museotatik bilduma oso bereziak eramango dituzte: bertan ikusi ahal izango dira Dodge Dart 270 edota Delahaye 1908 autoak, besteak beste. Eta horren inguruan, *Area performance* izeneko erakusketa ere ipiniko dute. Azken horretan lehenengo aldiz Espainiako Esta-

tuan ikusgai izango dira munduko auto pertsonalizatu onenak, parekorik ez dutenak.

GUNE BERDEA

Ekologiak eta ingurumenak duten garrantzia jabetuta, aurteno edizioan Espacio verde (Gune berdea) izeneko gunea ipiniko dute. Esparru horretan jasangarritasunarekin lotuta autoek izan duten bilakaera eta azken aurrerapenak azalduko

dituzte. Are gehiago, gune berean hidrogeno edo bioerregai bidez dabilzan ibilgailuak ikusi eta probatu ahal izango dira.

Horrekin batera, beste auke-rra bat izango da gura duten bisi-tariei gutxiago kontsumitzeko trikimaluak erakustea: hala nola, martxak aldatzea, frenatzeko modu desberdinak eta beste. Hala ere, Madrilgo Nazioarteko Auto-erakusketa sorpresaz bete-dago non-nahi.



Madrilgo Nazioarteko Auto-erakusketa, autoak ikustearaz gain, probatzeko aukera egoten da.

IFEMA

Jakin beharreko argibideak


Egunak: Maiatzaren 23tik ekainaren 1era arte egunero dago zabalik.

Orduetegia: 11:00etatik 21:00etara. 23a salbuespena da: 14:00etatik 21:00etara.

Sarrera: 8 euro aste barruan eta 10 euro asteburuan.



KIA MOTORS



CARNIVAL



SPORTAGE



cee'd

Tecnocar

Honda eta Kia
banatzailea ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
Tel.: 943 79 22 67
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- AUKERA MUGATUA
- HILABETEKO PROMOZIOAK
- 0 KM

*Prever plana barne.

HONDA

The Power of Dreams

HONDA CIVIC



HONDA ACCORD



www.euskoauto.toyota.es



Gidatu zure barrenak eramaten zaituen lekuraiño,
150 €-tik aurrera hilean.

84 kutoa | UTB %4,90 | Sarrera: 4.963 €



Auris. Toyota berria.

Sentsazioak batzuetan ezin dituzu ulertu, eta zergatik ezin duzu sentitzen duzuna egin?

Bideratu zure sentsazioak Aurisn batekin, ezagutu eskaintzen dizuna, bere potentzia eta gozatu bere barruaz.

Nahiago baduzu Auris Toyota bat daukazu 13.550 €**-tik aurrera
www.euskoauto.toyota.es


TODAY TOMORROW **TOYOTA**



**GARANTÍA
3 AÑOS**
o 100.000 Km.

**FINANCIAL
SERVICES**



Información y prueba:
902 342 902

Kontzesionarioa

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

*Toyota Auris 1.4 Disela 3 ate, 90 ZP. Publikoarentzako salmenta prezioa 15.650 . BEZA matrikulazio zerga, promozioa eta kontzesionarioak gehitutakoa barne. Finantzazioa: 84 hilabetetara (150 -tako 84 kuota). Sarrera 4.963 . Hasierako komisionik gabe. TIN %4,79. UTB %4,90. Atzeratutakoaren totala 17.563 . Eskaintza baliagarria 08/04/30 Penintsula eta Balear uharteetarako biltegian dauden autoendako. Eskaintza finantzaria Toyota Kreditbank GmbH Espaniako sukursala. R.E.B.E 08/14238 zenbakia ** Toyota Auris 1.4 3 ate, 97 ZP. Publikoarentzako salmenta prezioa Penintsulan eta Balear uharteetan biltegian dauden autoendako. BEZA, matrikulazio zerga, promozioa eta kontzesionarioak gehitutakoa barne. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Iragarkiko modeloa: Toyota Auris "Sport" 2.2 Diesela 5 ate 177 ZP. Kontsumo mistoa: 6,2l / 100 km. CO2 emisioa 164 g/km.

EUSKARA > KALE NEURKETA

Herritarren %43,9k egiten du berba euskaraz kalean Aretxabaletan

Umeak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, baina umeen artean jaitsiera handia igarri dute 2001etik hona, 13 puntuko

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Euskararen kale erabilera neurketa egiten du Udalak 1990 ezkerotik, bi urtero, hain zuen. Soziolingustika klusterrak egin du aurtengo kale neurketa, otsailoko azken astean eta martxoko lehenengoan; 10 ordu, guztira. Emaitzen berri eman zuen martitzenean. "Aretxabaletako kale erabilera argazkia ateratzea da helburua, konponbideetan sartu barik", adierazi zuen klusterreko teknikari Asier Basurto.

Behaketa zuzena erabili dute neurketa egiteko, hau da, kalean berriketan daudenak haindik konturatutu barik entzutea. Horretarako, bost neurtzaile profesional ibili dira lanean, Udalak jarri-

tako lagunzaile birekin, eta 1.523 lagun behatu dituzte, bost faktore hartuta kontuan: sexua, adina, gunea, umea aurrean dagoen eta umeak ere berba egiten duen.

GAU GIROA EUSKALDUNENA

Aretxabaletako euskararen erabilera %43,9 da. 18 urteotako neurketei begiratuta, mantendu egin da. Ezagutza, ostera, %64,9an dago -2001eko datua, geroztik ez delako egin. Herriko hainbat gunetan egin dituzte behaketa, eta azoka dela eraldunena jakinarazi dute (%25). Gainerako ibilbideetan, antzeko emaitza jaso dute (%45) eta gau giroa dugu euskaldunena (%64):



AURKEZPENA Soziolingüistika klusterreko Asier Basurto aurkeztu zituen neurketaren emaitzak, martitzenean. MIRARI ALTUBE

"Horrek adierazten du gazteak direla talde euskaldunenetako", esan zuen Basurto. Azken neurketatik 10 puntuko igoera izan du gazteen erabilera.

Hala, adinari erreparatuta, umeak, 2-14 urte, (%53,7) eta gazteak, 15-24 urte, (%51,7) dira gehien erabiltzen dutenak, eta helduak (%38,9) eta adinekoak (%39,3), gutxien. Eta sexua kon-

tuan hartuta, emakumezkoek (%42,9) baino gehiago egiten dute gizonezkoek (%45,2): "Baina 2,3 puntuko aldea ez da esanguratsua", esan zuen Basurto.

UMEAK 13 PUNTU BEHERA

Behaketa egiterakoan umeak aurrean dauden edo ez ere hartu dute kontuan, eta ikusi dute alde handia dagoela: ume barik

(%30) askoz gutxiago jarduten dute helduek euskaraz, umea aurrean egonda baino (%53,6). Datu kezkagarriena, baina, umeak eman dute: 2001etik hona, 13 puntu jaitsi da erabilera umeen artean. Adin talde euskaldunena izaten jarraitzen du oraindik, baina arretaz egin beharko zaiela jarraipena gaineratu zuen Basurto.

LANAK > ERREPIDEA

Konpondu dute Arrasatera doan errepeidea

Martitzenean hasi eta bukatu zituzten lanok; orain, seinaleztapena jartzea falta zaie

M.A. > ARETXABAleta

Aretxabaletatik Arrasatera doan GI-3920 errepeidea konpondu du Aldundiak. Martitzenean hasi zituzten lanok –zorua kendu eta asfaltoa bota–, eta martitzenean bertan bukatu. Hilabeteetan egon dira herritarak noiz konponduko zain, eta egun bateko kontua izan da. Seinaleak jarri behar dituzte orain –horizontalak eta bertikalak–, baina egun batzuk itxarongo dute asfaltoa behar bezala finkatzeko.

ZULO ASKO ETA SEINALERIK EZ

Egoera eskasean zegoen errepeidea: zuloak gero eta gehiago eta handiagoak, eta inolako seinalerik ez, nahiz eta ibilbidea aldauta izan, autobideko lanengatik. Herritarra behin eta berriz kexatu izan dira azken hilabeteotan, eta Udalak eskaera bat baino gehiago egin zion Aldundiko Errepide Sailari. Hala ere, hilaren 17an, alkateak aurrez aurre egon arte, ez zuten konpontzeko asmorik azaldu.



ERREPIDEA Konponduta dago GI-3920 errepeidea. MIRARI ATLUBE

> EUSKARA
Errenta aitorpena euskaraz egiteko dei egin du Udalak

Errenta aitorpena euskaraz egin daitekeela jakinarazi gura die Udaleko Euskara Sailak herritarrei. *Nora begira zaude? Errenta aitorpena egizu euskaraz!* kanpaina abiarazi du, eta horretarako dituzten zerbitzuen berri eman die diptiko baten bitarte. Arratabe udal aldizkariarekin banatu dute hori.

Aitorpena autolikidazio bidez, mekanizatua eginda, telematikoa edo nork bere bidetik, beti eska daitekeela euskaraz jakinarazi du Euskara Sailak; eta, askotan, eskatzea erabiltzailearen ardura dela gaineratu du.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

garbittu@euskalnet.net



ZERBITZU OROKORRAK Arizmendiko langileak, egoitzia aurrean, kalitatearen ziurtagiria eskuan dutela.

MIRARI ALTUBE

SARIA > KALITATEA

Arizmendiko zerbitzu orokorrendako, ISO 9001

Ikastolako zerbitzu orokorrekin Aenorren ISO 9001:2000 ziurtagiria lortu dute, eta orain dela hiru urte Lanbide Heziketak jasotakoa berretsi

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Era apalean baina pozik jaso zuten Arizmendi ikastolako zerbitzu orokorretako langileek kalitatearen merezimendua aitortzen duen ISO 9001:2000 ziurtagiria. Era berean, Lanbide Heziketak orain dela hiru urte jasotakoa berretsi zuten. Ekitaldia joan zen egubakoitzean izan zen, zerbitzu orokorretan, Aretxabaletan.

Arizmendiko zuzendari Txaro Iraeta Lanbide Heziketakoak izan zituen gogoan: "Orain dela hiru urte zabaldu zuten bidea, eta haien esperientzia konuan hartzeko izan da". Era berean, onartu zuen bide samurra ez dela izan: "Eztabaida asko izan ditugu, baina hain zaila ere ez da izan, langileen profesionalitasun eta izaeragatik, eta dauagun lan

giroagatik. Zerbitzuetakoek lan isila egiten dute, baina garrantzitsua". Gainera, pozik azaldu zen "lortutako pausoak lana gero eta hobeto egiten laguntzen duelako".

Bere aldetik, Aenorko zuzendari Luz Enparanzak esan zien elkartutako langileei erakunde-en baliabideak eta prozesuak optimizatzen direla ziurtagiria-rekin: "Langileen eguneroko lana hobetuz, zerbitzu maila hobetza da helburua".

Ekitaldia bukatzeko, ziurtagiria jaso zuten Enparanzaren eskutik, eta argazkia atera zuen zerbitzuetako lan taldeak.

KIROLAK > XAKE ESKOLAK

Xakean jokatzen ikasi gura duenak eguenetan dauka aukera, Iralabarri plazan

Arlutz xake taldeko Aitor Alcaidek ematen ditu eskolak (17:30-20:00), eta datorren denboraldirako talde bat osatu gura du

M.A. > ARETXABAleta

Azaroaz geroztik ematen ditu xake eskolak Aitor Alcaide aretxabaletarrak. Hala ere, ateaek zabalik ditu ikasteko interesa duen edonorendako. Eguenetan elkartzan da ikasleekin Iralabarri plazako lokalean (17:30-20:00).

9 eta 13 urte arteko lau ikasle ditu Alcaidek -Eskoriatzakoak eta Aretxabaletakoak-, eta oso gustura joaten dira xakean jokatzen. Lehenengo ikasgia arauak eta mugimenduak ikastea da eta, gero, taktikak eta estrategiak datoz: "Aurretik bage-



XAKEAN Irakaslea begira dutela, gaztetxoak xakean jokatzen.

M.A.

nekien jokatzen, baina orain, askoz hobeto", diote ikasleek. Hala, hainbat txapelketan haritu dute parte, eta Arrasateko eskola arteko txapelketan, finalerako sailkatu ziren kimuen eta

haurren mailan. Alcaideren asmoa da datorren denboraldirako taldea osatzeari: "Lau lagunekin nahikoa da, baina hobe da bostketa izatea; hala, txandak egingo dituzte, eta atsedean hartu".

ZERBITZUAK > KIROL ETXEA

Jarduera berriak eta ordutegi zabalagoa daude kirol etxeen

Gaur, egubakoitza, gazte batuka jarriko dute abian 16 urtetik beherakoendako, eta maiatzean, spinning saio gehiago

M.A. > ARETXABAleta

Udaberrian bete-betean sartuta gaude eta, aretxabaletarren kirol gosea ase guran, jarduera berriak jarriko ditu abian Goiena Sport enpresak, kirol etxeen. Gaur, egubakoitza, gazte batuka hasiko dute 16 urtetik beherakoendako: "Helduendako badaukagu batuka, baina gaztetxoendako jarri gura dugu abian, eskaera handia izan dugulako", dio Goiena Sporteko zuzendari Bixen Calzonek. Izan ere, aerobikeko mugimenduak eta dantza uztartzen dituen jarduera oso gustuko dute gaztetxoek.

LEKUA HAINBAT JARDUERATAN

Era berean, arrakasta handia duten jardueren saio gehiago jarriko dituzte: "Spinningaren kasuan, maiatzetik aurrera saio gehiago egongo dira, eta horrek esan gura du ordutegi aukera zabalagoa", dio Calzonek.

Beste jarduera batzuetan, ostera, lekua dago gura denean sartzeko taldean. Hona hiru: tonifikazioa, multifitness eta aerobika. Eta entrenamendu pertsonalizatuak bultzatu gura dituzte berriro: "Udara begira, kilotxoak kendu gura izaten du jende askok, eta era pertsonalizatuak kirola egiteko aukera eskaintzen du horrek", argitu du Calzonek.

Aipatutakoez gain, beste jarduera asko dituzte kirol etxeen, eta hainbat ordutegi. Horregatik, interesa izanez gero, kirol etxera joateko argibide eske esan digu Calzonek: "Telefonoz baino askoz hobeto azalduko diote jardueren taula aurrean dutela, eta, hala, ordutegi egoiena aukeratu ahal izango dute erabiltzaileek".

IRALEAN, ILARGI PLAZAN

Abuztu edo irail inguruan, bota egingo dute kirol etxea, berria egiten hasteko. Hala ere, jarduerak ez dute aldaketa handirik izango. Ilargi plazan dagoen Zainduz fitness zentroa erosiberri du Udalak, eta, irailetik aurrera, bertan izango dute jarraipena kirol jarduerek. Hala ere, ikasturte berria hasiko du Goiena Sportek irailean, eta orduan emango du kirol eskaintzaren berri.

> AISIALDIA

Liburu azoka txikia egingo dute bihar Algara ludoteka aurrean, 11:00etatik 13:00etara

Liburuaren Nazioarteko Eguna pasatu da astean (apirilak 23), eta herriko umeek bihar ospatuko dute. Liburu azoka txikia antolatu du Gazteria Zerbitzuak, eta Gernika plazan, Algara ludoteka aurrean, jarriko dute. Liburuak hartzeko aurrekrik jasota daukaten txartela eroan behar dute ume eta gaztetxoek.

> IKASTAROA

Beinke-Loramendi dantza entseguak, maiatzaren 7an eta 14an (19:00), Basabeazpin

Maiatzaren 17an ospatuko duten Euskaran Egunean, Beinke-Loramendi dantza egitea gura du Loramendi EEk. Horretarako entseguak antolatu dituzte, eta eguztenean hasi zituzten. Maiatzeko lehen eguztenetan jarraituko dute entseguokin: maiatzak 7 eta 14 (19:00). Basabeazpi ikastolan dira, eta Loramendi Dantza Taldeko kideak dabilta erakusten.

> ERRETIRATUAK

Maiatzaren 7an, eguztena, Iratxera (Nafarroa) joateko txartelak salgai dituzte Basotxon

Basotxo erretiratuen elkarrean irteera antolatu du maiatzaren 7rako, eguztena. Nafarroa erdian dagoen Iratxe eta inguruak -Lizarraga, Aiegi...- ikustera joango dira. Autobusa 09:00etan aterako da Aretxabaletatik, eta 20:30 aldera itzuli. 24 euro da irteeraren kostua. Argibide gehiago gura dutenak Basotxoko egoitzatik pasa daitezela goizetan.

LANAK > NATURA-BIDEAN

Barandak eta bi behatoki, Arantzazu eta Gomiztegi arterako

Lanok egiteko
105.000 euroko
aurrekontua onartu du
Oñatiko Udalak

Proposamenak
aurkezteko epea
maiatzaren 7an
bukatuko da

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Foru Aldundiko Landa Inguru-
meneko departamentuak Aran-
tzazu eta Gomiztegi artean egin-
go duen bide egokituko lan batzuk
Udalak hartuko ditu bere gain.
Hain zuen, zurezko baranda eta
bi behatoki jartzeko lanak ordain-
duko ditu.

Apirilaren 11n Gipuzkoako
Aldizkari Ofizialean kaleratu zen
deialdiak jasotzen duenez, gehie-
nez, 105.000 euro gastatuko ditu
Udalak lanok egiteko; era bere-
an, bi behatokiek 18 metro koa-
droko teilatua izan behar dutela
eta egurrezko barandak luzeran
1.200 metro izan behar dituela
zehazten dira. Hain zuzen, altza-
ri horiek 1.865 metro izango
dituen bidean jarriko dituzte.

MAIATZAREN 7RA ARTE

Lanak egin nahi dituzten enpre-
sek maiatzaren 7ra arteko epea
dute proposamenak aurkezteko.
Alde batetik, proposamen ekono-
mikoa aurkeztu behar dute, eta,
beste alde batetik, horrelako
lanak egiteko duen gaitasuna
erakutsi beharko dute. Esleipe-
na egin ondoren, hiru hilabete-
ko epea izango dute barandak eta
behatokiak egiteko.



NATURA-BIDEA Gomiztegitik Arantzazura doan bidea egokituko dute.

KONTZEJUPETIK

ARANTZAZU-GOMIZTEGI

Ezinduendako erosotasun eta segurtasun baldintzak dituen bidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak natura-bide egokituen
sarea osatu nahi du Aizkorri, Aralar, Pagoeta eta
Aiako Harria parkeetan. Horren harira, Arantzazu eta
Gomiztegi arteko bidean hainbat berrikuntza lan
egingo dituzte. Ibilbideak 1.865 metro ditu; horietatik
1.125 menditik doaz, eta gainerako 740 metroak
asfaltatuta daude. Egitasmo honen helburua da
ezgaitasunen bat (fisikoa, ikuasmenekoa, entzumene-
koa edo intelektuala) duten pertsonek naturaz gozatu

ahal izateko erosotasun eta segurtasun baldintzak
betetzen dituen ibilbidea prestatzea. Arantzazu eta
Gomiztegi arteko bidea egokitzeko lanek 910.000
euroko aurrekontua dute. Horietatik, 211.000 euro La
Caixa Fundazioak jarriko ditu; 600.000 euro, Gipuzko-
ako Foru Aldundiak, eta gainerakoa, Oñatiko Udalak.

Natura-bide egokituan, besteak beste, braillez
idatzitako plaka informatiboak egongo dira ikusmen
arazoak dituztenendako.

XI. promozioko diplomak banatu zituzten Artzain Eskolan

Gomiztegin dagoen Artzain
Eskolan diploma banaketa
ekitaldia egin zuten apirilaren
17an. Hain zuzen, XI. promozioan
parte hartu duten 13 ikasleek jaso
zituzten diplomak eta makilak.

Urrian hasitako ikastaroan
parte hartu duten ikasle gehienak,
bederatzi, hain zuzen, Euskal
Herrikoak dira. Gainera, Txileko bi
ikaslek eta Madrilgo eta AEBetako
ikasle banak egin dute ikasturtea
Gomiztegiko Artzain Eskola
berrituan.



MARIAN GONZALEZ

IKASTAROA

Adineko pertsonak zaintzeko ikastaroa

Foru Aldundiko
Gizarte Politikarako
departamentuak
antolatu du

M.B. > OÑATI
Mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiendako prestakuntza ikastaroa egingo dute Oñatin. Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi izeneko ikastaroaren helburua da zaintza lanak egiten dituzten pertsonei laguntza eta prestakuntza ematea. Aldundiko Sendian izeneko programaren barruan antolatu den ikastaro hori maiatzaren 5etik 9ra emango dute. Horren harira, bi orduko saioak egingo dituzte egunero, 15:00etik 17:00etara, eta sei gai landuko dituzte.

Lehenengo egunean, mendekotasuna duten pertsonen arazoei buruz egingo du berba osasun zentroko mediku batek. Bigarren saioan, gai-xoa nahiz zaintzailea erlaxatzeko teknikak azalduko dituzte. Gaixoen zainketa errazten duten baliabide teknikoei buruz egingo dute berba hirugarren saioan. Laugarrnean, gizartean dauden baliabideei buruz jardungo dute, eta azkenekoan tutelari eta ezintasunari buruzkoa izango da.

IZENEMATEA, ZABALIK

Ikastaroa 60 urtetik gora
dutzen gaixoak zaintzen dituzten
pertsonendako da. Dagoeneko,
izenemate epea zabalik dago gizarte zerbitzueta-
ko bulegoan, eta gehienez 20 lagun hartuko dituzte.

Sendian programa duela
11 urte jarri zen martxan, eta,
egun, ia Gipuzkoako herriguztietara zabaldu da. Hain zuzen,
83 udal dira Gipuzkoako Foru
Aldundiarekin lankidetza
hitzarmena sinatu zutenak.

Programaren helburu
nagusia da adineko mendeko
pertsonak zaintzen dituzte-
nei eskura dituzten baliabide-
en berri ematea.

Horretarako, prestakuntza
ikastaroak ematen dituzte.
Era berean, eskaintzen
dutene beste jarduera bat
laguntzarako taldeak dira,
adineko mendeko pertsonak
zaintzen dituzten familien
artean komunikazioa eta
harremana lantzen. Gainera,
Sendia programak bana-
kako tratamendu psikologiko
saioak eskaintzen dizkie gai-
xoен familiakoei.

ONDAREA > HISTORIA

Atxorrotzen gaineko jardunaldiak egingo dituzte

Erdi Aroko historiaren gaineko bi adituk Atxorrotzko gaztelua izango dute berbagai


Ibarraundik eta Aitzorrotz kultura elkartea antolatu dute, beste talde askoren laguntzarekin

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Atxorrotz menda Eskoriatza herriari zelatan dago betidanik eta, akaso horregatik, zeresan oso berezia dauka eskoriatzaurrendako. Horren jakitun, Ibarraundi museoko arduradunek eta Aitzorrotz kultura elkartea Atxorrotzen gaineko jardunaldiak antolatu dituzte, Amuska emakumeen taldea, Olazar erretilatuen elkartea, Tortolis ludoteka eta Udalaren laguntzarekin.

Jardunaldiak aurkezteko, martitzenean, hilaren 29an, ospakizun berezia egingo dute Herriko plazan, 18:00etan. Musika, sagardoa, pintxoak, Atxorrotzeko gazteluaren marrazki erraldoia, umeendako Erdi Aroko talierrak eta beste egongo dira.

Maiatzaren 6an hasiko dira ekitaldiak. Iñaki Sagredo ikerlariak berbaldia egingo du Ibarraundin, 19:00etan. Ikerlari horrek 10 urte daramatza Nafarroako Erresumako gazteluen gaineko ikerketak egiten, eta iaz *Navarra, castillos que defendieron el Reino* liburuaren hirugarren atala argitaratu zuen. Berbaldia *Nafarroa-ko gazteluak* dokumentalarekin hasiko du, eta jarraian *Castillo de Aitzorrotz. Historia y posible recuperación* delako berbaldia egingo du.

BI BERBALDI, MAIATZ HASIERAN
Bestalde, maiatzaren 8an, eguna, beste hitzaldi bat egingo dute: Iñaki Padilla Ibarraundin izango da 19:00etan. Bartzelonako



GAZTELUA Adituen esanetan XII. mendeko aipamen idatziek Atxorrotzko gaztelua dute berbagai.

IÑAKI SAGREDO

Unibertsitate irakaslea eta Unibertsitateko Erdi Aroko Historia, Paleografía eta Diplomatika departamentuko zuzendaria da Padilla. *Espacio de frontera: las fortificaciones alto medievales de Gipuzkoa* gaia izango du berbagaia Padillak Eskoriatzan egingo duen berbaldian. Antolatzaileek

jakinarazi dute Eskoriatzaren gaineko aurreneko aipamen idatziak XII. mendekoak direla, Atxorrotz mendi tontorrean zegoen gazteluaren gainekoak, hain zuzen ere.

Adituen esanetan, 1200. urteara arte Nafarroako Erresumako kokaleku estrategikoa izan zen.

Horregatik eta beste arrazoi batzuengatik, Atxorrotz Eskoriatzaren historiaren zati handi bat da, eta hori da antolatzaileek herritarrei erakutsi gura diteena. Hala, konturatu dira Atxorrotzen gainean interes handia duten hainbat aditu ere badirela azalpenak emateko prest.

MUSIKA > KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Musika Bandaren kontzertua parrokian

Azken urteotan moduan, San Pedro parrokian egingo dute emanaldia 20:00etan, meza bukatu ostean, eta hainbat pieza eskainiko dituzte

I.B. > ESKORIATZA
Bihar, zapatua, Eskoriatzako Musika Bandak Udaberriko kontzertua egingo du San Pedro parrokian, 20:00etan.

20 urtetik gora darama Bandak urteroko hitzordu horretan herritarrendako musika emanaldia egiten. Urte askotan kalean egin zuten, aire librean, baina orain dela hiru urte parrokian egiten hasi ziren. "Lehen, eguraldiaren menpe egoten ginen, eta gainera, ez zen oso leku ego-



MUSIKARI FINAK Argazkian, Eskoriatzako Musika Banda argazkilariaren posatzen.

ESKORIATZAKO MUSIKA BANDA

kia. Horregatik, parrokiara aldatu genuen, eta herritarrek oso gustura egoten direla esaten digute, baita gu ere", azaldu du

bandako musikari beterano Imanol Andetxagak. Andetxagaren batera, beste 32 musikari eta Angel Bañares bandako zuzen-

daria arituko dira. Gazteenak 12 eta 15 urte bitartekoak dira, eta helduenak, berriz, 29tik gorakoak 60 urterar arte.

EMANALDIA, MEZA OSTEAN

Meza bukatu ostean egingo dute kontzertua, San Pedro parrokian. Hiru ordu laurden inguruko kontzertua egingo dute, eta honako piezak izango dira entzungai: J. Molinaren *Ingratitud*, Jan Van Derrosten *Helios*, F. Berriaren *Memory*, Johan Nigsen *Concerto dynamico*, John Sligoren *The best of Bob Dylan* eta beste.

HITZORDU ASKO URTEAN ZEHAR

Udaberriko kontzertura jende asko joaten da, 80-100 lagun inguru. Baina ez da hori izaten Eskoriatzako Musika Banda ikusi eta entzuteko aukera bakarra. Hain zuzen ere, urtean beste hainbat emanaldi egiten dituzte: Santa Zezilia eguneakoa, Gabonetakoak eta San Pedrotakoa.

Horrez gain, herriko umeen eta helduen danborradetan, bietan, eta jaietako kalejiran ere esku hartzen dute bandako musikarieki.

GIZARTEA > ISLAMAREN GAINeko KULTURA EKINTZAK

Islamaren gainezko erakusketa, tailerrak eta berbaldia egingo dituzte

Maiatzaren 9tik 29ra bitartean, 'Islamaren guztioa ondarea', ikusgai Ibarraundin

Horrekin lotuta, Palestinaren gaineko berbaldia egingo dute maiatzaren 5ean

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Elkar Hezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako lan-taldeak, Euskal Herritar Arabiar eta Libiar elkartearren laguntzarekin, *'Islamaren guztioa ondarea'* ekimena prestatu du. Maiatzean Eskoriatzako Ibarraundi museora eramango dute ekimen hori. Hain zuzen ere, maiatzaren 9tik 29ra bitartean, erakusketa eta tailerrak egongo dira bertan.

DIAPORAMA ETA BERBALDIA

Horrekin lotuta, maiatzaren 5ean, astelehena, Gorka Quevedo kazetari eta Komite Interna-

zionalistak taldeko kideak *'Palestina, 60 urte erresistentzian'* berbaldia egingo du Ibarraundi museoan, 17:30ean.

Hitzaldia egiteko, Palestina-koko gatazka erakusten duen diaporama erabiliko du.

KULTUREN EZAGUTZA SENDOTU

Eskoriatzaren helburua da islamiar kulturaren ezagutza sendotzea, eta horren gainean dauden aurreiriztiak apurtzea. Batez ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago erakusketa, baina gainontzeko publikoaren dako ere apropoa dela uste dute antolatzaileek.

USAIMENA ETA ENTZUMENA LANDU

Erakusketa jarritako panel edo taulekin informazioa emateaz gain, beste zentzumenak ere erabiliko dituzte kultura horretan barneratzeko: hala, usaimena-ren bitarbez, islamiar herrialde-ekako esentziak ezagutu ahal izango dira; eta hango musika ere izango da entzungai.

ISLAMIARRAK GONBIDATU

Horrez gain, herrialde horietako dantza propioak eta arabiar kaligrafia mota lantzko tailerrak ere jarriko dituzte, gaztetxoek edo besteek, ezagutu eta gura iza-nez gero, ikas ditzaten.

Modu berean, antolatzaileen asmoa da hemen inguruan bizi diren islamiar pertsonei taile-rrretan esku hartzera gonbida-tea; hala, horiek aukera izan ditzaten hemengo interesatuei euren esperientzia azaldu eta transmititzeko; eta, bide batez, euren kulturarekiko aurreiriztiak apurtzen dituzten eta gehiago jakin gura duten jendea dagoela ikustea. Elkarlan horrekin muga asko apurtu daitezkeela uste dute Elkar Heziketa ardura-dunek.

TAILER INTERAKTIBOAK

Erakusketa ibiltaria dugu hau, eta bederatzi multzotan banatu-tako 36 panelek osatzen dute. Panel horietan, islamiar gizartearen alderdi guztiak azaltzen dituzte, eta argazki eta ilustrazio askorekin jantzia dago. Horrekin batera, interaktiboak diren hainbat gailu ere batu dizkiote: usaimena lantzko hiru mahai, arabiar kaligrafia garatzeko bes-te mahai bat, eta bisitariek osatu dezaketen buru-hausgarri erraldoi bat, arkitektura islamia-rean gehien erabiltzen diren elementu geometrikoekin.

ERAKUSKETA IBILTARIA

Eskoriatzara heldu aurretik, *'Islamaren guztioa ondarea'* Madrilen, Almerian, Escorialen, Granadan, Caceres-en, Leonen eta Espainiako beste hainbat hiritan egon da ikusgai. Eskoriatzako bukatu bezain laster, Barakaldoko BECe-ra eramango dute, eta, horren ostean, beste hainbat geltoki izango diru erakusketak.

Antolatzaileek uste dute guztiok daukagula asko ikasteko: ikasleek, irakasleek, gurasoek eta beste edozeinek.

ANTZERKIA > 'TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN'

Umorezko ikuskizuna egingo du Aitziber Bilbao aktoreak Huheziko areto nagusian

Bartzelonan eta Hegoamerikan eskarmentu handia hartu du Bilbaok

Gazte eta helduei zuzendutako ikuskizuna da, umorezko esketxekin

I.B. > ESKORIATZA
Gaur, egubakoitza, Aitziber Bilbao aktoreak *'Txapela buruan eta ibili munduan'* antzezlana euskaraz egingo du Huheziko areto nagusian, 22:30ean.

Antzezlana espanolez idatzi zuen, *'Carretera y manta'* izenpe-an, baina, zenbait lekutan, euskaraz egiten du, eta Eskoriatza izango da horietako bat.

UMOREZKO IKUSKIZUNA

'Txapela buruan eta ibili munduan' umorezko ikuskizuna da, eta hiru esketxez osatuta dago: bat, Brasilera egindako bidaia da; beste bat, maitasunaren gaineko gorabeherak; eta hirugarrena, izuaren tunela. Ikuskizunean aktore bakarrak egiten du lan: Elorrion jaiotako Aitziber Bilbaok, hain zuzen ere.

Bilbao 16 urterekin hasi zen Geroa antzerki taldean, Paco Obregonen zuzendaritzapean. 20 urterekin, berriz, Bartzelonara bizi izatera jo zuen, eta Col-legi



AITZIBER BILBAO Aktore bakarrak lan egiten du umorezko *'Txapela buruan eta ibili munduan'* ikuskizunean.

AITZIBER BILBAO

del Teatre-n, teknika eta modali-tate ugari ikasi zituen, eskar-menutu handiko irakasleekin: Peter Gadish, Boris Rottenstein, Berty Towas, Jango Edwards eta Virginia Imaz, besteak beste.

Ordutik, Bilbao ez da gelditu, eta antzokietan, telebistan zein zinemaren lan egin izan du:

hala, *Geroa*, *Gibrish* eta *Clasic* antzezlanetan esku hartu du; *Circo Europa* eta *Magbeth* klown ikuskizunetan parte izan zen; eta *Goenkale-ko* hamar kapitulutan eta Txileko *Cherif* filmean ere aktore lanak egin zituen. Kon-tuan hartu behar da, gainera, Bartzelonako egonaldiaz gain,

Hegoamerikako jaialdi garra-nantzuetan ere ibili dela ikuskizunak egiten: Buenos Airesen, Salvador de Bahian eta beste leku batzuetan.

Aspaldi honetan, *'Txapela buruan eta ibili munduan'* zein *'Carretera y manta'* ikuskizunekin buru-belarri dabil.

HEZKUNTZA

Waldorf sistemaren gainezko berbaldia

Lehen Hezkuntzako umeek dituzten beharretaz arituko dira Huhezin

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, *'Haurraren benetako beharrak lehen hezkuntzan'* berbaldia egingo dute Huheziko areto nagusian, 17:30ean. Hizlaria Madrilgo Waldorf eskolako irakasle Pilar Perez izango da.

Antolatzaileek azaldu dute Waldorf munduan zabalduen dagoen eskola libreen esperientzia dela. Euren esanetan, Waldorf pedagogia sistemak lekuaren lekuko ezaugariak hartzen ditu, eta Euskal Herrian halako bi eskola daude: bata, Aramaikoa (hirugarren ikasturtea da honako hau) eta bestea Tropkonizekoa (horren bigarren ikasturtea da).

NATURA ETA ARTEA

Waldorf pedagogiak ume bakoipta pertsona bakartzat hartzen du; eta irakasleen eta ikasleen arteko konfidantza-ko harremanean sinisten du.

Saiatzen dira adin bakoi-tzaren beharretara egokitzen, eta sormena asko lantzen dute, baita naturaren gertatasuna ere. Berbaldia Aramaikoa eskolan sortutako Izargi elkarneak antolatu du.

bere ustez



Fernando Lete

Akordioa lortu eta kontsulta deitu

Badakit, gaurko egoera politiko kezkagarriaren aurrean zaila dela ilusio edo esperantza izpiririk izatea. Bainha hauteskunde orokorrak izan berri ditugun honetan, etorkizunari begira garai era-bakigarrieta aurkitzen gara. Datozen hilabeteetan ikusiko dugu beste bake prozesu baterako zirrikiturik zabaltzeko gai garen, akordio berri eta herri kontsultaren bitartez.

Euskal gizarteak ezin du egon epe mugagabeen urrats hauen zain. Euskal gizarteak behin eta berriro aldarrikatzen

"Euskal gizarteak behin eta berriro aldarrikatu du biolentziaren amaiera"

tu du biolentziaren amaiera, bazterketarik gabeko elkarrikketa, eta bizikidetzarako akordio plurala. Herritarren nahiak errespetatu behar dira, eta helburu horrekin Lokarritik herri kontsultarako deia egiten dugu. Gure bizikidetza gidatu behar duten printzipioen inguruau, euskal gizarteak bere iritzia modu argi, zehatz eta demokratikoan eman dezan. Katalunia-rek edo andaluzairek posibl badute guk zergatik ez?

Ahalegin honetan gaur Madrilen elkarretaratzea egingo dugu Zapatero presidenteari gure eskaria luzatzeko. Berdin egingo diegu Euskal Herriko agintari, parlamentu eta alderdi politikoei. Ez deztela aukera gehiago lurperatu, ez gaude gehiagotarako.

MUJIKAHARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

HEZKUNTZA > IKASTAROA

Umeendako jolasen eta kantuak gaineko ikastaroan 12 lagunek hartu dute parte

Urtxintxa aisiaaldi eskolako irakasle batekin, bi orduko hiru saio egin dituzte, eta ikasitako kantuak eta jolasak jasotzen dituen materiala eman diete, umeekin praktikan jar dezaten

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Udalak antolatuta, umeen kantu eta jolas ikastaroa izan da apirilean. Martitzetan, bi orduko hiru saio egin dituzte eta, batik bat, ume txikien gurasoek hartu dute parte; 12 lagunek, guztira.

Urtxintxa aisiaaldi eskolako Amaia Perez irakaslek jardun du jolasak eta abestiak irakasten. "Prestatu ditugu 0 eta 5 urte arteko umeendako sehaska kantuak, esku jolasak euren arreta erakar-



ESKU JOKOAK Eskuekin jolasak egiten eta kantuak ibili ziren umeekin. I.A.

tzeko, eta bestelako jolasak, batik bat, gurasoak animatzeko", esan digu Amaia Perez. Irakaslearen esanetan, gustura ibili dira ikastaroan. "Batzuk etorri dira pare pare bat jolas baino ez dakitelako eta

berriak ikastera; beste batzuk, gaztelaniaz ikasitako jolasak eta kantuak euskaraz ikasteko".

Ikastaroan erakutsitako jolasak eta kantuak, umeekin, etxe-an edo kalean, praktikan jartze-

ko material didaktikoa ipini dute parte-hartzaleen eskura. "Punpalaplan bildumaren baitan CD, DVD eta liburuxka bana eman diegu eta, esan didatenez, batzuk behin eta berriz entzuten dihardute, izan ere, betiko kantuekin aspertuta daude", azaldu digu irakasleak.

GURASOEK KANTU BERRIAK NAHI

Gurasoak azken saioan umeekin joan ziren, eta eurekin ibili ziren jolasean eta kantuak. Ikastaroa interesgarria izan dela esan zigutzen. "Beti jolas berberak egiten nizkion umeari, eta berriak ikasi nahi nuen, zerbait ezberdina. Eurek emandako materiala ikusi eta entzun dugu umearekin, eta gustatzen zaiola dirudi. Pirritx eta Porrotx entzuteaz gain, orain beste abesti batzuk ere entzungo ditugu. Motza iruditu zait ikastaroa, eta errepikatzeko moduko esperientzia da; horrela, jolas gehiago ikasiko genuke gainera", esan digu Leire Uribetxeberria gurasoak.



BI URTE Bergarako konbo taldeek bi urtez dihardute. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

MUSIKA > KONBO TALDEAK

Musika ikasleen kontzertua izango da gaur Olaranen

Zumarragako eta Bergarako hamaika konbo taldek jardungo dute arratsaldean

I.A. > ANTZUOLA
Gitarra eta baxu elektrikoak, bateria eta ahotsak bat egiten dute konbo taldeetan. Horiek entzuteko aukera izango da Antzuolan gaur, egubakoitza. Zumarragako eta Bergarako konbo taldeek musika emanaldia egingo dute Olaranen 19:00etan.

Guztira, hamaika taldek jardungo dute: Bergarako bost taldeek eta Zumarragako sei taldeek. Bergarako musika eskolan azken bi urteotan dihardute konbo taldeek lanean, eta emaitza oso politak lortu dituzte.

Zumarragan tradizio handiagoa dago konbo taldeei dagokienez, eta maila altuko konboak dituzte hango musika eskolan.

ANE ALBERDI, GITARRAREKIN
Egubakoitzeko emanaldian askotariko doinuak entzun ahal izango dituzte zaleek: Bob Marley, AC/DC, Jimi Hendrix, Baron Rojo eta Metallica-en abestiar, esaterako. Kontzertuan herriko ordezkaririk ere ez da faltako. Izan ere, Ane Alberdi antzuolarrak Bob Marley-ren *Three little birds* kantuak gitarra elektrikoa joko du.

IPUINGINTZA

Bihar aurkeztuko dute ipuin bilduma

I. A. > ANTZUOLA

Patxi Txerren Txiki ipuingintza jardueraren hamaikagaren edizioa izan da aurtengo. Liburutegiaren eta Herri Eskolaren artean antolatzen dute literatura jarduera hori eta lehenengo mailatik seigarren mailara arteko ikasle guztiak hartu dute parte. Guztira, 97 ipuin aurkeztu dituzte aurten.

Ipuin guztiak argitaratzea ezinezkoa denez, hamaika auke-ratu eta liburutxo batean jaso dituzte. Concetta Probanza ardu-ratu da diseinuaz eta maketazio lanaz, eta zuri-beltzean kalera-tuko dute liburuxka umeek eurek egindako marrazkiekin. Parte hartzaile guztiei banatu-ko diete liburutxo hori bihar, zapatua.

BILDUMA LIBURUTEGIAN

Bestalde, aurkeztutako lan guztiak koadernatu egingo dituzte koloretako liburu dotore batean eta liburutegian gordeko dute nahi duenak ikus dezan.

Patxi Txerren Txikiren aurtengo edizioaren emaitza bihar, zapatua, 17:00etan aurkeztuko dute liburutegian. Aurrez, Apika antzerki taldeak ikuskizuna eskainiko du umeendako.

> MENDIA

Etzi, Araotz eta Orkatzategira joango dira Arrolakoak

Etzirako, domeka, mendi irteera antolatu du Arrola mendি elkartea. 08:30ean Sagastin dute hitzordua irteeran parte hartu nahi dutenek, eta gero, Araotzen abiatu eta Orkatzategin barrena ibili ostean, Araotzera itzuliko dira.

> LEHIAKETA

Kukumarro lehiaketan izena eman daiteke

San Isidro azokan ikusgai ipiniko dituzte kukumarro lehiaketako lanak. Gehienez, bost laguneko taldeak izango dira eta maiatzaren 12a baino lehen eman beharko dute izena lehiaketan parte hartu nahi dutenek.

> ARGAZKILARITZA

Hilaren 30a da azken eguna lehiaketan lanak aurkezteko

Argazki lehiaketarako lanak udaltxera eramateko azken eguna apirilaren 30a da. Argazkiek herriko txokoak erakutsiko dituzte. 14 urte artekoetan partaide guztiak jasoko dute saria eta beste mailetan bina sari izango dira.



GERRA Zazpi hilabetez egon zen frontea Elgetan. Argazkia, Ojanguren baserrian ateratako da.

ELGETAKO UDALA

OSPAKIZUNA > ESPAINIAKO GERRAKO FRONTEKOEN OMENEZ

Bi lore eskaintza eta mendi txangoa, domekan

11:00etan plazatik abiatuta, Elgetako frontearen posizio garrantzitsuenak ezagutzeko txangoa egingo dute, tartean, bi lore eskaintzarekin

LARRAITZ ZEBERIO> ELGETA

1937ko apirilaren 24an jausi zen Elgetako frontea eta urteurrena ospatzeko mendi txangoa antolatu du Elgetako Udalak 1937 Intxorta kultura elkartarekin batera.

"Plazatik abiatuko gara 11:00etan", adierazi du Jesus Gutierrez historialariak. "Asentziora igoko gara oinez eta, bertan, lore eskaintza egingo dugu Intxortako Atea izeneko eskulturan". Mendiz mendi jarraituko dute ibilaldia

frontea non kokatuta zegoen bertatik bertara ikusteko. Euskarazko azalpenak emango ditu 1937 Intxorta kultura elkarteko kide batek lubakieta eta puntu estrategikoaren kokapena erakusteko. Esaterako, *La Belga* izeneko kokapenera joango dira. Bertan, Belgikatik etorritako internazionalista talde batek defentsa lan garrantzitsua egin zuen. Ihesaldia zelakoa izan zen ere azalduko dute adituak domekako irteeran.

Ansuategi baserri ingurera ere iritsiko dira. Duela hiru bat urte, hobi bat topatu zuten bertan, non fusilatutako lagun batzuen gorputzak agertu ziren. Itzuleran, Salvador ermitara egingo dute. Gerran hildako zibilen omenezko harrian, lore eskaintza egingo dute, azkenik.


DEIALDI ZABALA

Irteera zabalik dago interesatu guztiendako. "Duela bi urte gauza bera egin genuen Eibarko frontearekin, eta ekimenak arrakasta handia izan zuen", adierazi du Gutierrez. "Ez da gauza bera gerretaera horiek liburuetan irakurtzea edo terrenoan ikuste".

Liburuak kalera atera ditu udal liburuzainak

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan da astean, eguztenean, hain zuzen ere. Urtero legez, Maria Elena Eztenaga udal liburuzainak herriko plazara atera ditu liburuak. Liburutegira ekarritako argitalpen berriak jarri zituen ikusgai. Gainera, liburu asko banatu zituen herritarren artean.

"Jende askok erabilitzen du udal liburutegia, baina gehiago izan daitezke", adierazi du Eztenagak. "Orain, gainera, igogailua ipiniko dute kultura etxeen. Ea jende gehiago etorzen den".



LARRAITZ ZEBERIO

KULTURA > UDABERRI FESTA

Eskolako umeek landareak salduko dituzte Bihar plazan

Maala Guraso Elkartearen ekimenez landare salmenta eta umeendako jokoak egongo dira

L.Z. > ELGETA

Elgetako guraso elkartea Udaberri Festa antolatu du. Bihar, hilak 26, egingo dute goizez eta arratsaldez. "Eskola Txikien egunean antzerako gauza bat antolatu genuen, baina lehenengo aldia da Elgetan Udaberri Festa egiten dela", adierazi du guraso elkarteko kide Amaia Iribarrek. "Umeendako ekintza bat antolatzea zen gure asmoa. Landare azoka egingo dugu goizean plazan eta ohe elastikoak egongo dira arratsaldean frontoian".

EGITARAU ZABALA

Landare azokari 10:00etan emango diote hasiera. Bertan loreak erosteko aukera izango dute herritar guztiak. Umeek loreak landatzeko aukera izan dezaten loreontziak ere egongo dira erabilgarri. Hamarratko egiteko ogitartekoak eta etxeen egindako pastelak ere salgai ipiniko dituzte. Plazan, gainera, mural handi bat izango dute umeek udaberriko irudiak margotzeko. 16:00etatik aurrera, berriz, gurasoek ohe elastikoak jarriko dituzte frontoian.

ETXEBIZITZA > TORREALDEA

Azkenean bai, poltsikoan etxebizitzaren giltzak!

Gaur jasoko dituzte giltzak Torrealdeko babes ofizialeko 20 etxebizitzetako jabeek

L.Z. > ELGETA

Gaur, barikua, igaroko dira notario aurretik Torrealdean babes ofizialeko etxebizitzak dutenak. Paperak sinatu eta giltzak jasoko dituzte 20 etxebizitzetako jabeek. "Gura genuen baino beranduago eman ditugu giltzak azkenean, baina espero dugu aurre-

rantzean gauzak hobe joatea", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

Etxebizitza hartzen dutenek denbora dute orain enpresa eraikitzaleari antzemanda-kokatzen jakinarazteko. Bi eraikinak, beraz, laster joango dira jendez betetzen. Etxebizitzak jantzi bezain laster.

> FUTBOLA

Elgetako F.T. bere taldeko liderra da momentuz bigarren mailako Kopa txapelketan

Hiru puntuoa aldearekin sailkapeneko lehenengo postuan aurkitzen dira elgetarrak bigarren mailako Kopa txapelketako B multzoan. Sei taldek dihardute lehian multzo horretan. Aste bukaera honetan Unben jokatuko dute elgetarrek. Ikerberri, bigarren sailkatua, izango dute aurrez aurre bihar, zapatua, 17:30ean.

> ERRETIRATUAK

Elgetako erretiratuek batzar orokorra egingo dute gaur, barikua, Ozkarbi elkartean

Erretiratuek 18:00etan hasiko dute urteko batzar orokorra. Bertan, 2007ko balantze ekonomikoa aurkeztuko du egungo zuzendaritzak. Juntan sartzeko boluntarioiak badago onartu egingo dira eta baten bat aurkezten bada, presidente aldaketa ere onartuko dute. Amaitutakoan luntxa egingo dute.

> IKASTROAK

Erretiratuek informatika ikastaroak antolatu ditu Elgetako Udalak, eta liburutegian izango dira

Bi ikastaro dira: informatikara sarrera eta Word. Saioak 10:00etik 12:00etara egingo dituzte. Lehenengoaren kasuan bina orduko bost saio izango dira, apirilaren 28an, 30ean eta maiatzaren 2an, 5ean eta 7an. Amaitutakoan egingo dute Word ikastaroa, maiatzaren 12tik ekainaren 2ra arte, astelehen, eguzaten eta barikuetan.

EPAITEGIAK > AHT-REN GALDEKETAREN KONTURA, ALKATEAK DEKLARATU EGIN DU

Agirre: "EAeko ordezkarien kontrako kanpaina da hau"

Espaniako Estatuko Fiskaltzaren galdeketa oso zorrotza izan zela adierazi du Agirrek

Alkateari babesea erakusteko, kontzentrazioa egin zuten Aramaioko plazan

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Aramaioko alkate Asier Agirrek Gasteizko Justizia Jauregian deklaratu zuen astehenean, iazko irailaren 28an, 29an eta 30ean, Abiadura Handiko Trenaren gainerako galdeketa egin izanagatik herrian.

Goizeko hamarretan zuen Asier Agirrek hitzordua Gasteizko Justizia Jauregian, eta bi orduz deklaratu zuen, Iñigo Iruin abokatuarekin. Baino alkatea ez zen izan astehenean Gasteizen deklaratu zuen bakarra. Agirreren ostean, deklarazioa hartu zioten garai hartan Udaleko idazkaria zen Txaro Saenz de Biteriri ere.

Justizia Jauregitik irten ostean, Asier Agirrek adierazi zuen galdeketa oso zorrotza izan zela: "Galdeketa zorrotza izan da, eta fiskalak oso gogor jardun du. Galdera mordoa egin dizkidate: osoko bilkuraren zer onartu zen, zehazki, galdeketa horren gainean; zerzagtzik egin genuen inuesta aste bukaera horretan..."

Asier Agirrek uste du epai-keta hau ezker abertzaleari eta Eusko Abertzale Ekintzari "egu-



GASTEIZKO JUSTIZIA JAUREGIA Alkateak bi orduz deklaratu zuen astehenean.

TXOMIN MADINA

rra emateko taktika bat" dela: "Handik edo hemendik, argudio juridikoak topatu nahian dabilta guri egurra emateko. EAeko ordezkarien kontrako kanpaina garbia da hau. Ikusi besterik ez dago Arrasaten edo Bergaran alkateekin gertatzen ari dena". Agirrek beste behin adierazi

zuen, aste bukaera hartan, egin beharreko gauza bat besterik ez zuela egin: "Herriak eskatutako egin genuen. Uste dut, gainera, derrigorrezkoa dela herritarren iritzia jakitea, bai Abiadura Handiko Trenaren inguruan, edo beste edozein gainera gainean".

KONTZENTRAZIOA

Epaiketaren egunean, arratsaldean, kontzentrazioa egin zuten Aramaion, Herriko plazan. *Herriari galdetzeagatik, alkatea epaitua* zioen pankartarekin, gertatutakoa salatu eta alkateari euren babesera erakutsi nahi izan zioten herritar horiek.

KIROLA > INTERNET

Maider Undak webgunea du Joko Olinpikoetara begira

Borroka libreko jokalari oletarraren biografia eta kirol ibilbidea ikusi daitezke webgunean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Maider Undak borrokalaria Beijingo Joko Olinpikoetan izango da abuztuan. Oletarrak webgunea ipini du Interneten www.maiderunda.com helbidean. Guneak hainbat atal ditu. Horietan, besteak beste, bere

biografia, kirol ibilbidea, albisteak eta argazkiak ikusteko aukera dago. Hedabideek eindako elkarritzeketa eta erreportajeak irakurtzeko aukera ere badago. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez irakur daiteke webgunea.

Joko Olinpikoetara begira egindako webgunea da; horrela dio goi partean "Emakumezkoen borroka- Beijing 2008". Joko Olinpikoetan oletarraren jarrai-pen zuzena egiteko aukera emango du webgune horrek: probak, emaitzak eta baita ber-tan bizitako istorioak ere.

MAIDER UNDA Webgunea sortu berri du.

GOIENKARIA

UDALEKUAK

Zabalik da udalekuetan izena emateko epea

A.B. > ARAMAIO

Aramaioko Udalak zabaldu du dagoeneko 2008ko uztailaren egingo diren udalekuetan izena emateko epea. Uztailaren 9tik 22ra bitartean izango dira, 10:00etik 13:00etara bitartean. Ume bakoitzak 36 euro ordaindu beharko ditu Euskadiko Kutxako edo Vital Kutxako udaletxeko kontuan. Ordainagiri hori umearen datuekin batera udaletxean edo San Martin eskolan aurkezta beharko da.

Udaleku horietan begirale lanak egin nahi dituztenak ere 17 urtetik gorakoak izan behar dira eta euskara ondo menderatu behar dute. Lan jarduna 240 euro ordainduko zaio bakoitzari. Interesa dute-nek udaletxean edo ludotekan eman dezakete izena.

> ANTZERKIA
'Hor al zaude?'
antzezlana egingo dute gaur gauean

Umorez jositako antzezlanaz gozatzeko aukera izango da gaur, barikua, Aramaioko kultura etxeen. Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta *'Hor al zaude?'* antzezlanan ikusteko aukera izango dute aramaioarrek. 22:00etan hasiko da ekitaldia eta sarrera doan da.

Javier Dault-ek idatzitako lana da. Londresen estreinatu ondoren, Buenos Aires eta Bartzelonan ibili dira, besteak beste. Umorez eta fantasiaz betetako antzezlan horren ostean, maitasunari buruzko gogoeta argia dago.

> ZINEMA
'Babe txerritxoa hirian' filma emango dute domekan

Aramaioko gaztetxoek Babe txerritxo famatuaren abenturak bizi-zeko aukera izango dute domeka honetan. *'Babe txerritxoa hirian'* filma emango dute kultura etxeen 17:00etan.

Babe, Ferdy eta Hoggett hiri handiaren bihotzerantz abiatu dira. Oztopo asko gainditu beharko dituzte, etxaldea salbatzeko dirua biltzen duten bitartean. Euren adorearekin, arerioak lagun bihurtuko dituzte. Abentura honetan, Baben bihotz handiak, berriro ere, mirari sinestezinak egingo diru.

ABELTZAINZA > ORDENANTZA ALDAKETA

Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza, aldatzekotan

Herriko abeltzainekin adostu du Udalak aldaketok egitea, eta apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuten ordenantza aldatzea

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Herriko abeltzainek elkartea izango dute laster. Egon badago, baina estatutual egin eta behar bezala sortzeko kontuetan dabil azken asteotan. Hemendik aurre-

ra, elkartekoak bideratuko ditu Gatzagako abeltzainen kontu guztia, eta dagoeneko lanean hasita dago: abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantza aldatzea proposatu du. Hala azaldu

zuen Mendien saileko zinegotzi den Asier Elkorobarrutiak apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran: "Aldaketok herriko abeltzainekin adostuta daude".

ESKAERAK, AZAROAREN 30 ARTE
Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantzak Aldundiak ezarritako baldintzak jasotzen ditu. Gatzagarrek proposatu dute orain beste baldintza bat

sartzea: herrian erroldatuta egotea eta bertan bizitza. Abereak mendira eroan gura dituzten abeltzainek aurrez esku behar dute baimena, eta eskaerak egiteko data aldatzea onartu zuten osoko bilkuran. Orain arte urriaren 15a baino lehen bideratu behar ziren eskaerok hurrengo urtean mendira eroateko; hemendik aurrera azaroaren 30era arte izango dute epea.

ABERE KOPURUA, ZEHAZTUTA

Aldundiak jakinarazi du hemendik aurrera ahuntzek ez dutela mendian ibiltzeko debekurik izango, eta gainerako abereak legez ibilikiko direla.

Abereak mendian ibil daitezkeen urte sasoia ondo zehaztuta dago. Hona datak: behiak, maiztaren 1etik azaroaren 30era; eta gainerako abereak -behorak, ardiak, ahuntzak-, maiatzaren 1etik hurrengo urteko otsailaren 29ra. Gainera, abeltzainek

ezin dute edozein kopuru eroan mendira. Horretarako, zenbat lursail dituzten jakinarazi behar dute eta, hektarea bakoitzeko, behor bat, bi behi edo hamar ardi onartzen ditu Aldundiak.

Gatzagako mendi inguru bakoitzean zenbat abere ibil daitekeen ere zehaztuta dauka Aldundiak: "Nik uste eskaera gehiago egongo direla onartzen duten kopurua baino, hortaz, batzuk atzera botako dituzte", azaldu digu Elkorobarrutia zinegotziak. Ordenantzan egingo duten beste aldaketa bat da mendi inguru batean -Pagoeder eta Dominaga- abere gehiegi badago, eta bestean gutxi, batetik besterre eroan ahal izatea.

Ordenantza aldatzea onartu zuen Udalak eta, orain, hilabeteko epea dago erreklamazioak aurkezteko. Halakorik egon ezean, behin betiko onartuko dute aldautako ordenantza, eta aurten jarriko dute indarrean.



MIRIAN BITERI

Bukatu dituzte errepideko konponketa lanak

Gatzagatik pasatzen den errepidearen konponketa lana aste beteko kontua izango zela esan zuen Aldundiak, eta halaxe izan da. Zortzi bat egunean konpondu dute kanposanturako bidegurutzean egin zen zuloa, eta, bide batez, jausita zegoen errepide alboko horma berregin dute. Lanok egin bitartean, semaforoa jarri zuten langileek, txandaka pasa zitezzen automobilak, eta, une batzuetan ilara luzeak sortu arren, ez da aparteko arazorik izan.

OSPAKIZUNA


Fado afaria egingo dute gaur gauean Gatzagainen

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Apirilaren 26an izango zela fado afaria iragarri arren GOIENKARIAn, gaur izango da, hilak 25. Portugalgo Kraibelen Iraultza eguna aprobatxatu gura izan du sortu berri duten 25 de Abril Sempre! Leintz Gatzagako Kofradixie taldeak. Gatzagain jate-txeen egingo dute 50en bat lagunek, eta afalosteak Soraluzeko Ventos de Saudade laukoteak girotuko die. Gainera, taldeak jasotako dirua Guatimalako *Escuela en la calle* izeneko proiektuari laguntzeko izango da.

ZERGAK

Ura eta estolderia ordaintzeko epea, zabalik

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren gaineko zergak ordaintzeko epea zabaldu du Udalak. 2008ko lehen hiruhi-labeteari dagokio, eta ekainaren 3a bitartean ordaindu ahal izango dute herritarrek udaletxeko zerga bilketa bulegoan, ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik. Ordaindu ezean, prozedura exekutiboaren bitarbez eskatuko ditu zorrak Udalak. Kobratutakoarekin bateren bat ez balego konforme, hilabeteo epea dauka erreklamazioa aurkezteko.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

FUTBOLA > ERREGIONALA

Bergararen eta Antzuolaren arteko derbia, bihar, 17:30ean

Bergarak bigarren postuagatik lehian jarraitzeko derrigor irabazi behar dio Antzuolari

Bergarako Klubak Agustin Arantzabal, Jose Mari Albisu eta Andres Altzelai omenduko ditu

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergararen (50) eta Antzuolaren (45) arteko derbia osagaiez beteta dator (zapatua, 17:30, Labegarieta). Joaneko partiduan antzuolarrak nagusitu ziren (3-2), bi taldeek ikuskizun polita eskaini zuten derbian. Orduan, bergarar asko animatu ziren noregehiagoka zuzenean jarraitzaera, eta biharko partidurako aurreikusten da zale antzuolarrek bestetorrenbeste egingo dutela.

Gainera, Bergarak oraindik ez du Preferentera igotzeko ametsa baxtertu, eskura dago-eta bigarren postua -beste kategorien arabera egongo da, baina baliteke liga bigarren amaitzen duenak igoera fasea jokatzea-. Hala, taldeak aurten beste helburu batzuk izan baditu ere, azkenera arte egongo da Preferentera igotzeko borrokan.

Antzuola ere hortxe-hortxe ibili da orain arte, aurreko postuengatik lehian. Baino, joan den astean Elgoibarren kontra etxean galdua antzuolarrek seigarrren posturaino atzerapausoa egin dute. Horiek galdu dute igoerarako itxaropena, baina Bergarari denboraldiko bi derbiak irabaztea gozoki gozoa da.

HAINBAT OMENALDI IZANGO DIRA

Biharko derbia hainbat omenaldi egiteko aprobetxatuko du Bergara Kirol Elkarteak. Hala, 17:00ak inguruan hasiko den ekitaldian Agustin Arantzabal Realeko jokalari ohiak, Jose Mari Albisuak eta Andres Altzelaiak urrezko intsignia jasoko dute. Lehenago, taldeko zuzendaritzako kideak, omenduak, Antzuolako ordezkarriak eta Federazioko ordezkarriak bazkaltzera joango dira.

Ez da, baina, partidu aurretek egongo den omenaldi bakarra izango, liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen badira ere Bergarako kadete mailako neskak dagoeneko Gipuzkoako txapel-dun direlako.

GORA IGOTZEKO BORROKAN

Bigarren erregionalean ere derbi polita izango da asteburuan, igoera fasean dabiltsan Mondra (20) eta BTLS (19) izango dira-eta aurrez aurre (zapatua, 18:00, Mojategi). Sailkapenean bigarren eta hirugarren postuan daude bi talde horiek, eta geratzen diren azken bost jardunaldiak erabakigarriak izango dira; orain Kostkas (23) dago lider.




JOANEKOAN Estalan jokatutako derbi parekatuan Antzuolak gola egiteko erraztasun handiagoa izan zuen (3-2).

GOIENKARIA

OMENDUKO DITUZTENAK



Agustin Arantzabal
Futbol jokalari ohaia



Jose Mari Albisu
Zuzendaritzako kidea



Andres Altzelai
Entrenatzaile ohaia

Bergarako harrobiak emandako jokalaria, Arantzabalen kirol ibilbideari esker klubak diru asko jaso du. Horri esker, besteak beste, klubarena den Deportivo taberna berriztu zuten.

Jose Mari Albisuak 30 urte baino gehiago daramatza klubaren zuzendaritzan, taldearen alde lanean. Bergaran ez dago taldearen gorabeheretik Albisuak baino gehiago sufrizten duenik.

Gaztetan jokalari moduan jarduteaz gain, Andres Alzelai urtetan izan zen Bergarako entrenatzailea, bai Preferentean eta baita Hirugarren Mailan ere. Inoiz ez du omenaldirik jaso.

> IKASTAROA Jaioberrien igeriketan jarduteko formazio ikastaroa abian

Deba Arroko Euskara eta Kirol Zerbitzuek antolatuta, jaioberrien igeriketan dihardutu irakasleendako formazio ikastaroa egingo dute Bergaran.

Astelehenean ireki zuten izenemate epea, eta maiatzaren 21era arte eman ahal izango da izena. Ikastaroan 25 lagunendako tokia egongo da, eta Debarroko irakasleek lehentasuna izango dute. Hori bai, ikastaroak aurrera egin dezan, gutxienez, 15 lagunek eman beharko dute izena. Prezioei dagokienez, Debarrokoek 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta Debarrokoak ez direnek 60 euro. Informazio gehiago: 943 77 70 95.



Eibarrek eta Aretxabaletak eguztenean jokatu zuten lagunartekooa

Eibarrek eta Aretxabaletak lagunarteko partidua jokatu zuten eguztenean Ipuruan, eta entrenamendu saio bat izan bazen ere, aretxabaletarrek ederki gozatu zuten hitzordu horretaz, egunero ez delako horrelako kontrario baten aurrean jokatzen. "Jokalariendako oso garrantzitsua izan da talde profesional batek nola jokatzen duen ikuslea.

Badakigu ezin dugula euren aurka parez pare jokatu baina partidua ilusio handiz hartu dute jokalariek". Ipuruan jokatzea zer den ondo dakiaren Igor Arenazaren berbak dira. Normala den moduan, Eibar ondo nagusitu zen (7-1). Bestalde, Mikel Etxaberren itzulera izan zen eguneko albiste ona, aretxabaletarrak belauneko lesioa gainditu du.

MIREN ARREGI

BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa

**Aurrekontua
konpromiso barik.**

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> GANBARA

Oñatiko Ganbara Abesbatzak emanaldi berezia egingo du >**41**



> IRITZIA

Internet konexioa partekatzeaz idatzi du Xabier del Rey adituak >**47**

> AMAIA AZPIAZU

Ganbara abesbatzako sopranoa da oñatiar hau eta kantua du zaletasun nagusia. Kutxako lanak uzten dion denbora horretan ematen du >**46**



Trikiti eta dantzaren asteburua

IV. Debagoineneko Trikiti Egunean, Oñatin, 300 trikitilarik hartuko dituzte kaleak

Bailarako Dantzari Eguna Oinarin taldeak antolatu du, Antzuolan

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Egun berezia izango da biharkoa, bai Oñatin eta bai Antzuolan. Batetik, Oñati trikitilarri uholdearen lekuko izango da goizean goizetik eta, bestetik, Antzuolan euskal dantzak izango dira protagonista.

IV. Debagoineneko Trikiti Eguna egitarau oparoa eskaintzen du egun osoan zehar. Pasa den zapaturik dagoeneko motorrak berotzen hasi ziren oñatiarrak. Iker Goenagaren *Elgeta hitzez eta doinuez hitzaldia* entzun ostean, triki poteoa eta

Alabier eta Lutxundioren eskutik afari erromeria egin zuten.

Biharko trikiti egunaren edizio rako, ibarreko trikitilari ikasleak era kartzeaz gain, Zumarragako, Segurako, Zegamako eta baita Gasteizko trikitilari gazteak ere Oñatin izan-

go direla iragarri du aurtengo antolakuntza taldeak. Guztira, 300 bat gatzte hurbilduko direla espero da; trikitiarenhotsa bailara osoan barrena hedatzeko beste.

(40. orrialdean jarraitzen du)

AZALA: IMANOL SORIANO

Trikitia eta dantzaren asteburua

(40. orrialdetik dator)

Antzuolan, bestalde, Bailarako Dantzari Eguna ospatuko da. Debagoieneko bost dantza talde izango dira herrian. Aurtengo edizioa antolatu duen Oinarin dantza talde antzuolarraz gain, Oñatiko Oñatz, Soraluzeko Urrats eta Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeek parte hartuko dutela ziurtatu dute.

TRIKITI EGUNA, ARRAKASTATSUA

Oñatiko trikiti egunerako 300 gaztetxo inguru espero dira; beraz, ezin ukatu ekitaldiaren arrakasta borobila denik. Trikitiak oñatiarreran duen pisuaren isla da herritar xumeek edizio honetarako eskainitako laguntza. Lan handia egin dute biharko ekitaldietan dena ondo atera dadin, eta hori argi uztea nahi izan du Eneko Zumalde IV. Trikiti Egunaren antolakuntzako kideak.

Herritarren laguntza bihotzez eskertzeaz gain, Zumaldek Oñatiko trikitia "oso momentu onean" dagoela adierazi du. Egun, 80 ikasle daude Oñatiko trikiti eskolan. Hala ere, eskolak hainbat ikasle baditu ere, Zumaldek, ospakizun egunetan ez ezik, kalean oso trikiti gutxi entzuten dela aitortu du. Egun berezietatik haratago trikitiaren soinuak kaleak hartu beharko lituzke, Zumalderen ustez.

Antzuola eta Oñati euskal kulturak bizirik dirauela frogatzen duten ospakizunen lekuko izango dira bihar. Trikitia eta dantza bata bestearengandik banatzea ez da oso ohikoa. Hala ere, biharkoan bakoitzak bere aldetik joango da.

Antzuolako eta Oñatiko kaleetako giroa alaituko dute bai trikiti taldeek eta baita ibarreko dantzarien jauzi eta birek ere. Baina euskaldunon nortasunaren parte diren ekimen hauek jendearen garrantzia galtzen ari ote dira? Trikitia ospakizun berezietara mugatu den ekintza folklorikoa ote da? Zergatik egin du txarrera ibarreko dantza taldeen egoerak? Bergara moduko herri batean, esaterako, ez dago helduen dantza talderik. Kultur nortasunaren krisi baten aurrean ote gaude?

Trikitiaren eguneko egitaraua

Oñati

- 10:15 Ongietorria
- Unibertsitateko plazan eta hamarretakoak
- 11:00 Ibarreko trikitilariek herriko kaleetan zehar banatu
- 12:30 Ibarreko trikiti eskolen ekitaldia Unibertsitateko plazan
- 13:45 Omenaldia herriko hainbat trikitilariri
- 14:15 Herri bazkaria Zubikoan
- 17:00 Trikitio taldearekin erromeria Unibertsitate plazan
- 19:00 Txikiteo herrikoia
- 22:30 Erromeria Imuntu eta Beloki bikotearekin

Galdera hauek guztiak ahal den heinean erantzuteko, ibarreko dantzari batekin izan gara, eta bere iritzia jaso nahi izan dugu. Antzuolako Dantzarien Eguna antolatzen izan den Oinarin dantza taldeko kide batekin izan gara, Janire Jauregirekin.

Jauregi aspalditik ari da Oinarin dantza taldean. Txiki-txikitik gustatu izan zaio dantza. Eta oraindik ere barruan drama txikitik datorkion zaletasuna. Beraz, Jauregirentzat, euskal dantza zaletasuna baino gehiago dela esan genezake.

DANTZA TALDEEN EGOERA ESKASA

Debagoineneko dantza taldeen egoeraren inguruan galduen zaionean, bere herriko kasua aipatu nahi izan du, ondo baino hobeto ezagutzen du eta: "Antzuolako dantzen egoera eskasa da, gero eta jen-

EUSKARAREN EGUNA

Loramendi Dantzan parte hartzeko aukera da oraindik

Aretxabaletako Loramendi Elkartea ere ospatuko du, jakina, Euskararen Eguna, maiatzaren 17an. Euskararen sustapenerako egun horretan, Beinke Loramendi Dantza egiten da Aretxabaletako plazan.

Dantza herrikoian parte hartzeko dei egin dute Loramendi Elkartekoek. Pasa den eguztenean hasi ziren entseguak.

Hala ere, oraindik bada aukera ekitaldi berezi honetan parte hartzeko. Dantza ikasi ahal izateko hurrengo ikastaroak maiatzaren 7an eta 14an izango dira, Basabeazpin, arratsaldeko zapietatik aurrera.

Dantzarien eguneko egitaraua

Antzuola

- 10:30 Talddee harrera
- 11:30 Kalejira herri guztian zehar (denok batera kalejiran irtengo dira, eta leku bakoitzean talde batek dantza bat egingo du)
- 12:45 Goizeko dantza saioa plazan
- 14:45 Bazkaria
- 18:00 Arratsaldeko dantza saioa plazan



GIZON GUTXI Ibarrean gero eta gizon gutxiagok dantzatzen dute. GOIENKARIA

Dena ez da negatiboa, ordea. Bailarako dantza taldeen arteko komunikazioa ona dela ziurtatu du Jauregik. Honela azaltzen du berak: "Talde guztiok interes komuna dugu dantzaren alde, eta aurreko urteetako esperientziatik ikasten dugu urtez urte Danzari Eguna hobea izan dadin".

Bihar festa giroa izango da nagusi Oñati eta Antzuolan. Ziur hainbat herritar hurbilduko direla emanaldieta.

Eta asko eskatzea ez bada ere, horrela izaten jarrai dezala. Hobe hori, trikitia eta albarkak edozein museoetan erakusgai izatea baino...



UHOLDEA Trikitilariei gazteen uholdea izango da bihar Oñatin; 300 bat espero dira. Argazkian, iazko Trikiti Eguna Bergaran.

IMANOL SORIANO

OÑATI > MUSIKALDIAK

Musikaldien 30. ekitaldia egingo dute Oñatin, maiatzaren 11tik aurrera

Ekainaren 1era bitartean, doinu klasikoek protagonismoa izango dute, domekero, Santa Ana antzokian

EDU MENDIBIL > OÑATI
Aurtengoan Oñatiko Musikaldien 30. ekitaldia izango da. Maiatzaren 11tik ekainaren 1era bitartean, doinu klasikoek protagonismoa izango dute, domekero, Santa Ana antzokian. Trio Aloisia emango dio hasiera Oñatiko Musikaldiari, maiatzeko bigarren domekan. Irene Etxebestek (biolina), Elena Eskalza (biolon-txeloa) eta Patricia Azanza pia-no joleak osatzen dute Trio Aloisia. Hirukote moduan ibilbide laburra izan arren, hiru musikariek esperientzia zabala dauka-te eta nazioarteko hainbat jaial-ditan parte hartutakoak dira.



BUSTER KEATON *El maquinista de la general* filmeko irudiak eskainiko dituzte ekainaren 1ean, musikaz lagunduta. GOIENKARIA

Musikaldiaren bigarren eman-dia, maiatzaren 18an, Santa Cecilia Donostiarra abesbatzak egingo du. Karl Jenkins kompo-

sitore ezagunaren *Un hombre armado; misa por la paz* izenburuko lana ekarriko dute Oñatira. Musika klasikoa, erlijiosoa eta

etnikoa uztartzen ditu Jenkins galestarrak bere obran, gerra eta bakearen gaineko hausnarketa plazaratu nahirik.

Maiatzaren 31n Beethoven String soka hirukotearen eta Claudio Arimany flauta jolearen txanda iritsiko da. Beethoven String hirukotea Polonian sortutakoa da, 1984. urtean, eta mundu zabalean ibilitakoak dira. 1989tik Spainian bizi dira. Claudio Arimany katalanaren laguntza izango dute Oñatiko emanaldian.

MUSIKA ETA IRUDIAK
Aurtengo ekitaldian, publiko zabalago batengana heltzea da antolatzaileen helburuetako bat. Horrela, ekainaren 1eko emanaldia da programako izarretako bat. Zuzenean musika entzuteaz gain, Buster Keatonen *El maquinista de la general* filmeko irudiak eta *La revoltosa* zartzuelako irudiak eskainiko dituzte egun horretan. Javier Perez de Azpeitia piano joleak zuzenduta, The Silent Band taldeak hartuko du parte aipatutako emanaldian. Oñatiko Musikaldiaren lehen ekitaldia 1979ko urrian hasi ziren. Ordutik sendotuz joan den jaialdia da Oñatikoa.

HEZKUNTZA > HUHEZI

Jarraipena izango du Euskal Kulturgintzaren Transmisiokoak

Graduondoko kulturgintzaren alorrean dabilen orori zuzenduta dago; 40 irakaslek jardungo dute hurrengo ikasturtean



ITXARO BORDA Graduondoko irakasleak bat izango da. ARTXIBOA

E.M. > BERGARA
Aurtengo esperientziaren arrakasta ikusita, Euskal Kulturgintzaren Transmisioko izeneko graduondokoari jarrai-pena emango diote hurrengo ikasturtean HUHEZIk eta Arteola Fundazioak. Erakunde bien izenean Jon Sarasuak eta Iñaki Urruzolak adierazitakoaren arabera, datoren ikasturtean ere hiru begirada uztartuko dituzte ikastaroan: kultur transmisioko aditurek prestakuntza teorikoa eskainikoa dute; kulturgintzan dabiltsanek (kantariak, bertsolariak, idazleak...) testigantza bideko prestakuntza emango dute eta, azkenik, hirugarren begirada hartzaileena beraiena izango da. Aurtun bezala, 40 irakaslek jardungo dute Euskal Kulturgintzaren

Transmisioko graduondokoan. Nobedadeen arten, Itxaro Borda irakasle eta Ane Larrinaga irakaslea aipa daitezke.

AURRE Matrikula, ZABALIK
Bestalde, nobedadeetako bat zera izango da: aurten ikastaro orduak martitzenetan izan badira ere, datorren ikasturtean eguztene-

tan izango dira. Ikasleak bost orduz arituko dira, 15:00etatik 20:00etara hain zuzen ere.

Graduondoko hau kulturgintzaren alorrean dabilen orori zuzenduta dago. Aurre matrikula maiatzaren bukaerara arte egin daiteke. Argibideak 943 71 41 57 zenbakian edo *kulturgintza@huhezi.edu* helbidean.



GANBARA Oñatiarrek egitarau zabala gertatu dute domekarako. GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

Ganbara abesbatza Bidaurretan etzi

Oñatiko abesbatzak emanaldia egingo du domeka eguerdian, aspaldiko partez

E.M. > BERGARA
Oñatiko Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du domeka, Oñatiko Bidaurreta monasterioan, eguerdiko 13:15ean. Hilabete batzuk badira Oñatin azken kontzertua eskaini zute-la, eta herrian emanaldia egiteko irrikaz daude Ganbarako kideak. Domekako kontzertuan abesbatzak bere 14 urteko ibilbidean abestu dituen hainbat

kantu eskainiko ditu: abesti zaharrak, Ganbarak kaleratutako *Sagatz* diskoko abestiek, abesti kuttunak eta uztalean Torreviejako habaneren lehiaketara eroango dituzten kantuak tartean.


Era berean, abesbatzan parte hartzeko interesa duten mutilei zein gizonezkoei deia luatu diete Ganbarako arduradunek.

hildakoak

- Esther Del Aguila Astoreka. Bergaran, apirilaren 13an. 80 urte.
- Dolores Altuna Garitano. Bergaran, apirilaren 14an. 94 urte.
- Jose Angel Kortazar Barrenetxea. Arrasaten, apirilaren 14an. 59 urte.
- Juan Jausoro Galdos. Arrasaten, apirilaren 15ean. 88 urte.
- Encarna Mendez Sanchez. Aretxabaletan, apirilaren 15ean. 38 urte.
- Martin Kortabarria Azkarate-Ascasua. Bergaran, apirilaren 15ean. 83 urte.
- Josefa Iriondo Antoñana. Aramaioan, apirilaren 17an. 94 urte.
- Maritxu Etxaniz Artetxe. Bergaran, apirilaren 17an. 91 urte.
- Juan Mari Lizarralde Ugarte. Bergaran, apirilaren 18an.
- Felix Goñi Ugarte. Oñatin, apirilaren 18an. 55 urte.
- Candida Garitano Eguren. Bergaran, apirilaren 20an. 92 urte.
- Javir Arkauz Kortabarria. Oñatin, apirilaren 23an. 75 urte
- Angel Bengoa Aguayo. Arrasaten, apirilaren 23an. 74 urte.



Carlos Azpiazu "Txistu" eta **Carmen Abio** osintxuarrak 1954ko apirilaren 24an ezkondu ziren. Zorionak Edorta eta Begoña eta, Dani eta Noemi seme alaben partetik eta Ibai, Josu, Joseba, Pau-lo, Kristiñe eta Martxel biloben partetik. Ondo pasa!



Elena Gartzia arrasatearra eta **Lucas Cruz** aretxabaleta-rra maiatzaren 3an ezkonduko dira Dorletan. Gero, bazzal-tzera joango dira Gure Ame-tsajatxera eta ezkonbidaian Cancunera, Mexikora eta New Yorkera joango dira. Zorionak bikote, eta izan zoriontsu!

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritzar batera, eguzaten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzarr liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

ASTELEHENeko GOIENKARIKO harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



Juan Exposito eta **Rosi Juari** bergararrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, hilaren 26an. Seme-alaben partetik ondo pasa dezazuela, bikote. Gutxi izan arre, mai-tasun oso zegindugu dena. Laztan handi bat eta jarraitu zoriontsu izaten.



Juan Mari Aiastui eta **Milagros Arozena** bergararrek urrezko ezteiak ospatuko bihar. Bergarako San Pedro parrokiaren ezkondun ziren 1958ko apirilaren 26an. Biher meza izango dute La Milagrosa kaperan eta ondoren bazkaria egingo dute Lasa jatetxeen. Zorionak!

ESKER ONA

Angel Bengoa Aguayo

Arrasaten hil zen 2008ko apirilaren 25an, 74 urte zituela



Arrasaten, 2008ko apirilaren 25ean

ESKER ONA

Martin Kortabarria Azkarate-Ascasua

Bergaran hil zen 2008ko apirilaren 15ean, 85 urte zituela



Bergaran, 2008ko apirilaren 25ean

ESKER ONA

Candida Garitano Eguren

Bergaran hil zen, 2008ko apirilaren 20an, 92 urte zituela



Bergaran, 2008ko apirilaren 25ean

1. URTEURRENA

Gregoria Gartzia Etayo

Juan Igarzaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 27, 11:30etan Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILORE Hileta eta Beilateki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
marib@orolore.com



Bidaia ezin hobea



2. URTEURRENA

Maritxu Gartzia Etayo

Bigarren urteurreneko meza domekan, apirilaren 27an, 12:30ean
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

bila-bila 7




hitz gezidunak



	Sasiak	▼	Europako ibaia	▼	Fruitu mota	▼
Trakets	►		Politak		Odol ahulezia	
* Irudiko animalia	►					
Aurritzka						
Aurkitzen ahalegindu	▼		Barna	►		
Bilkura	►	▼	Kostaldeko amildegia			
Era larrian	►				Masurioa	►
Sindikatu abertzalea	►		Zakoteak	►	Fruitu mota	
Kolpeak	►	▼	Musika nota			Suari dariona
Egurra	►				Bokala	►
			Ortografia ikurra	►	1000	

GOIENKARIA

soluzioak



Jergilifikoak: ALmandoz




sudokua

5		1			4		8
			4	9			
7			1				2
	2		9		5	3	8
5							4
	6	4		2		7	
3				7			4
		2	8				
8	5			7			1

hieroglifoak

Baztango herria



bono fotoa

**Oñatiko zein auzo da lehen planoan ikusten dugun hau?**

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

Super BM

 Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
 zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!


ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOIA

 Ekarri txartela MARTITZEN EGUDERIRAKO
 Goienako edozein egoitzara

Albo atun argia

92 g-ko 3ko packa + 1 doan

3,30 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Bergarako Begoña Pozarendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Aretxabaletan.

Musikarekin... hasi, hezi eta bizi


Instrumentu
musikalak



Aurre hizkuntza
musikala
(5 urtetik aurrera)



Hizkuntza musikala
(helduentzat ere)



Biolina
Suzuki metodoa
(3 urtetik aurrera)



Hezkuntza berezia
Taldeak:
Orkestak, Banda,
Abesbatzak



Bergarako
Musika
Eskola

Espaloia kalea z/g
943 765780

Matrikula zabalkiak ehaianaren 15erarte



Amaia Azpiazu > Abeslaria

"Abesbatzan kantatzea dut zaletasuna, baina ez naiz koruak entzun zalea"

Neska gazte arrunt moduan aurkeztu du bere burua. Lanak eta kantuak betetzen dituzte

bere eguneko ordurik gehienak. Izan ere, Oñatiako Ganbara Abesbatzako sopranoa da, eta abes-

tea du zaletasunik handiena. Kantuari esker, Euskal Herrian zein atzerrian makina bat txo-

ko ezagutu ditu oñatiar honek, eta kantuz ez, baina hitzezeman digu bere bizitzaren berri.

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Kantuaren aitzakian Euskal Herriko zein atzerriko txoko asko ezagutu du. Orain, Kutzako leihatilatik begiratzen die egunero herriarei. Abesbatza zaletasun eta diru kontuak betebehar, Amaia Azpiazu bi jomuga nagusiak.

Nor da Amaia Azpiazu?

Neska arrunta naiz, zaletasun moduan abesbatza dudana eta denbora asko eman diodana. Sartu nintzenetik, zortez, koruak dinamika handia izan du eta ekin-tza asko egin ditu. Nik ere gauza asko abesbatzari lotuta egin ditut.

Abestea duzu zaletasun, baina Enpresa ikasketak egindakoa zara. Zer dela eta?

Enpresa ikasketak egin ditugunon artean oso jende gutxi ezagutu dut ekonomiarekiko pasioa duenik. Etorkizunerako ateak zabaltzeko modu bat da, eta nik horregatik aukeratu nituen ikas-keta horiek, irtenbideren baten bila, bidea ematen dutelako arlo askotan lan egiteko.

Kutxan diharduzu, ezta?

Bai, hasi berria naiz. Leihatilan dihardut, eta jendaurrean lan egin gabea nintzenez, hori izan da arraroena. Pixkanaka, hartuko diot martxa lanari. Aurrez, Lana kooperatiban jardun nuen. Txekiar Errepublikan ireki zuten filialean hasierako etapan ibili nintzen. Lizentziatu berritan, Txekian tokatu zitzaidan han finantza zuzendari izango zenari lan elkarriketa egitea.

Zure bizitzan zein tarte hartzentute kantuak eta koruak?


Aste barruan, asko ez, baina aste bukaerak, sasoia batean, era-bat eskaini dizkiot kantuari. Karrerako bost urteetan, Ganbara dinamika handia zuen, eta asteberri gehienetan geneukan kontzerturen bat, ezkontza batean abestu beharra, topaketaren bat... Azkenaldian lasaiago ibili bagara ere, badauzkagu proiektuak eskuartean berriz ekiteko.

Zein kantu abesten dituzue?

Polifonikoak eta folklorikoak. Ganbara da abesbatza bat kontzertuetan dibertsitate handia duena. Gainera, zuzendari gaztea dugu eta gustu handikoa; edozein kanturi itxura polita ematen dio.

Solista moduan jardutzen duzu?

Ganbaran, soloak nahiko banatuta daude. Inoiz, ezkontzatan, *Aita Gurea* abesten dut.



ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Enpresa ikasketak. **Abeslari bat?** Ella Fitzgerald, ahotsarekin sekulako akrobaziak egiten zituelako. **Liburu bat?** Arturo Perez Revertearen *La Tabla de Flandes*. **Zerkalaitzen dizu eguna?** Nahikoa lo eginda, iratzargai-

luak jo gabe esnatzeak. **Eta tristatu?** Iratzargailuak goizean goiz jotzeak. **Parrandarako leku bat?** Ez naiz parranda alea. **Bidaiatzeko toki bat?** Europa desku-britzeko daukat oraindik; Italia, Alemania... **Amets bat?** Gurasoen etxetik independizatza.

Beste abesbatzaren batean kantatzen duzu?

Inoiz, laguntza moduan, abes-tu dut beste koru batzuekin. Baina bat bereziki gogoan dudana da Donostiako umeen abesbatza bat. Musikabin kantu eskoletara joaten nintzen. eta eskaini zidaten Japoniara eurekin joatea. Kantuan gustura jarduteaz gain, Japonia ezagutu nuen.

Zure ahotsa disko batean ere entzun dezakegu, ezta?

Bai, Jose Mari Anduaga oñatiarrak eskatu zidan bere diskosan abesti bat kantatzeko. Orain dela sei urte izan arren, oraindik esaten dit jendeak irratian entzuten duela, eta grazia egiten dit.

Kantuaz gain, zein beste zaletasun duzu?

Aparteko zaletasunek ez: zinema, lagunekin elkartzea, musika entzutea... Denetarik entzuten dut, baina, arraroa dirudien arren, ez naiz abesbatzak entzun zalea. Badakit aberasgarria dela, baina nahiago dut, koruan hainbeste denbora eman ostean, bestelako musika entzutea. Inoiz joaten naiz emanaldietara, batez ere Ganbara Txikiko kontzertuetara.

Lehiaketetan parte hartu duzu?

Koruarekin, dezentetan, eta emaitza politak lortu ditugu. Abesbatzendako garrantzitsua den Tolosako lehiaketan ere har-tu genuen parte. Bakarrik, ordea, ez nintzateke aurkeztuko. Talde batean, lehiaketetan jardun gabe, gustura abestuko nuke. Orain arte ez naiz animatu, denbora, ausardia eta indar faltarengatik. Lagun batek, esaterako, blues talde baten dihardu, eta gustuko dut talde hori.

Japonia eta Txekia aipatu dituzu. Bidaiatzea gogoko duzu?

Bai, baina hegazkina hartzea gero eta gutxiago gustatzen zait. Hala ere, bidaia turistikoak gustatzen zaizkit, gauzak ikustea. New Yorken izan naiz, Danimarkan ikasten egon nintzen bost hilabetez... Azken horretan turismo asko ez egin arren, esperien-tzia polita izan zen; bizimodu eta jende ezberdina ezagutu nuen.

Aurrerantzean, bide beretik jarraituko duzu?

Bai. Lanean ahal den ondoen egin nahi dut, eta koruan ere jarraitzeko asmoa dut. Denbora asko kendu arren, uztea asko kostatuko litzaidake, eman ere gauza asko eman didalako.

INTERNET > Sare aske batzuk bizirik diraute oraindik Internet partekatzeko, baina azken bost urteotan Espanian gero eta gutxiago dira. Orain nagusi dira Udalek bultzatutako wifi sareak eta horietaz jardun du Xabier del Rey.

Interneteko konexioa modu askean partekatuz

O rain dela urte batzuk elkar-te edo sare libreak lanean hasi ziren modu desinteres-satuan, biziagunen arteko elkar-lana sortuz, Interneterako sarbi-dea partekatzeko asmoz, kable-rik gabeko teknologien bitarbez; Wifi gehienetan. Interneterako sarbidea eskubidea zen eta do-a-nekoa izan behar zen ustea zuten. Teknologia berriean buru bela-rrri sartutako gazteak ziren gehie-nak eta Interneterako kablerik gabeko sarbidea ez ezik herrita-ren arteko elkarlana eta lanki-detza bultzatzea zituzten helbu-ru. Horretarako, oinarritzat har-tzen zuten elkartek barne zein kanpo komunikazio raka behar zuen azpiegitura sortzea.

Denboraren joanean elkar-teok ez dira finkatu, alderantziz, desagertu egin dira pixkanaka. Gutxi batzuk direnean proiektua kudeatzeko, mantentzeko eta sus-tatzeko borondatea eta indarra ipini behar dutenak, ohikoena da nekatzea. Are gehiago, helbu-ruak lortu ezean eta elkartera kide berriak gerturatu ezean.

SARERA LOTUTA

Wifi teknologiak aurrera egin du denboran barrena eta merkatu ere egin da. Gaur egun, erraza-goa da ordenagailu eramangarria piztutakoan sare libreak aurki-tzea oraindik martxan dauden sare libreren bateko nodoak bai-no; Interneterako konexioa edo-zeinekin partekatu nahi dutenek denen eskura ipini dutelako. Hala ere, bere horretan dirau sarea



Xabier del Rey >
FON enpresako marketin sailekoa

"Egunetik egunera indartuz doa, ez nolanahi, wifi bidez konektatzeko beharra"

"Gero eta aparailu gehiagotan barneratzen dituze wifi txipak, batik bat eramangarriak direnetan"

partekatzeko nahi horrek. Modu independenteagoan egin arren, asko dira soberan duten hori partekatu nahi dutenak.

Egunetik egunera indartuz doa, eta ez nolanahi gainera, wifi bidez konektatzeko behar hori. Gero eta denbora gehiago ematen dugu Internet sarera konektatuta. Gero eta gehiago dira sarera lotzen eta *online* mantentzen gaituzten zerbitzuak: berehalako mezularitza, blogak, Facebook edo MySpace moduko

sare sozialak, ahotsa eta bideo-ak... Gainera gero eta gehiago dira Wifi bidezko konexioa duten aparailuak: ordenagailu era-mangarrietatik hasi eta sakela-ko telefonoetaraino (iPhone edo Nokia N95, esaterako), bideo-joko kontsoletatik, argazki kameretatik edo mp3-etatik iga-rota. Horren adierazle da, adibidez, 2007an munduan 300 milioi Wifi txip egitea, aurreko urtean baino %46 gehiago. Gainera, ten-dentziar arabera gero eta apa-railu gehiagotan barneratzen dituzte, batik bat eramangarriak direnetan.

ADMINISTRAZIOAREN ARDURA

Egunero agertzen dira egunkarietan Udal ordezkaria esanez asmoa dutela herritarrei Inter-net eskaintzeo Wifi bidez, bai-na gero asmo hutsean geratzen da esandakoa. Udal gutxi batzuk egin dute aurrera, tartean Donos-tia izan zen antzindari Europaren. Gutxi izan arren aurrera egin dutenek erakusten dute Udal batek bere gain hartzeko modu-ko proiektua dela (hauteskunde-interesa izan dezakeena).

Banda zabalera soberakina partekatzeko sare libre elkar-teek zein norbanakoek duten borondatea kontuan hartuta eta edozein tokian konektatzeko gaitasunaren beharrari erreparatuta, ez al lukete aukera hori gero eta gehiago eskaini behar administrazio publikoek zerbi-tzu horiek enpresa pribatuen esku utzi beharrean?



WIFI Arrasateko Kulturaren norbere ordenagailu eramangariarekin nabiga daiteke sarean wifi bitartez.

IMANOL SORIANO

teknologia berriak

> SAGUA

Ur txorrotaren azpian garbitu eta desinfektatu daitezkeen sagua eta alfonbratxoa kaleratu dituzte

Anatomikoa, USB konexioduna eta oso garbia da sagua hau. Ordenagailuaren Belkin etxeko sagua busti daiteke inolako arazorik eragin gabe beti distiratsu izateko. Ur txorrotaren azpian ipini eta garbitu ez ezik desinfektatu ere egin daiteke. Ez dauka scroll, gurpiltxorik baina horren ordez scroll pad delakoa erabiltzen du urik ez sartzeko eta horizontalean zein bertika-lean mugitzeko.

Salneurria: 30 euro sagua eta 12 euro alfonbratxoa.



Saguak poltsa funtzioa egingo duen Mouse trap alfonbratxoa du osagarri; hau ere eskuz garbi daiteke.

> TELEFONO

Adinekoendako bereziki prestatutako bost botoidun sakelako telefono erabiltarraza

ClarityLife ez da edozein telefono. Sakelako honek bost botoi eta pantaila monokromatikoa ditu, non telefono zenba-kiak eta SMSak irakurri ahal izango diren. Bereziki diseinatu dute adinekoendako. Erdiko bi botoiekin menuan barrena ibiliko dira eta botoi gorria eta berdea deitzeko eta deia mozteko erabiliko dituzte. Horretaz gain, SMS mezuak jasotzea eta bidaltzea funtzioa, 200 kontaktu gorde-tzeko memoria eta 180 minutuz berba egiteko autonomia ditu.



Larrialdiarako botoi berezi bat du zapalduz gero, bost lagun abisua emateko.

> ARGAZKILARITZA

Argazki digitalak memoria txarteletatik zuzenean CDra pasatzen dituen aparailua

Memoria txartel batetik zuzenean deskarga daitezke argazkiak CDra aparailu honekin. Hammacher etxea da eta Digital Photo to DVD Converter du izena. Irudiak CD-R eta CD-RW diskoetan grabatuko ditu gero DVDAñ ikusteko. Bateragarria da Compact Flash, Smart Media, Memory Stick, SD, MMC eta Microdrive txarteletik eta RCA eta S-Video konektoreak ditu.

Salneurria: 125 euro.



Telebistara konektatuz gero DVDAñ ikusteko aukera ere emango digu aparailuak.

> MUSIKA

Bi lagunek aldi berean musika entzuteko aukera emateaz gain, irudiak ikusteko ere balio du

Musika aparailuak lau Gb-eko edukiera, hazbete eta erdiko pantaila eta Duo funtzia ditu, hau da, aurikularrendako bi irteera musika beste norbaitenkin partekatzeko. MP3, WMA eta WAV formatuetan musika entzuteko aukera emateaz gain, XviD bideoak eta JPG formatuko argazkiak ikus daitezke, eta e-book irakurgai-ua ere bada. FM irrati sintonizatzen du eta baita ahotsa grabatu ere.

Salneurria: 55 euro



Kolore beltzko karkasa dauka eta 40 gramoko pisua. Bi aurikularrendako balio du.

berriak

> EUSKALDUNAK HIZKETAN
Lehengo afizio eta ohiturak mintzagai euskaldun nagusiekin

Euskaldunak hizketan' saio berriaren bosgarren atala eskainiko dute Goiena Telebistan datorren martitzenean. Aurreko ataletan jakin ahal izan duzue zeintzuk ziren lehengo baserri eta industri lanbideak, erlijioa nola bizi zuten edota zeintzuk ziren lehengo ohiturak.

Datorren martitzenean, lehengo afizio eta ohiturak izango dituzte mintzagai; hala nola txikiteoa edota jolasak.

> EUSKARAZKO FILMAK
Maiatzean hasita, euskarazko filmak eskainiko ditu GOITB-k

Datorren hiletik aurrera, Goiena Telebista euskarazko filmak eskaintzen hasiko da. Hilabeteko asteburu baten izango da hitzordua, iluntzean, hain justu.

Euskarazko zinegintza bultzatzen eta Euskal Herrian egiten diren filmei tarte bat egin, euskarazko film onenak ikusteko aukera izango duzue, beraz, GOITB-n. Besteak beste, eskainiko dituzte, *Unibertsolariek* eta *Olentzero 1*.

> ARRASATE IRRATIA
Maiatzaren Lehenaren harira, sindikatuak protagonista

Badator Maiatzaren Lehena, Langilearen Nazioarteko Eguna. Eta halakoetan, ohi denez, sindikatuek aprobetxatuko dute lan munduaren egoeraen gainean euren salaketak egin eta aldarrikapenak helrazteko. Oraingo horretan, dagoeneko ELA eta LAB badabiltza mobilizazioak iragazten datorren asterako. Halakoak eta beste landuko ditugu, besteak beste, eguztzena, apirilaren 30a, bitartean.

> ARRASATE IRRATIA
Sukaldaritza liburua, atzera ere, zozketatuko dute

Joan den astean, Eva Argiñano sukaldari ezagunaren azkeneko liburua zozkatzen zuten Arrasate Irratian. Bada, oraingo asterako, sukaldaritzaren gainekeo beste liburu bat zozketuko dute entzuleen artean: *Cocinar con Bruno Oteiza*. Sukaldari donostiar horrek La Sexta telebistan dihardu lanean eta besteak beste, Mexikon bi jatetxe ditu. Bestalde, Juan Mari Artzak sukaldariarekin ikasitakoa da Oteiza.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Gose taldeko Ines Osinaga arrasatearra 'Ilunpean' saioan

Ines Osinaga Gose taldeko abeslari eta trikiti jolea izango da 'Ilunpean' saioan Iker Barandiaranekin

GOIENKARIA > ARRASATE

Arrasatearra da eta 26 urte ditu Ines Osinaga. Azkenaldian horren ezagun egin den Gose taldeko abeslaria eta trikiti jolea da; esan daiteke, trikitiaren alorean iraultza ekarri duen emakumea dela; hain zuzen ere, trikitia eta musika elektronikoa uztartzen ditu modu proboka-tzailean.

Osinaga, Gose taldeko abeslaria delako da ezaguna, baina bere egunerokoan, irakasle lanak egiten ditu.

Horiek eta haren bizitzako beste hainbat gora behera eza-gutzeko aukera duzu GOITB-n.



INES OSINAGA Goseko abeslaria argazkian.

JOSETXO ARANZABAL

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENENA, 21:47

Jose Antonio Aperribaiak ipini duen landare-sikuen gaineko lokala, erreportajearen

GOIENKARIA > ARRASATE

Bergarako Koldo Eleizalde 6. zenbakian zabaldutu berri du Jose Antonio Aperribaiak landare-sikuen gaineko lokala. Aperribairen landareekiko zaletasuna betidanikoa da, eta hala, bere eza-gutzak jendearen eskura ipini

gura izan ditu lokala zabaltze-rekin batera. Aperribaiak 1.000 landare sikutik gorako bilduma du dagoeneko eta bere helburua da jendeak bilduma berezi hori ikustea eta gainera, herritarrek landare, hosto edo zuhaixken gaineko kontsulta egitea gura-

ko balute, bere lokalera zuen-tzeko aukera eskaintzea. Ez dago Debagoienean landare sikuen gaineko lokal askorik, esan dai-teke, hori dela bakarrenetako. Duela gutxi egin dute inaugura-zio ekitaldia, eta bertara bildu ziren Aranzadi Zientzia Elkar-teko kideak, izan ere, Aperribai bera ere, elkarteko kide da.

Datorren asteleheneko erre-reportajea bergararrak ipini duen landare-sikuen lokalaren gaineko izango da. Julen Iriondok, Koldo Eleizaldeko lokalean era-kusgai ipini dituen guztiak era-kutsiko ditu. 21:47an izango da.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Gabilondo news

Ez da ia albistegi zeharo inpartzialik existitzen. Era guztieta manipulazioak jasan ditugu albistegietan. Bainan orain arte, pixka bat disimulatzen sariaten ziren. Partzialtasuna erreportajearen muntaian edo iraupenean aplikatzen zuten. Orokorean, aurkezlearen figura nahiko hotza eta neutrala izaten sariaten dira.

Iñaki Gabilondo Espanian kazetaririk errespetatuenakoa da. Eta zentzuzko profesionala dela iruditzen zaidan arren, bortitzera egiten zait batzutan bere albistegia. *Sozialistegia*. Manipulatua sentitzen naiz. Egia da manipulazio hau Aznarren garaiko TVEko albistegien baino jasangarriagoa egiten zaidala. Bainan ez nago ohitura aurkezleak bere ideologia horren era irekian erakusten. Albistegiari irrati garaiko gertutasun puntua eman nahi dio Gabilondok, eta formulak ez nau asko konbentzitzen. Azkenengo hauteskundeen aurreko egunetako albistegiak nola eraman dituen ikusi besterik ez dago. Erraza da PP zale baten haserrea imajinatzea. *Noticias Cuatro* ikusten ari denean. Diotenez, hiru egi daude: zurea, nirea eta egia benetakoa.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordu AEKKo Komunikazio arduraduna; Iñaki Munduan geltokiak, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Iñaki Munduan geltokia
Elkarritzetako
Lorategiaren geltokian
Zozketak
Zorion agurra
(parte hartzeo: 943 71 71 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarran ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurra tarte (errep.)

GOITBko programazioa

EGUBAKOITZA, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikan-toi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erre-portajea. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikuasmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikan-toi. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 28:00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 26

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikuasmira. 11:30 ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik 13:00 Eltze beroa 13:30 Erre-reportajea. 14:00 Gertutik. 14:30 Errepor-tipi ttapa. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Euskaldunok hizketan. 19:30 ikusten. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Eltze beroa. 21:30 Erreportajea ttipi ttapa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikan-toi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 27

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Euskaldunak hizketan. 14:00 Erreportajea. 14:30 Ikuasmira. 15:00 Animalia. 15:30 28 klip. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttapa. 21:00 Musikan-toi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikan-toi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 ikusten. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 29

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikan-toi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuasmira. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 30

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal artzainak. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Euskaldunak hizketan. 14:00 Erreportajea. 14:30 Ikuasmira. 15:00 Animalia. 15:30 28 klip. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttapa. 21:00 Musikan-toi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikan-toi. 00:30 Emisio amaiera.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada **giro!**

TRLUTZ
TABERNA
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatera
Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU
taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

DORLETA
DORLETA
Loteria primitiboak eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta

OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABAleta 943 77 07 94

Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

hemen □ bada
giro!


Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

hemen □ bada
giro!

Apirlak 25-29

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko egurdi baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Kontzertua



OÑATI

> Ganbara Abesbatzak bere ibilbidea laburtzeko emanaldia egindo du

Etzi, domeka, izango da emanaldia, Bidaiurreta monasterioan, 13:15ean. Koruak bere 14 urteko ibilbideko hainbat kantu eskainiko ditu: abesti zaharrak, *Sagatz* diskokoak, eta uztalean Torrevieja lehiaketan aurkeztuko dituztenak.

Jaialdia




ELGETA

> Udaberri Jaia egingo dute, lore azoka, pastel salmenta eta umeendako jolasekin

Guraso Elkarteak antolatuta, Udaberri Jaia egingo dute bihar, zapatua, Herriko plazan, 10:00-15:00. Lore azoka, ogitarteko eta etxeen egindako pastel eta tarta salmenta eta umeendako marrazketa, ohe elastikoak, jolasak... izango dira.

Hitzaldia



OÑATI

> Joxe Mari Iriondok eta Pello Zabalak Ez dok amairu gogoratuko dute

Elkar Hezi ikastetxearen Ez dok-badok amairu jardunaldien barruan, Joxe Mari Iriondok eta Pello Zabalak *Ez dok amairu sortuz eta haziz, nola joan zen? Nor bere talaiatik delako hitzaldia egingo dute gaur, Santa Anan, 19:00etan.*

Musika

ARRASATE

> Hainbat disko-jartzalek jardungo dute 3.60 aretoan

Loud Klub (elektronica) proiektuaren aurkezpen emanaldia egongo da 3.60 aretoan. Kasper&Papol, Koldo (intermusic) eta Haitz (nothing without) disko-jartzaleek musika ipiniko dute. Sarrera 12 euro da.

Bestalde, zapatua goizealdean, Gonzalo Morbid disko-jartzalea arituko da.

Loud Kluben aurkezpen emanaldia gaur, egubakoitza, 23:00etan izango da.

BERGARA

> Musika Eskolako ikasleek emanaldia egindo dute

Bergarako Musika Eskolak apirilerako antolatu dituen emanaldien barruan, kantu ikasleen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza.

Sierbeto elizan, 20:00etan.

BERGARA

> Asturiasko Angel Embil abesbatzaren emanaldia

Aritzeta abesbatzak gondituta, Asturiasko Pola de Sieroko Angel Embil abesbatzak emanaldia egingo du; Aritzetak pare bat abesti kantatuko ditu eurekin batera. 2006an Aritzetak Pola de Sierora egindako bisitaren itzulera da honakoa.

Bihar, zapatua, Santa Marina parrokan, 19:45ean.

ARRASATE

> Guatemalako projektu bati laguntzeko kontzertua, bihar

Guatemalako herri baten liburutegia eraikitzeko proiektu bat dago martxan. Horri laguntzeko kontzertua egingo dute Never Surrender, Porron y cuenta nueva, Ume gaiztuen festa eta Golpe de Estado

taldeek. Sarrerakin batutako dirua proiektu horretarako izango da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA

> Disko-jartzaleen emanaldia izango da Ziripot tabernan

Ziripot tabernak disko-jartzaleen saio bana antolatu du egubakoitz eta zapatua gauerako. Egubakoitzean, Alkate (klorofila) disko-jartzalea ibiliko da, eta zapatuan, Naiwal vs Balza (kogollo).

Bi emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

OÑATI

> Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen kontzertua

Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute datoren egunean. Talde askok parte hartuko dute: musika

tailerra eta hizkuntza musical, txistulari, metal, piano, guitarra, trikiti eta pandero taldeek eta koruek.

Astelehenean, hilak 28, Santa Ana antzokian, 18:30ean.

Antzerkia

ESKORIATZA

> Umorezko antzezlana egingo du gaur Aitziber Bilbaoak

Aitziber Bilbao aktoreak *Txapela buruan eta ibili munduan* delako helduendako antzezlana egingo du; xumea forma aldetik, baina aberatsa, ikuslekin lortzen duen energia eta harremanaren ikuspegitik. Ondo pasatzeaz gain, hainbat konturen gaineko gogoeta proposatzen du antzezlanak: gure helburuen alde borroka egitearen garrantzia eta sentimenduen aurrean

dugun ahultasuna. Hori guztia hiru sketch-en bidez irudikatzen da.

Emanaldia euskaraz izango da, eta sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

ARAMAIO

> 'Hor al zaude?' delako antzezian ikusteko aukera dago gaur

Asier Hormaza eta Ainhoa Aierbe aktoreek *Hor al zaude?* delako antzezlana egingo dute gaur. Ane eta Patxi izeneko pertsonaiena egiten dute, batera bizi izatera joan diren bi gazte. Etxea txikia eta traketsa da eta bizilagunekin arazoak dituzte; gainera, gizon ikusezin bat eurekin bizi dela konturatz dira. Maitasunaren inguruko gogoeta egitera gonbidatzen dute ikuslea.

Gaur, egubakoitza, kultura etxeko aretoan, 22:00etan.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Lau ikastetxe, 21. Eskola Arteko Abesbatzen Topaketan

Arizmendi ikastolako Basabeazpi, Gazteluondo, Santa Teresa eta DBHko ikasleek –194, guztira–, Arrasateko Mesedeetako Andra Mariko 45ek, Oñatiko Elkar Hezik 35ek eta Oñatiko Txantxiku Ikastolako 30ek parte hartuko dute aurtengo topaketan. Talde bakoitzak bi abesti eskainiko ditu, eta bukaearan denok batera kantatuko dute. Arizmendi Ikastolak antolatzen du.

Bihar, zapatua, Uarkape pilotalekuaren, 17:00etan.

ARRASATE

> Iberiar penintsulako ipuinak kontatuko dituzte

Hiru musikarik –Fran Lasuen, David Nanclares eta Asier Ercilla– sortutako giroarekin, Kandido Uranga eta Ruth Quimera aktoreek ipuinak irakurriko dituzte.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

Erakusketa

BERGARA

> Nekane Eskibel bergararraren margolanak, erakusketa

Nekane Eskibel bergararrak margolanak ipini ditu erakusketa. Hain zuzen, hogei lan dira, olio teknikan eginak, tamaina txiki eta ertainekoak. Etxeko abereak eta inguruko paisaiak margotzen ditu, batik bat, Eskibelex.

Rikardo Azkargortaren ikaslea da, eta honakoa da bakarka egiten duen lehenengo erakusketa.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan dago erakusketa.

ARRASATE

> 'Libelandula' marrazki eta poesia erakusketa Harresin

Maite del Reyk eta Maider Zubillagak *Libelandula* erakusketa ipiniko dute Harresi aretoan datorren martitzenean. Zubillagaren artelanak Del Reyren poesiaren laguntzarekin erakutsiko dituzte. Bion bigarren elkarlana da; aurrelik, *La mirada poética* delako erakusketa izan zuten Debagoineneko zenbait lekutan.

Maiatzaren 17ra arte egongo da berau bisitatzeko parada.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatua eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

> Begiak taldearen argazki erakusketa, Hamaika tabernan

Begiak taldearen argazki erakusketa bisita daiteke Hamaika tabernan. Formatu handiko hamar argazkik osatzen dute, eta *Bizi-giroak ene begin* du izenburua.

Apirl osoan dago zabalik.

ARRASATE

> Hitz, irudi eta musika erakusketa eta poesia irakurketa

Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekintzen artean, *Mugarri estaliak* delako erakusketa eta poesia irakurketa antolatu du Udal Liburutegiak. Hitza (Castillo Suarez), irudia (Koldo Arnantz) eta musika (Juan Miguel Arzelus) bateratzen ditu erakusketa eta poesia irakurketa horrek.

Bisitatzeko aukera dago apirlaren 27ra arte, Kulturateko klaustroan.

BERGARA

> **Joxerra Elortzaren erakusketa inauguratuko dute gaur**

Joxerra Elortzaren lanen erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Margolan erakusketa horretan, irudi geometrikoen koadroak erakutsiko ditu.

1978az geroztik, 50 erakusketa baino gehiago egin ditu Elortzak, bakarka zein taldeka, eta Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Gure Artea lehiaketako lehen saria irabazi zuen.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

OÑATI

> **Medicus Mundi taldearen argazki erakusketa**

Medicus Mundi elkarteko antolatutako argazki erakusketan zabalduko dute astelehenean, hilak 28, kultura etxearen. Egunero egongo da berau bisisatzeko aukera, maiatzaren 8ra arte.

Bisita ordutegia: 18:30-20:30.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> **Ei Gazte! logotipo lehiaketa deitu du Eusko Ikaskuntzak**

Eusko Ikaskuntzako Gazteria sailaren logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu dute. 16-30 urte bitartekoek parte har dezakete. Maiatzaren 15a da lanak bidaltzeko azken eguna, eta 1.500 euroko saria emango dute.

Argibideak, www.eusko-ikaskuntza.org webgunean.

ARRASATE

> **'Sexmetraia 08' film laburren lehiaketa deitu dute**

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak *Sexmetraia 08* lehiaketa deitu du, aurten bigarren aldiz. Helburua da, film laburren bitarte, sexualitatea bizitzeko dauden modu desberdinak kaleratzea eta goraipatzea. Film laburren gaia da sexualitatea eta horren barruan dauden aukerak. Filmok aurkezteko mugaeguna irailaren 30a da. Lehen saria 1.500 eurokoa da; Sexologia Euskaraz saria, 600 eurokoa.

Aurten, gainera, Sexmugi delako atal berria dago: sakelako telefonoz grabatutako film laburrak, gehienez ere 60 segundokoak. Honako helbidea bida daitezke: sexologiazertza@arrasate-mondragon.net. Atal horretan, 300 euroko saria emango dute.

Argibide gehiago, Sexologia Zerbitzuan (943 25 20 66) edo www.sexologiazertza.com webgunean.

Bestelakoak

OÑATI

> **'Sumenditik ozeanora' delako umeendako tailerra, gaur**

Zientziaren gaineko tailerrak antolatu ditu umeendako Liburutegiak.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 18:00etan hasita.



Elegy ***

Zuzendaria: Isabel Coixet. Aktoreak: Penélope Cruz, Ben Kingsley, Dennis Hopper. AEB, 2008. 108 min. 13 urtetik gorakoendako.

Elegy Philip Rothen *El animal moribundo* berriaren egokitzapena da. Istorioa intelektualen munduan kokatua dago. David Kepesh-ek unibertsitatean literatur klaseak emanen ditu, nahiko ospe intelectuala du, eta sentimenduzko lotura gabeko harreman sexualak edukitzea gustatzen zaio. Egun baten Consuela izeneko ikasle kubatar batekin harremanak izango ditu eta hortik aurrera kontrolpeak izan duen bizi eta horretarako erabililtako metodoak kolakan egongo dira; independentea izan eta bestearen bizieta kontrolatzea nahi izango du, eta hori ez da posible. Norberekeria, pasioa eta zeloak ez dria koktel baterako osagai egokiek. Kepesh-ek burua erabiten du, baina bihotza ez.

Kepesh da istorioaren pertsonaia nagusia, bera da istorioaren narratzailea. Eta Coixet-ek oso ondo barneratzen da pertsonaiaren kompleutasunean: alde batetik, pertsonaia gorrotagarria da, eta, bestetik, pena ematen du. Zuzendaria Kepesh-ek (bikain Ben Kingsley) Consuelarekin izango duen harremanen bi alderdiak erakusten dizkigu: momentu batzuetan, kamera irakasleen begirada izango da, honek ikusten duena isolatzen du, hau da, Consuelaren sentitzen duen lilurapena (Penélope Cruz-ek, aktore ona izateaz gain, kamerarekiko magnetismo berezi bat duela erakusten du, honenganako azaleko begirada; eta beste momentu batzuetan, bien arteko harremanak azaltzerakoan, ikusleak antzeman dezake Kepesh-ek ezin duena ikusi, hau da, Consuelaren barnealdea.

Elegy, Isabel Coixet zuzendariaik estudio handietarako egiten duen lehenengo lana, aldi berean film trinkoa eta distiratsua da.

Antonio Zabala

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Babe txerritxoa
hirian
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

No es país para viejos
Zapatua: 19:30.
Astelena: 20:30.

Superdog

Zapatua: 17:00.

BERGARA GAZTETXEA

Los santos inocentes
Domeka: 19:00.

ESKORIATZA TORTOLIS LUDOTEKA

Annaluise eta Anton
Egubakoitza: 18:00.

OÑATI KULTURA ETXEA

10.000
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

EIBAR UNZAGA

Los falsificadores
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, martxena eta eguztena: 19:30, 22:15.

FLORIDA-GURIDI

Elegy

17:30, 20:00, 22:30.

Joe Strummer

(el futuro no está

escrito)

20:00.

Mil años de oración

17:30, 20:00, 22:30.

La edad de la

ignorancia

17:30, 22:30.

Cosas que perdemos

en el fuego

18:00, 20:15, 22:30.

Rastro oculto

22:35, 00:35.

Papá por sorpresa

12:15, 16:05, 18:15, 20:25.

Mi monstruo y yo

12:15, 15:35, 17:40.

Fuera de carta

12:15, 15:30, 17:40, 19:50,

22:00, 00:10.

Todos estamos

invitados

12:15, 16:15, 18:15, 20:15,

22:15, 00:15.

The contract

22:25, 00:25.

Retratos del más allá

19:45, 21:45, 23:45.

21: blackjack

12:15, 15:30, 17:45, 20:05,

22:25, 00:45.

Gauerdi saioak, eguba-

koitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, dome-

kan.

Astelena, ikuslearen

eguna (jaiegunk izan

ezik).

Las ruinas

AEB, 2008. Zuzendaria: Carter

Smith. Aktoreak: Jonathan Tucker,

Jena Malone, Shawn Ashmore,

91 min. 18 urtetik gorakoendako.

Lagun talde bat oporetan doa

Mexikora, eta antzinako ondare

arkeologiko bat bisitatzen joaten

dira. Han bizi diren izpiritu gaiztoak

askatu egingo dira.

Stones Scorsese, shine ***

AEB-Erresuma Batua, 2007.

Zuzendaria: Martin Scorsese.

Aktoreak: Mick Jagger, Keith

Richards, Charlie Watts.

122 min. Denondako.

Dokumental horretan, Martin

Scorsese zuzendarriak Rolling Stones

taldea erakusten du orain arlo inoiz

ikusi ez den moduan. Taldearen

energia harrapatzen du.

La banda nos visita ****

Israel-Francia-AEB, 2007.

Zuzendaria: Eran Kolirin.

Aktoreak: Shlomi Avraham, Saleh

Bakri, Ronit Elkabetz.

104 min. Denondako.

Polizia egipiarrek osatutako musika

talde bat Israelera doa, baina aire-

portuan galdu egiten da.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

ÁBACO BOULEVARD

Dueños de la calle
15:55, 18:10, 20:30, 22:45,
01:00.

Elegy

16:00, 18:15, 20:25, 22:35,
00:45.

Expediente Anwar

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,
22:30, 00:45.

Dueños de la calle

12:15, 16:00, 18:10, 20:20,
22:30, 00:40.

La noche es nuestra

20:15, 22:25, 00:35.

8 citas

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Cobardes

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Rompiendo las reglas

19:45, 22:30.

Expediente Anwar

17:30, 20:00, 22:30.

3 días

20:20, 22:20, 00:20.

<

Rocka, liburutegia egiteko

GUATEMALA Santa Maria Tzeja komunitatean, Euskal Herria izeneko liburutegia eraikitzeko dirua jasoko dute

KONTZERTUA Arrasateko gaztetxean, ibarreko hainbat rock taldek jardun dute zapatu gauean

DIRUA Sarrerekin jasotako diruaz gain, erakundeen, enpresen eta norbanakoen laguntza ere ezinbestekoa da

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
 Apirilaren 23a Nazioarteko Liburuaren Eguna izan da, eta liburutegi bat da, hain zuen ere, bihar, zapatua, 22:00etan, Arrasateko gaztetxera rock doinuak ekarriko dituena: Guatemalako Santa Maria Tzeja komunitateko Euskal Herria liburutegia.

Ainhoa Uriarte arrasatearra Guatemalan egon zen urtebetetzez, eta liburutegia ipini zuten abian egurrezko etxetxo batean. "Euskal Herria bueltatuta, erabaki genuen dirua jasotzen jarraitza, etorkizunean porlanezko eraikina egiteko. Ez genuen nahi era-mandako tona bat liburu ustel zedin". Askotariko liburuak eraman zituzten: didaktikoak, eleberriak, ipuinak, Euskal Herriaren gaineakoak eta baita Guatemalako kultura eta hizkuntzari buruzkoak ere. Hezkuntza baliabide moduan daukate liburutegia.

Liburuak han dira, baina oraingo asmoa da diru gehiago jasotzea eraikin egoki bat egiteko. Euskadiko Kutzara eta Fagorrrera jo dute diru eske eta nor-

banakoek ere laguntza eman dute. "Dirua biltzeko ekintza indartsu bat egin behar zela pentstu, eta kontzertu bat egitea bururatu zitzai gun. Rock taldeekin harremanetan ipini ginuen eta musutruk jarduteko borondatea erakutsi dute. Eskertu nahi ditugu kontzertua antolatzentz lagundu diguten Jaio Uriarte eta Xabi Perez, taldeetako kideak, gaztetxekoak eta kontzertuan izango direnak", dio Ainhoa Uriartek.

LAU ROCK TALDE BIHAR

Kontzertua bihar izango da, eta Never Surrender, Porron y Cuenta Nueva, Ume Gaiztuen Festa eta Golpe de Estado taldeek jardun go dute. Sarrerak lau edo bost euro kostako dira, eta jasotako dirua liburutegiaren proiektura bideratuko dute. Ainhoa Uriarteren esanetan, "gutxienez 12.000 euro behar ditugu eraikina egiteko, eta erdia lortu dugu. Hangoek jardun dute eraikuntzan, baina nahi dugu euren eskulana ordaintza".



TXABOLA Egurrezko etxetxo batean dago orain Euskal Herria liburutegia, Guatemalan.

AINHOA URIARTE

ahobero

"Negar egiten dut telebistaz munduko umeak goseak ikusita. Eurak beste argal egon nahi nuke, baina euli, heriotza... gabe"

Mariah Carey > Abeslaria

Negargurea bere berbek ematen dute. Afrikan urte batzuk igaroko balitu, hain estuak diren soineko horietan sartuko litzateke, beharbada; baina euliek ere barre egingo liokete.

iturri onetik

Ekainerako, 3x3 saskibaloi txapelketa antolatzen dihardute Bergaran

Bergarako Saskibaloi Elkarteak, herritarren artean kirol hori sustatzeko asmoz, 3x3 ereduko txapelketa bat antolatzen dihardu. Eguna zehazteke badago ere, ekainean jokatzea da asmoa. Eguraldi ona eginez gero, plazara aterrako dituzte saskiak eta, euria eginez gero, frontoian jokatuko dute. Txapelketa afizionatu mailakoa izango da, eta edozein adineko kirolariak hartu ahal izango dute parte

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Goiena Huhezi-n

Euskal kulturgintzaren transmisioa masterrean izan naiz asteon hizlari, Eskoriatzan. Mintzagaia, Goienaren sorrera. Hitzaldia prestatzean, berdetu egin dut 1999-2001 tartean barru-barrutik bizi izan nuen bateratze-prozesua. "Giza abentura" deitu nion bidaia horri aurkezpenean.

Zorteak nahi izan zuen ni parean tokatzea Goiena sortzeko orduan. Zorteak eman zidan aukera esperientzia betegarri hora bizitzeko. Izan ere, gure arruntean zerbaite handia egin genuen: bateratu. Zintzo eta eskuabal jardun ginen, zaitasunak gaintzitzen. Idatziren gainean eztaba idatzea eta astia hartu genuen ados jartzeko. Bi urte haietan ez zen bozketa bakar bat behar izan. Eta ez pentsa, 45 laguneko enpresa ari ginen sortzen. Gozatu egin dut oroitzean.

ai, eñe!



Takoirik gabeko takoidun oinetakoak

Grabitatearen legeari aurre egiten diente zapatok, izan ere, aurreko aldean dute takoia. Oinaren arkuarekin egin behar da indarra.

<http://www.planetacurioso.com>

xarma
edertze zentroa

• Ile apaindegi mistoa

Olarte 3 bis i Arrasate
Tel.: 943 79 91 25
xarma_7@hotmail.com

Illerako SPA tratamendua

Landare propietateen bidezko oin eta aurpegi tratamenduak

Ordutegia

Astelehena - Ostirala:	9:30 - 19:00
Larunbata:	8:00 - 13:30